

ILUSIOAREKIN ETA ARDURAZ, IKASLEAK ESKOLAN HARTZEKO PREST

Debagoieneko eskoletako arduradunen esanetan, eskuetan dituzten neurriak hartuta hasiko dute ikasturtea; sindikatuek grebarako dei egin dute / 4

Leintzeko Arizmendi Ikastolako, Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuko eta Bergarako Mariaren Lagundiko zuzendariak: Iñaki Etxezarreta, Itziar Agirre eta Gotzon Iparragirre, hurrenez hurren. XABIER URZELAI

Arrasateko kaleak zinema plato bihurtuta, 80an girotutako filma grabatzen

'Érase una vez... Euskadi' filmatzen ari dira, Manu Gomez arrasatearraren aginduetara, Yon Gonzalez aktore bergararrarekin / 38



Filmaketaren une bat, eguaztenean, Arrasateko Erdiko kalean. IBAI ZABALA

Hirugarren erreia egingo dute Elorriotik Kanpazarrerako bidean, 13 hilabeteko epearen barruan / 9

Gipuzkoako Futbol Federazioko buru izateko hautagaitza aurkeztu du Manu Diaz bergararrak / 36

SINADURAK



ESTEPAN PLAZAOLA / 10



MIEL GURIDI / 33



MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 16



AGURNE BARRUSO / 48



Iker Elizbururi elkarriketa, Wolfratex enpresaz

AP-1 autobidea: azpiegitura horren argi-itzalak

Uztailean eta abuztuan nabarmen egin dute gora kasu positiboek bailaran

Arrasatek jarraitzen du bailarako herri kolpatuena izaten, baina Bergaran eta Oñatin asko ari da hazten kutsatu kopurua; azken bi hilabeteetan atzemandako kasuak, esaterako, apiril bukaerara arte atzemandakoak baino gehiago dira bi herri horietan




ULMA Handling, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko erabiliko premiazko neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritzen direnaren arabera, ULMA Handling Systems, S.Coop-eko Kontseilu Errektoreak ("Koopertiba"), 2020ko uztailearen 30eko bilera, erabaki da Ohiko Batzar Nagusia deitua eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 14a
Ordua: 11:30ean lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena
Tokia: Bideokonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko urteko banakako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2019ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
 - 7.1 2019ko ekitaldioko emaitzak banatzea
 - 7.2 Borondatezko Erreserba Fondosik banatzea
8. POGU III KO III. IDAZPURIAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
9. POGU III KO II. IDAZPURIAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURIAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETA ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT.A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.BI ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetatik egindako erabilera buruzko deskargua
 - 12.2 2020an IPDK-ko zenbutekoak aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jardura sozialaren ildoen azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
15. ZAIENZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
16. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
17. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
18. AHALMENAK ESKUORDETZEA
19. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bilakaren proposatutako rae Kooperatibaren egoerari eta jarduerari erlazionatutako dituzten urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontu bako bakoaren aplikatzeko egindako proiektuak, Batzar Nagusiaren deialdiaren egunaren aurretik aldi irazi dituzten. Hala ere, hurbile guztiz jakingarria rae Kooperatibaren egoerari eta jarduerari buruzko informazioa lantzerantz eta POGU IIIa proposatutako aldiakoa izan ezazu eta aldiakoa izan ezazu jakingarria izateak, eta horiek deialdi duan eguneko edo hurrengo eguneko deialdiak. Inkarierak, bazkideen jakingarria rae Kooperatibako Kontseilu Errektoreak komunikazio berriaren bidez deialdi honen eguneko gisa, oso jakingarria izan dezake, azalpena eta bideratzea gaitzeko beharrezkoak izaten diren Ohiko Batzar Nagusiaren bidez.

KONTSEILU ERREKTORAK
Oñati, 2020ko abuztuaren 31a

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdi egoera ezarri zuen martxoaren 13an, eta, bi egun geroago, martxoaren 15ean, Espainiako Gobernuak agindutako alarma egoera sartu zen indarrean Hego Euskal Herrian. Koronabirusaren pandemiaren hasiera zen hura, eta geroztik sei hilabete igaro dira.

Martxoa eta apirila izan ziren hilabeterik zailenak, COVID-19 gaitzarekiko ezjakintasan handia zegoelako eta kasu positiboek eta hildako kopuruak asko egin zutelako gora. Debagoienean, apirila izan da orain arteko hilabeterik okerrera, kasu positiboek erreparatuz gero. 242 kasu atzeman zituzten orotara bailaran, horietatik 69 Arrasaten. "Hasierako hilabeteetan pandemiaren inpaktua handiagoa izan zen Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, Araban gertatutakoaren antzera. Bailarako gainontzeko herrietan gaitzak hasiera hartan izan zuen inpaktua suabeagoa izan zen, Gipuzkoan gertatutakoaren antzera", azaldu du Agustin Agirrek, Debagoieneko Ospitaleko zuzendari medikuak.

Gerora, konfinamenduaren ondorioz, maiatzean eta ekainean nabarmen egin zuen behera kasu positiboek kopuruak, baina uztailean berriro ere goranzko joera hartu zuen kurbak. Hilabete hartan 139 kasu erregistratu ziren Debagoienean, eta abuztuan goranzko joera berretsi zen -187 kasu positibo-.

Osasun larrialdi egoera berriro

Kasu positiboek denean egin zuten gora, eta Eusko Jaurlaritzak hainbat neurri hartu zituen. Horien artean, maskararen erabilera derrigortu zuen uztailearen 16an, eta, hilabete geroago, abuz-

tuaren 17an, berriro ere indarrean sartu zen osasun larrialdi egoera.

Halaber, Hego Euskal Herrian, abuztuko kasu kopurua martxokoa eta apirilekoa baino handiagoa izan zen zenbait egunetan, eta, hala, abuztuaren 27an, pandemia osoko daturik altuena erregistratu zen: 1.017 kasu positibo egun bakarrean -Debagoienean 17 kasu izan ziren egun hartan-. Uztaileko eta abuztuko datuek, halere, ez zuten apirileko datua gainditu bailaran.

Arrasate, herri kaltetuena

Hasiera-hasieratik, Arrasate izan da bailarako herri kolpatuena, eta kutsatu kopuru altua izan du ia hilabetero. Apirilean, esaterako, 154 kasu erregistratu zituzten. Ekainekoa, halaber, salbuespena izan zen, hiru kasu baino ez baitzituzten atzeman hilabete osoan Arrasaten.

Era berean, Bergara da bailaran bigarren kasu gehien izan dituen. Halere, nabarmentzekoa da azken bi hilabeteetan izan dela igoera handiena han, uztaileko agerraldian eta ondorengo asteetan, hain zuzen. Abuztuan, esaterako, 54 kasu atzeman zituzten Bergaran, Arrasaten bezainbeste -gainontzeko hilabeteetan Arrasaten askoz ere kasu gehiago izan dituzte-.

Oñatin ere Bergaran gertatutakoaren antzekoa gertatu da. Pandemiaren hasieran baino gehiago, azkenaldian hazi dira kasu positiboak. Abuztuan, 41 kasu atzeman zituzten herri har-

APIRILA IZAN DA ORAIN ARTEKO HILABETERIK KALTETUENA BAILARAN: 242 KASU

LEINTZ GATZAGAN EZ DUTE KASU BAKAR BAT ERE ATZEMAN PANDEMIA HASI ZENETIK

DEBAGOIENKO OSPITALEA COVID-19A DUTEN PAZIENTEAK HARTZEN HASIKO DA ASTELEHENEA

tan eta martxoan eta apirilean, 45. Horrek esan gura du ia bi hilabete zailenetan bezainbeste kasu atzeman zituztela abuztuan.

Aretxabaletaren kasuan, Agirrek adierazi duenez, lehen hilabeteak izan ziren kolpatuena, eta gerora ez dute igoera nabarmenik izan kasu positiboek. Hala, kasu kopuru bera izan dute martxoan zein abuztuan: 21.

Eskoriatzan, bestalde, uztailean eta abuztuan atzeman zituzten kasu kopuru altuenak, hamaika kasu hilabete bakoitzean. Baina pandemiaren hasieran ere izan zituzten hainbat kasu: martxoan zazpi eta apirilean sei.

Elgetan, Antzuolan eta Armaion, herri txikiagoak izanik, kasu bakanak izan dituzte sei hilabete hauetan zehar, agerraldi esanguratsu barik. Hala ere, azpimarratzekoa da hiru herrietan maiatzean izan dutela kasu kopuru altuena: sei, bost eta hiru, hurrenez hurren.

Leintz Gatzagan, azkenik, kasu positibo bakar bat ere ez dute atzeman pandemia hasi zenetik.

PCR gehiago egiten dira orain

Kasuen gorakadari lotuta, kontuan hartu beharreko datu bat da orain askoz ere PCR proba gehiago egiten dituela, oro har, Osakidetzak, martxoan edo apirilean baino. Hasieran, 3.000 proba inguru egiten zituzten, eta gaur egun, 9.000 proba ere egin izan dituzte egunean. "Lotura zuzena dago, noski. Egia da proba gehiago egitean kasu positibo gehiago atzemateko aukera daukagula. Modu horretan, asintomatiko asko atzematen ari gara orain, lehen atzematen ez genituenak. Batez ere, gazteak dira horiek", nabarmendu du Agirrek.

"Espero genuen kasuen igoera"


Debagoieneko Ospitaleko zuzendari medikuak adierazi duenez, udan, eta batez ere abuztuan, izan den kasu positiboek igoera aurreikusten zuten. "Opor garaia da, mugikortasun handiagoa dute herritarrek, eta ohi baino denbora libre gehiago ere bai". Hori dela eta, orain, segurtasun neurriak hartzen jarraitzeko dei egin du. "Musukoak modu egokian erabili behar ditugu, distantzia soziala mantendu, eta eskuak ondo eta sarri garbitu. Horrek bakarrik laguntzen du birusaren hedape-



Kasu positiboak Debagoiengan

ITURRIA: OSAKIDETZA

	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA
Arrasate	69	154	23	3	60	54
Bergara	18	27	9	1	33	54
Oñati	20	25	3	2	19	41
Aretxabaleta	21	26	9	6	12	21
Eskoriatza	7	6	2	0	11	11
Elgeta	0	2	6	0	3	3
Antzuola	2	2	5	0	1	2
Aramaio	2	0	3	0	0	1
Leintz Gatzaga	0	0	0	0	0	0
DEBAGOIENA	137	242	60	12	139	187



na murrizten. Neurri horiek modu zorrotzean hartuko balira, ez lirateke hainbeste kasu eta agerraldi berri egongo".

Orain arte, ospitalea egonkor

Hego Euskal Herriko datu orokorrean harago, Agirrek onartu du Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua egonkor mantendu izan dela hasieratik. "Egia da kasu puntual batzuk izan ditugula, baina ez dugu agerraldi inportanterik eduki, Azpeitian, Getarian, Ordizian edota beste herri batzuetan moduan".

Hala ere, azken egunetan geroz eta ospitaleratze gehiago izaten ari dira Hego Euskal Herriko ospitaleetan, eta aldaketak datozela aurreratu du zuzendari medikuak. "Egoera ez da martxokoa bezain txarra, baina geroz eta ospitaleratze gehiago ditugu, eta ikusi egin beharko dugu zer gertatzen den".

Horren ondorioz, Debagoieneko Ospitaleak "garbia" edo "COVID-19 gabekoa" izateari utziko dio astelehenetik, irailaren 7tik, aurrera. "Horrek esan gura du ez ditugula Arabako Unibertsitate

tate Ospitalera bideratuko ospitaleratzeak behar dituzten COVID-19 pazienteak".

15 kasu azken egunean

Atzo, eguna, Osakidetza eman dako datuen arabera, azken boladako daturik kezagarriena erregistratu zen eguaztenean Debagoiengan. Izan ere, bost kasu positibo atzeman zituzten Bergaran, lau Aretxabaletan, hiru Arrasaten, bi Oñatin eta bat Antzuolan. Hamabost kasu, beraz, bailara osoan.

Dagoeneko, beraz, 793 dira orain arte COVID-19ak kutsatutako debagoiendarrak. Datu metatuak herriz herri aztertuta, berriz, gehienak arrasatearrak dira: 369. Bergaran, berriz, 147 kasu atzeman dituzte orain arte; Oñatin, 112; Aretxabaletan, 100; Eskoriatzan, 34; Elgetan, 14; Antzuolan, 11; Aramaion, 6 eta Leintz Gatzagan ez da positiborik atzeman -ezkerrean dagoen grafikoak abuztuaren 31ra arteko datuak bakarrik islatzen ditu-.

Panfleto faltsuez ohartarazpena

Azkenik, Agustin Agirre Debagoieneko Ospitaleko zuzendari medikuak jakinarazi du egun hauetan buzoietan panfleto faltsuak banatzen ari direla Debagoiengan eta, batez ere, Oñatin. "Sanitario moduan sinatzen dute, baina haiek diotenak ez du ordezkatzen guk gaitzari buruz dakiguna. Hori dela eta, ohartarazi gura dugu oso arriskutsua izan daitekeela panfleto horietan dagoen informazio eta aholkuak kontuan hartzea".

Sor daitezkeenei aurre egiteko gertu dira eskoletako ordezkariak

Ikasgeletara era mailakatuan itzuliko dira EAEko ikasleak; lehenak, astelehenean. Ikastetxeak "ahalik eta seguruenak" izan daitezzen ari dira lanean ordezkariak. Eskolek "funtzio soziala" betetzen duten heinean, beharrezkoa ikusten dute itzulera

Maialen Santos ARRASATE

Joan den egubakoitzean aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak ikasturte berriari ekiteko neurriak. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak azaldu zuenez, Hezkuntza Sailaren eta Osasun Sailaren elkarlanetik sortutako neurriak dira horiek.

Ikasleak era mailakatuan bueltatuko dira ikasgeletara. HH, LH eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak astelehenean, irailak 7, itzuliko dira goizenez –edo ikastetxe bakoitzak aurreikusita zuen egunean–. DBHko 3. eta 4. mailakoak eta batxilergoko ikasleak, berriz, irailaren 15ean. Lanbide Heziketari dagokionez, tailerrak eta lantokietako praktikak "antolatuta beharra" dagoe-la eta, ikasleak irailaren 14tik aurrera bueltatuko dira: Goi Mailako Lanbide Heziketako 1. mailakoak irailaren 16an eta 2. mailakoak, 14an; Erdi Mailako Lanbide Heziketako 1. mailakoak irailaren 23an eta 2. mailakoak, 21ean; eta, bukatzeko, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak kasuan, ikastetxeetan ematen bada, 1. mailakoak irailaren 30ean eta 2. mailakoak 28an, eta udal zentroetan bada, 1. mailakoak 16an eta 2. mailakoak 14an.

Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuko zuzendari Itziar Agirre, Bergarako Mariaren Lagundia

"IKASLEAK GOXO HARTU ETA EMOZIONALKI NOLA DAUDEN IKUSIKO DUGU LEHENBIZI"



ITZIAR AGIRRE
ZUAZOLA-LARRAÑA
INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Ikastolako zuzendari Gotzon Iparragirre eta Arizmendi Ikastolako zuzendari Iñaki Etxezarreta "etenik gabe" ari dira eskolara itzulera prestatzen, eta datozen asteetan ere "lanean" jarraitu beharko dute. Itzulera-rako kontingentzia-plana prestatu dute jadanik, baina horri egokitzapenak egin behar izan dizkiote azken egunetan. Hori guztia, birusaren hedapena saihestu eta eskola "ahalik eta espazio segurua" izan dadin.

Itzulera, "beharrezkoa"

Hiru zuzendariak aitortu dute ikasturte hasierarako egoera hobe izan zedin espero zutela; eta, zehazki, urrian edo azaroan "okerrago" egotea "aurreikusten" zutela. Hala eta guztiz ere, hasierak baino gehiago, datozen hilabeteek kezkatzen dutela adierazi du Iparragirrek: "Neguko hilabeteetan koronabirusa ohiko gripe eta katarroarekin nahastuko da. Horrek kezkatzen nau gehien". Etxezarreta bat dator ikuspuntu horrekin, eta uste du hezkuntza presentzialera itzultzea "beharrezkoa" dela; izan ere, eskolaren rola "funtzio sozial osagarriak" betetzea da: "Azken 200 urteetako rola izan da gurasoek bete ezin dezaketen funtzioa betetzea, eta hori ezin du beste inork bete. Eskolak ixten badira,

"ESKOLAKO SARRERA ETA IRTEERAK IKASLEAK GURUTZATU EZ DAITEZEN ANTOLATU DITUGU"



GOTZON IPARRAGIRRE
MARIAREN LAGUNDIA
IKASTOLAKO ZUZENDARIA

arazo sozial bat sortzen da". Are gehiago, Agirrek uste du "ezberdintasunen berdintzailea" dela eskola; hots, "ezberdintasun sozioekonomikoak berdindu eta ikasle guztientzat aukera berberak bermatzen dituen tokia".

Lehenik, neurrien implantazioa

Eskolara itzulera ahalik eta "normalena" izan dadin lehen egunetan egin beharrekoak zehaztu dituztela aitortu dute. Zuazola-Larrañako zuzendariak uste du hasteko eta behin ikasleak "goxo" hartu behar direla, "eta emozionalki nola dauden ikusi". Iazko ikasturtearen zati bat galdu edo gaiturik ez zuten kasua ere aztertu beharko dute; materia horiek nola berreskuratu daitezkeen ikusteko. Eta zeregin guztietan "garrantzitsuenak" da neurri sanitarioak inplantatzea: "Ikasleek zenbait kontu barneratu beharko dituzte; esaterako, eskuak sarri garbitu behar dituztela, eta ikasge-la maiz oreatu behar dutela".

Segurtasun neurri ugari hartuko dituzte zentroetan. Jaurlaritzaren aginduz, esaterako, 1,5 metroko distantzia bermatzen den kasuetan ere nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea irakasle guztientzat eta LHko 1. mailatik gorako ikasleentzat. 6 urtetik beherakoentzat, berriz,

"FAMILIEKIN HITZARMEN SOZIAL BAT EGIN BEHARKO DUGU; ELKARREKIN BIDEA EGIN"



IÑAKI ETXEZARRETA
ARIZMENDI IKASTOLAKO
ZUZENDARIA

gomendagarria baino ez da izango. Hori ez ezik, zentroetako arduradunek gurasoei eskatuko diete ikasleek temperatura etxetik hartuta eraman dezatela –eta norbaitek sukarrrik balu, etxean gera dadila–. Ikastetxe publikoetan, baina, gurasoei horretarako "gomendioa" eman arren, ikasgelan ere hartuko diete temperatura ikasleei. Zentroko langile guztiek ere egunero neur-tu beharko dute temperatura.

Bestalde, garbiketa eta desinfezio lanetan "ohi baino lan

handiagoa" egingo dutela azaldu dute arduradunek, nahiz eta horretarako langile gehiago kontratatuko ez dituzten. "Jaurlaritzatik esan zuten laguntzak emango zituztela itunpeko ikastetxeentzat, baina ez zuten zehaztu zein motatako laguntzak izango diren; ez dugu inolako laguntzarik espero", adierazi du Iparragirrek. Ildo horretatik, "hezkuntza-zerbitzua indartzeko" eskola publikoetara bideratzeko 1.000 langile gehiago kontratatzea aurreikusten zutela azaldu zuen

ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela-eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko prentziako neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritzen diren araber, ULMA Servicios de Manutención, S.Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko urtailaren 16ko bileran, erabaki du Ohiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 16a
Ordua: 8:30ean lehenengo deialdian eta 9:00etan bigarrenean
Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRIESTE, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko urteko buruzko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2019ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
 - 7.1 2019ko ekitaldiko ematzak banatzea
 - 7.2 Borondateko Erreserba Fondoak banatzea
8. POGU III-KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
9. POGU III-KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.BI ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIE, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetatik egindako erabilerrari buruzko deialtegia
 - 12.2 2020an IPDK-ko neurriak aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jardura sozialaren ildoan azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
15. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
16. ZABITZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
17. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
18. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
19. AHALMENAK ESKUORDETZEA
20. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzaren proposamena zuzen Kooperatibaren egoera ezagutzeko deialteia urteko kontuak, neurriak aplikatzeko proposamena eta kontuak buruzko deialteia egiteko gaiturik zutenak, Batzar Nagusiaren deialteia erabakiaren aurretik ahal izan dituzten. Hala ere, bazkide guztiek jatorritasun zuzen Kooperatibaren egoera ezagutzeko deialteia erabiltzeko deialteia eta POGU IIIko proposamendua aplikatzeko deialteia erabiltzeko deialteia erabiltzeko deialteia, eta horiek deialteia erabiltzeko deialteia erabiltzeko deialteia. Batzaren, bazkide guztien zuzen Kooperatibaren Kondele Funtzioari konpromisoa berri gaiturik deialteia erabiltzeko gaiturik, berri deialteia erabiltzeko, deialteia eta deialteia gaiturik deialteia erabiltzeko deialteia Batzar Nagusiaren bidez.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko abuztuaren 24a

Cristina Uriarte sailburuak joan den astean, ikasgela bakoitzeko "ikasle gehien" dituzten ikastetxeetara bideratuta. Hori ez ezik, Hezkuntza Sailak segurtasun-materiala emango die ikastetxeei, egoerari "berme guztiekin" aurre egiteko. 500.000 maskara bidaliko dituzte hileroko ikastetxeetara, eta ikasturtea hasi aurretik, 800.000 maskara kirurgiko emango dira. Bestetik, termometro digitalen banaketa ere egingo dute, eta gel hidroalkoholikoak ere banatuko dituzte. 24.361 ordenagailu eramangarri ere erosi dituzte, premia dutenen eskura jartzeko. Bukatzeko, ikastetxeetako garbiketako langileak goizez arituko dira lanean, "segurtasuna indartzeko".

Materialaren desinfekzioa

Materialaren erabilerari buruz galdetuta, zuzendariak diote ikasle askok ordenagailuz egiten dituztela lan gehienak, eta, bakoitzak berea duenez gero, "arazorik" ez dute ikusten. Liburuekin ere antzera gertatzen da. Materiala elkarbanatu behar duten kasuetan, azkenik, erabilerak bakoitzaren aurretik eta



Hiru ordezkariak espazioen antolatetari buruz hizketan, eserlekuak dagoeneko banatuta dauden aretoan. XABI URZELAI

ostean "ikaslearen ardura" izango da horiek desinfektatzea.

Espazioen banaketa

Jaurlaritzak emandako neurriak ikastetxe guztientzat berak badira ere, arduradunek argi dute

"nork bere espazioa" duela, eta ikastetxe eta eraikin bakoitza "ezberdina" dela. Ikasle ratioak jaistea "ezinezkoa" iruditzen zaie, eta, beraz, espazioa administratzeko lana "zaila" egin zaie, oro har. "Ikasle ratioak

jaisteko behar ditugu irakasle gehiago eta espazio gehiago; eta ez ditugu", azaldu du Arizmendiko zuzendariak. Gauzak horrela, eraikinean erabilgarri duten espazioa "ahalik eta ondoen" banatu behar izan dute.

Ikastetxera sartzeko sarrera eta irteerak, bestalde, "ikasleak ez gurutzatzeko moduan" antolatuko dituzte. Hori gutxi balitz, zenbait ikastetxetan komunak misto bilakatu dituzte, kurtso bakoitzeko gela bakoitzeko ikasleek erreferentziarako komuna izan dezaten. Hala eta guztiz ere, ikasleak banatzeko "ahalegina" egin duten arren, ezin dute "ziurtatu" ikasleak joan-etorrian gurutzatuko ez direnik. Ikastetxeeko espazio komunak ere erabiliko dituzte; hots, liburutegia eta teknologia gela. "Horietan nork bere tokia izango du, beti berdina. Irakasleak izango du mapa bat ikasle bakoitza non jarri behar den ikusteko", azaldu du Zuazola-Larrañako zuzendariak. Jolastorduan ere antolatuko beharra izango dute: "Maila batzuetako ikasleek eskolatik kanpo egiten dute atsedena. Ikastetxean geratzen direnak adinka banatuko ditugu", dio.

Jantokiari dagokionez, Cristina Uriarte sailburuak esan du "ikasle kalteberak" dituzten zentroetako jantoki-zerbitzua lehenetsiko dela, ikastetxeak jantoki-zerbitzuaren inguru—>

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

**Matrikulazio
epea zabalik**

**AZKEN
PLAZAK!**



Astehenetik aurrera ikasturtea hasteko prest dira bailarako zentroetan. XABI URZELAI

—>ruan hartutako erabakiaren arabera, eta lan-arriskuen prebentziorako neurrietan ezarritako neurriak errespetatu. Hori horrela, zerbitzu hori nola eman ari dira aztertzen bailarako ikastetxeetako ordezkariek. Litekeena da ikastetxe batzuetan zerbitzu hori "mugatzea"; eta adin batetik aurrerakoak bazkalorduan ezinbestean etxera joan behar izatea. Beste zentro batzuetan, aldiz, ikasle guztiek izango dute jangela geratzeko aukera. Arizmendiko Iñaki Etxezarretak azaldu du jangela txikietan ez dutela arazorik izango, baina jangela handiagoetan bazkaltzeko "txanda gehiago" egin beharko dituztela; era horretan, txanda bakoitzean ikasle gutxiago egon daitezke. Bazkalordua bera baino gehiago, Gotzon Iparragirek argi dauka aurreko eta osteko tarteak izango direla "kontrolatzen zailenak", hori baita bizikidetzaren taldeak hautsi, eta elkarren artean "nahasten" diren momentua.

Bizikidetzaren taldeetan, gelakideekin emango dute denborarik gehiena egunerokoan, eta metodologia aldaketa egitea ere kostako zaie: "Lehen, talde kooperatiboetan lan egiten zuten, eta hori aldatu egin beharko dute", azaldu du Agirrek. Horrek hezkuntzari "bira bat ematea" dakar: "Hausnarketa bat egiteko balio du, eta zertan saiatu behar dugun ere ikusiko dugu".

Eudelek, berriz, lankidetzaren eskaera legin die udalei. Haurren

eta nerabeen eskolazte presentziala bermatuko duten udal-espazio publikoak identifikatu ditzatela eskatu du, espazio horiek ikastetxeentzat erabiltzeko moduan egon daitezkeen, beharrik izango balute.

Hitzarmen sozialaren beharra

Eskola publikoko, Kristau Eskolako eta Ikastolako ordezkariek argi dute "etengabe egokituz" joan beharko dutela egoera berri eta gertakarietara, baina uste dute familiekin elkarlanean aritu beharko dutela une oro. "Familiekin hitzarmen sozial bat egin beharko dugu, elkarrekin bidea egin", adierazi du Etxezarretak. Izan ere, uste dute etxekoek ere "prozesu hezitzaile bat" egin beharko dutela; eta eskolan egiten dena, kalera eramanez: "Eskolari ezin zaio exijitu kalean egiten ez dena. Ezin daitezke bi neurgailu eduki: gizartean zabal, eta eskolarekin zurrunt", dio. Are gehiago, aitortu dute eskolatik irtendakoan haur guztiak elkarren artean nahasteak "ez lukeela inolako zentzurik". "Ardura konpartitu bat ikusteko inoiz momentu historiko bat badago, hau da. Guztiok talde lanean eta norabide berean joateko unea da", argitu du Mariaren Lagundiko zuzendariak.

Kasu positiboen hautematea

Joan den egubakoitzean egindako agerraldian zehaztu zituen Jaurlaritzak zeintzuk diren koronabirus kasu positibo posible

baten aurrean jarraitu beharreko urratsak. Ikastetxe bakoitzak arduradun bat izango du COVID-19arekin lotutako alderdiak lantzeko. Pertsona hori, zentroko zuzendaritzarekin batera, Osasun Publikoarekiko koordinazioaz arduratuko da. Halaber, ikastetxe bakoitzak erreferentziako ESI bat izango du (Erakunde Sanitario Integratua). Ikasle edo irakasle batek COVID-19arekin bateragarria den sintomarik badu, ez du ikastetxera joan beharko. Sintomak dituen ikaslea ikastetxean badago, aurrez horretarako prestatutako gela batera eramanez beharko dute, bertan isolatuta egon dadin. Ikastetxeak gurasoekin harremanetan jarri beharko du jarraian, ikaslearen bila joan daitezkeen. PCR proba ere egin beharko diote. Bestetik, zentroko arduradunak osasun agintariekin jarri beharko du harremanetan, eta egoeraren berri eman. Gainontzeko ikasleek normal jarraituko dute eskolak jasotzen.

Ikasle edo irakasleak PCR proban positibo emango balu, gaixoareneko kontaktua identifikatu beharko litzukete, Osasun arloko arduradunen jarraibideen arabera. kontaktu horiek, gainera, berrogeialdia bete beharko lukete etxean.

Horren harira, Espainiako Gobernuak asteon iragarri du koronabirusaren positibo ematen duten haurren gurasoek soilik eskatu ahal izango dutela gaixo-agiria; ez, ordea, bakartuta dauden baina negatibo eman duten haurren gurasoek.

Egoeraren bilakaeraren jarraipena egiteko, astero bilduko den Jarraipen Batzorde bat egongo da lurralde bakoitzean, Osasun Publikoak eta Hezkuntza Sailak osatuta. Hezkuntza-COVID Aholku Batzordea ere eratuko da.

Jarraibide "baliagarriak"

Zuzendarien ustez, sintomak detektatu gero jarraitu beharreko urrats horiek kudeaketa egoki baterako "baliagarriak" izango dira; izan ere, "positiboaren agerraldiak" izango dituztela argi dute, "eskola ez baita salbuespena". Etxezarretak argi dauka gisa horretako erabakiek "goitik" etorri behar dutela, ikastetxeetan ezin baitituzte hartu "osasun arloko erabakiak". Bestetik, uste du metodologiari, espazioen antolaketari... dagozkie erabakiak ikastetxeetan

hartu behar direla: "Administrazio publikoak orientazioak eman behar ditu. Gero, ikastetxe bakoitzak bere eraikinean interpretatu beharko ditu horiek; ikasle, irakasle, guraso eta baliabideei jarraiki".

Balorazio "ona"

Ikasketa presentzialera itzultzea "aukera ona" bada ere, ikasturte amaieran egindako lana ez lukete ahaztu gurako. "Uste dut sekulako lana egin dugula hezkuntza online jarraituta ere.

Ikasleek eta irakasleek, guztiok, ikasi behar izan dugu nola jardun, eta balorazio oso positiboa egiten dut horretatik", zehaztu du Agirrek. Halere, badakite ikasketa telematikoa ezin duela "inondik inora" ikasketa presentziala ordezkatu. Eta badakite eskolara itzultzeak baliabideak eskuratzea ekarriko duela ikasle zaurgarrientzat: "Badago martxotik euskaraz hitz erdi entzun ez duen ikaslerik, eta hori oso kezagarria da", diote hirurek.

ULMA

BATZAR NAGUSIA AGASILEA GENERAL

ULMA Agrícola, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko prentziako neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritzen direnaren arabera, ULMA Agrícola, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko uztailaren 13ko bilera, erabaki da Ohiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 15a

Ordua: 8:30ean lehen deialdia eta 9:00etan bigarrena

Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko ekitaldiako banakako urteko kontuak aztertzea, eta onartzea, hala badagokio
 - 4.2 2019ko ekitaldiako urteko kontu bateratuak aztertzea, eta onartzea, hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. POGU III-KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
9. POGU III-KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
10. ESTATUTU SOZIALEN 17 BAT. A), 21 C), 22. HIRU ETA 35 BI ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIE, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKUI EUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 12.2 2020an IPDK ko aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jarduera sozialaren aldean auzapena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENA EKURDDETZEA
17. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzaren proposamena (ze Kooperatibaren egitea, eta interesen elkarrekin dituzten urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta lehenengo bi bazkideen egiteko gaitasuna, Batzar Nagusiaren deialdiaren egitea) erabaki behar izango da. Halaber, bazkide guztiak jabetzakera zate Kooperatibaren egitea eta interesen elkarrekin elkarrekin egitea eta POGU III. Egoeraren aldeko aldatzea bera oso eta aldatzea bera gutxiago izateko, eta horiek diruak dena osatuko ote behar dena erabaki behar izango da. Bazkideen jabetzakera zate Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak kontuztatu berri izan diren diruak bera osatuko gaitasuna zate kooperatibaren egitea eta interesen elkarrekin dituzten Ohiko Batzar Nagusiaren berriz.

KONTSEILU ERREKTOREA

Oñati, 2020ko irailaren 14



Sindikatueta ordezkariek eguenerako agerraldian. ELA SINDIKATUA

Sindikatuak greba deitu dute hilaren 15erako

LAB, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuak agerraldi bateratua egin zuten eguenerako, eta ikasgeletara itzultzea "segurua eta adostua" izan behar dela azpimarratu zuten. Gaur, egubakoitza, hasi dira mobilizazioak ikastetxeetan

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak duela aste-bete, irailaren 27an, aurkeztu zuen 2020/2021 ikasturteari ekiteko protokoloa. Hezkuntza komunitatearentzat eta sindikatuarentzat, "berandu" iritsi da proposamena, eta "gehiegi zehaztu gabe".

LAB, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuak atzo Bilbon egindako agerraldian beharrezkotzat jo zuten ratioak murriztea, langile gehiago kontratatzea eta protokolo "zehatz eta eraginkorrak" adostea, besteak beste.

Ikastetxeetan argazki kolektiboak ateratzeko deiarekin hasi dituzte gaur protestak, eta irailaren 15erako greba ere deitu dute. Grebak ikastetxe publiko nahiz itunpekoiei eragingo die. Sindikatueta ordezkariek diotenez, Jaurlaritzak proposatutako neurrietan ez dira langileak aintzat hartzen, eta salatu dute protokoloa eratzeko prozesuan Hezkuntza Sailak ez duela beraiekin bilerarik egin nahi izan.

Adostasunik ez Uriarterekin

Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aurreko barikuan aurkeztutako protokoloa ez da hezkuntzako sindikatuen gustukoa izan.

LABen iritziz, Jaurlaritzak "motz eta itxurakerian" agertu da, eta komunitatearen beharrei "entzunger" egin die. ELAk ere protokoloa "berandu" eta "propaganda asmoekin" iritsi dela azaldu du, eta Steilasek, bide beretik, neurriak "azkeneko orduan" erabakita eta "zalantzaz beteta" daudela.

Halere, Jaurlaritzak agindutako 1.000 irakaslearen kontratazioek eragin du haserre nabarmenena sindikatuengan. Steilasek ustez, zenbatekoa ez da nahikoa; haien arabera, beste 6.000 irakasle beharko lirateke gutxienez. LAB eta ELAk, horrez gain, kontratazioen inguruko zalantzak azaleratu dituzte, ez baitakite zein irizpideren arabera abiatuko den prozesua.

Horri lotuta LABek, ELAk, Steilasek eta CCOOk ez dute ulertzen nola ez den kontratazio gehiago aurreikusi gainerako langileentzat; adibidez, jangelako sukaldari eta begiraleentzat edo garbitzaileentzat.

'HAURRAK ERE BAI' SAREKO EKIMENAK PROPOSAMENA EGINDU BESTELAKO NEURRIEN ALDE

Gurasoak ere, zalantzi

Bestetik, guraso elkarte eta plataformek ere antzeko aldarriak egin dituzte. Esaterako, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioko Lurdes Imaz koordinatzaileak dio gurasoek ez dutela bermerik jaso Osasun Sailaren aldetik, eta "ziurgabetasunez" bizi dutela egoera. Dena den, Imazek lasaitasun mezua helarazi nahi izan die gurasoei, eta datorren ikasturtean "erantzukide" izateko deia egin die. "Eskola gune segurua eta hezitzailea izatea pertsona guztien ardura da", azaldu du.

Konfinamendu garaian online sortutako HaurrakEreBai ekimenak ere bere aletxoak jarri nahi izan du, Hezkuntza Sailaren neurriek bestelako alternatibak emateko. Horrela, gomendio sorta luzatu dute hezkuntza komunitatearentzako, ikasturte berrira begira. Azaldu dutenez, sei hilabete egin dituzte hainbat herrialdetan argitaratutako ebidentzia zientifikoak gainbegiratzeko, eta "onartezina" deritzote ikasgeletan nahitaezko maskarak eta 1,5 metroko tarteari: "Ez dugu onartzen beldurra ardatz duen heziketarik". Hala, neurri murriztaileak ekiditen laguntzeko ekimenak proposatu

dituzte; esaterako, heziketa-zen-troen eskura espazio anitzak jartzea edota haurren ratioak erdira murriztea.

Esandakoez gain, guraso elkarten ardura nagusienetakoa kontziliazioa da. Jaurlaritzari lana, zaintza eta bizitza uztartzeko neurri eraginkorrak exijitu dizkiote.

Ikasleria, antolatzen

Ikasle taldeak ere hasi dira ikasturte berriari begira antolatzen, eta Ikasle Abertzaleek aurrera-

tu dute hamaika erronkari aurre egin beharko zaiela. Ernaik, bestalde, eredu aldaketa inoiz baino beharrezkoagoa dela dio, eta baita bizitzak erdigunean jartzea ere.

Bestetik, Ikasleen Sindikatuak greba orokorrerako dei egin du irailaren 16rako, 17rako eta 18rako. Hego Euskal Herrian 10.000 irakasle gehiago kontratatzea eta gobernuek kontziliaziorako baimen ordainduak bermatzea dira ikasleen eskaeretakoz batzuk.

ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inguruko ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko prentziak neurri buruzkoak, 40. artikuluan ezartzen direnaren arabera, ULMA Polímero, S.Coop-eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko uztailaren 21eko bilan, erabaki du Ohiako Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 16a
Ordua: 15:30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena
Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTIA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko urteko banakako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2019ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
 - 7.1 2019ko ekitaldioko emaitzak banatzea
 - 7.2 Berondatezko Erreserba Fonduek banatzea
8. POGU III KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
9. POGU III KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.BH ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIE, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTZEA
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDURA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetatik egindako erabilerrari buruzko deskargua
 - 12.2 2020an IPDK-ko zenbatekoak aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jarduera sozialaren irloen azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
15. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
16. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
17. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
18. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
19. AHALMENAK ESKUORDETZEA
20. GALDE-ESKEAK

OHARRIAK: Batzaren proposamenak zirelako Kooperatibaren egoera erabakigarri direla urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuan hartu behar diren beste irizpiderik egindako beste kontuak, Batzar Nagusiaren deialdiaren eragin araberakoak izan daitezke. Hala ere, batzilek jorratu dituzten neurriak Kooperatibaren egoerari buruzkoak direla erabakigarriak izan daitezke eta POGU IIIa proposatutako aldaketak irabazi edo erabakigarriak izan daitezke. Batzaren, batzilek jorratu dituzten neurriak irabazi edo erabakigarriak izan daitezke. Batzaren, batzilek jorratu dituzten neurriak irabazi edo erabakigarriak izan daitezke. Batzaren, batzilek jorratu dituzten neurriak irabazi edo erabakigarriak izan daitezke. Batzaren, batzilek jorratu dituzten neurriak irabazi edo erabakigarriak izan daitezke.

KONTSEILU ERREKTOREA
Otsai, 2020ko irailaren 3a

Unibertsitatean ere aurrez aurreko eskoletara bueltan dira ikasleak

Mondragon Unibertsitateko ikasleek datorren astetik aurrera hasiko dute 2020-2021 ikasturtea. COVID-19ari aurre egiteko neurri bereziekin, "presentzialtasuna, hurbiltasuna eta pertsonalizazioa" ardatz dituen ikasturtea izatea gura dute

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Unibertsitate mailako ikasketei dagokionez, Mondragon Unibertsitateak eskaintzen du bailaran zenbait ikasketa egiteko aukera. Horien baitan, datorren astean hasiko dira unibertsitateko ikasleak lehen eskola presentziale-tara itzultzen, eta beste batzuek datorren astetik aurrera egingo dute. Itzulera hori era mailakatu eta fakultate edota graduaren arabera egingo dute. Hala ere, neurri eta irizpide zehatz komunak ezarri dituzte, eskola jarduerara garatzeko planean eta kontingentzia planean zehaztu dituztenak.

Neurri komunak campusetan

Higiene neurriei dagokionez, ikasle, irakasle eta langile guztiek eraman beharko dute maskara jantzita unibertsitatean, eta gel hidroalkoholikoa erabili. Distantzien kasuan, pertsonak elkartu daitezkeen gunetan – lokal sozialak, kafe makina, etab.– 1,5 metroko segurtasun distantzia mantendu beharko da, baita sarrera eta irteeretan ere. Aire berriztapena areagotuko da lan eremu guztietan, igogailuak ez dira erabiliko behar-beharrezkoa ez bada, botoiak eskuekin ukitzea saihestuz, garbiketa indartuko da... Egoitza bereko espazio eta eraikinen arteko mugimenduak ahalik eta gehien murriztuko dira, pertsonak gurutzatzea saihestuz. Irakaskuntza-jarduera gehienetan, eskolak talde txikiagoetan banatu dira.

"Aurrez aurrekoa indartu"

MGEpk aurrez aurreko prestakuntza "maximizatu" nahi du ikasturte honetan, "kalitatezko goi mailako hezkuntzarako modalitatezko gokia baita". Hala,



Arrasaten dagoen Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoa. GOIENA

eskolak prestatutako prebentzio planaren arabera, irailaren 14tik aurrera ikasgeletara sarrera eta irteera txandakatua izango da eta ordutegi zehatzak jarraituz egin beharko dira, titulu, kurtso eta talde bakoitzarentzat. Era berean, gela guztiek eta laborategi eta tailer guztiek etiketa bana dute, non edukiera zehatza ageri den. Ezin da edukiera hori gainditu.

Gainera, atsedendia kendu eta klaseen iraupena 50 minutuko izango da, 10 minutuko tartea gordez eskolen artean. Bost espazio-gune mota desberdin ere aurreikusitako dituzte: jarduerara presentzialetarako gelak, online jardueretarako gelak, online jarduerak prestatzeko grabaketa gelak, praktikak egiteko laborategi eta tailerrak eta ordenagailu gelak.

"NEURRI ETA PROTOKOLO GUZTIAK BETETA, PREST GAUDE IKASTURTEA AURREZ AURRE HASTEKO"

Gune horien erabilera egiteko, txanda aldaketa bakoitzean gela bakoitza goitik behera garbituko da eta bai ikasgeletan bai ordenagailu geletan, ikasle bakoitzak beti toki bera izango du. Laborategietan, irakasleak eskularruak emango dizkie ikasleei, eta ziurtatuko du ikasle bakoitzak bere lanpostua garbitzen duela.

"Hurbiltasuna" ardatz

Irailaren 16tik aurrera hasiko dira Enpresagintza Fakultateko ikasleak Oñatiko campusera itzultzen. Gradu edo ikasketaren arabera egingo dute itzulera hori, baita mailaka ere. Hain zuzen ere, Mondragon Unibertsitateatik azaldu dutenez, 2020-2021 ikasturterako helburu nagusia da "presentzialtasuna, hurbiltasuna eta pertsonalizazioa nagusi izango dituen hezkuntza-eredua sustatzea, metodologia eta baliabide digitalekin aberastuta".



Oñatiko campusean dagoen Enpresagintza Fakultateatik ziurtatu dutenez, "segurtasun neurri eta protokolo guztiak beteta, azpiegiturak eta campusak prest

daude ikasturtean aurrez aurre hasteko".

Huhez in ere protokoloa prest

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduato ikasleek irailaren 28an hasiko dute ikasturtea, Eskoriatzako campusean. Ikus-entzunezko Komunikazio-ko ikasleek kasuan, hilaren 14an hasiko dute ikasturtea, Aretxabaletan. Graduaren arabera, "presentzialitate maila desberdina" aurreikusitako dute 2020-2021 ikasturtean. Hala, Haur eta Lehen

Hezkuntza graduatan, esaterako, astero 2-3 eguneko aurrez aurreko saioak izango dituzte ikasleek Eskoriatzako campus berrituan. Ikus-entzunezko Komunikazioa graduari dagokionez, helburua da 3-4 eguneko presentzialitatea bermatzea Aretxabaletako campusean. Aurrez aurre egingo dituzten saio eta dinamiketan "talde txikietan" egingo dute lan, "osasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko". Eskolak online eran osatzea ere aurreikusitako dute.

ULMA Embedded Solutions, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Covid-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, Covid-19aren inpartu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzkoak, 40. artikuluan ezartzen direnaren arabera, ULMA Embedded Solutions, S.Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko urtarrilaren 10eko bilan, erabaki du Ohiiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 15a
Ordua: 11:30an lehenengo deialdian eta 12:00tan bigarrenean
Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
8. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 8.1 2019an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargan
 - 8.2 ULMA Taldean 2020an IPDK ko zehatzeko aplikatzen proposamena
 - 8.3 ULMAren 2020ko jardueraren sozialaren ildoen azalpena
9. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
10. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
11. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
12. AHALMENAK ESKUORDETZEA
13. GALDE ESKEAK

OHARRAK: Batzidei jatorria duen Kooperatibaren egoera erabazteko neurriak hartzea, erabakiak aplikatzeko proposamena eta kontuan hartzea buruzkoak egiteko gaitasuna, Batzar Nagusiaren deialdian zehazten diren neurriak betetzea. Hala ere, batzidei jatorria duen Kooperatibako Kontseilu Errektoreak kontuan hartu behar du deialdi honen neurriak gaitasun baliabideekin, neurriak eta baliabideekin erabazteko gaitasuna duen Ohiiko Batzar Nagusia berriz.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko irailaren 2a

Kanpanzarren hirugarren erreia egitea onartu dute

Hirugarren erreia egiteko lanek 1.700.406 euroko aurrekontua dute eta lanen iraupena 13 hilabetekoa izatea aurreikusten du Bizkaiko Foru Aldundiak. Gipuzkoa eta Bizkaia batzen dituen errepidean trafikoa bizkortzea da lanen helburua

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Elorriotik Kanpanzarrera doan bidean, N-636 errepidean, beste erreia bat egiteko aurrekontua onartu du, behin betiko, Bizkaiko Foru Aldundiak. Elorriotik Kanpanzarrera igotzeko errepide tartean egitea aurreikusten dute hirugarren erreia, 35,800 eta 36,620 puntu kilometrikoen artean, hain zuzen ere. Hala, 3,50 metroko zabalerako hiru erreia izango ditu errepideak 800 bat metroko tarte batean, eta elkarren artean metro erdiko distantziak bereiziko ditu. Zehazki, igotzeko bi erreia izango ditu mendateak –Arrasaterako noranzkoan– eta jaisteko, aldez, bakarra.

13 hilabeteen egiteko lana

Kanpanzarren hirugarren erreia egiteko interesa zuten enpresek euren proposamenak Aldundiari aurkeztu ostean, proiektuak aztertu eta esleipen fasea hasi du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Zehaztutakoaren arabera, 13 hilabete iraungo dute lanek, eta 1.700.406,01 euroko aurrekontua onartu dute, BEZa barne. Beasain eta Durango arteko ardatza errepide azkarra izan dadin azken 25 urteetan Gipuzkoako eta Biz-

kaiko foru aldundiak, zatika, egiten aritu diren lanen baitan egingo dute hirugarren erreia Kanpanzarren ere. Ingurumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldunditik zehaztu dute hirugarren erreia hori egiteak ez



Bizkaia eta Gipuzkoa lotzen dituen N-636 errepidearen irudia. GOIENA

Izan Bidea ekimenaren baitan ekintza ugari irailetik aurrera

Ostiraletako elkarretaratzeak berreskuratu, eta euskal mendi tontorren igoera bateratua antolatu dute

J.O. DEBAGOIENA

Gure Artera-Sarek antolatuta, gaur itzuliko dira ostiralero elkarretaratzeak Bergarako plazara, 19:30ean. Jakinarazi duteenez, COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartuko dira; batez ere, maskarak eta distantziak. Era berean, Etxeratekin batera egin ohi den hileko azken ostiraleko elkarretaratzean, irailaren 25ean, ildoka antolatuko dira. Sei pankarta zabalduko dituzte plazan, aldarri askorekin: "Betiere, salbuespeneko espetze politika desagertzea eskatuz".

Bestalde, Izan Bidea ekimenak antolatuta, urriaren 3an Euskal Herriko mendi tontorren igoera bateratua izango da. Helburua, guztira, 650 tontor baino gehiago igotzea da Euskal Herri osoan zehar. Bergarako kasuan, bost multzotan antolatuta zapi tontor egitea proposatu dute: Hiru-tontorreta, Hirukurutzeta, Elosumendi, Kurutzebakar, Intxorta, Krabelinaitz eta Landarraitz. Izena emateko aukera zabalduko dute webgunean, eta herri-tarrak animatu dituzte euren herrietan parte hartzera.

103 pertsona gehiago langabezian abuztuan Debagoiengan

Uztailean baino 103 herritar gehiago daude langabezian Debagoiengan, azken hilabeteko datuen arabera. Hain zuzen, %10,86ko langabezia tasa erregistratu da abuztuan; uztailean %10,54koa izan zen eta ekainean, %10,29koa. Nolanahi ere, otsailetik hona –hau da, pandemia aurreko egoeratik hona–, 1.000 debagoiendar gehiago daude lanik gabe.

Udalerrri gehienetan okertu egin da egoera aurreko hilabeteekin alderatuta, baina salbuespenak ere badaude: Elgetan 10 herritar gutxiago daude langabezian eta Leintz Gatzagan, 1 gutxiago. Guztira, 3.385 pertsona daude langabezian bailaran.

duela kalte "esanguratsurik" ekarriko.

Trafikoa azkartzea helburu

Errepide horretan goizean sortzen diren auto-ilareri eta kamioiek eragindako zirkulazio motelari aurre egiteko neurria da honako hau, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez. Izan ere, Kanpanzarko mendateak lotzen ditu Elorrio eta Arrasate –hau da, Bizkaia eta Gipuzkoa–, errepide motela da, zirkulazio handia izaten duelako, eta, erre-

pidaren beraren ezaugarri egokienez, makurra eta bihur-gune askokoa da orokorrean.

Aldunditik emandako datuen arabera, batez beste, guztira, 6.242 auto igarotzen dira mendateak egunero. Goizeko zortziak eta hamarrak artean igarotzen dira ibilgailu gehien –egunean igarotzen diren %20–, eta, sarritan, auto-ilarak sortzen dira. Bertatik igarotzen diren ibilgailuetako asko karga handiko kamioiak izaten dira, gainera –ibilgailu guztien %17–.

ULMA

BATZAR NAGUSIA AGASAILUA GENERAL

Grupo ULMA, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko prentziak neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritakoaren arabera, Grupo ULMA, S. Coop. eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko irailaren 9ko bilan, erabaki du Ohiako Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 18a

Ordua: 8:30ean lehenengo deialdian eta 9:00etan bigarrenean

Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2020KO GESTIO PLANA ETA KOSTU MANKOMUNATUA DUTEN JARDUERA ETA ZERBITZUEN AURREKONTUA BERRESTEA
3. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
5. POGU III KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIE
6. POGU III KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETA ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOAK, ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIE
7. ESTATUTU SOZIALEN 17 BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35 BI ARTIKULUAK ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIE, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTEKO
8. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
9. ESTATUTU SOZIALEN 31. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
10. ULMA TALDE MAILAN APLIKAZIO OROKORREKO ETA ARAUDI IZAEARAKO GAI EI BURUZ KOOPERATIBA BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIEK HARTUTAKO ERABAKIAK BERRESTEA
 - 10.1 2019an IPDK-etik egindako erabilera buruzko deskargua
 - 10.2 2020an IPDK-ko zenbaterokak aplikatzeko proposamena
 - 10.3 Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
 - 10.4 Kapitalaren ordainketa
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
12. ZAINZTA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
13. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA
16. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzidei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta lanaren inguruko datuak erabiltzeko erabilera buruzko deskargua erabiltzeko. Batzar Nagusiaren deialdian erabiltzeko erabilera buruzko deskargua, batzidei gogoratu daiteke. Batzidei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta lanaren inguruko datuak erabiltzeko erabilera buruzko deskargua erabiltzeko. Batzidei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta lanaren inguruko datuak erabiltzeko erabilera buruzko deskargua erabiltzeko. Batzidei gogoratu daiteke Kooperatibaren egoera eta lanaren inguruko datuak erabiltzeko erabilera buruzko deskargua erabiltzeko.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko irailaren 4a



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Txakurrak eta artzainak

Abuztua eta iraila ardi-txakur lehiaketan garaia izan ohi da urtero. Lehenengo, herrialdeetako txapelketak; gero, Euskal Herrikoa; eta, azkenik, Oñatiko, nazioartekoa, artzaintzat preziatuena. Tartean, baita erakustaldi mordoxxa ere, han-hemenka.

1955ean jokatu zen Oñatin Euskal Herriko lehenengo txapelketa. Aurretik, 1948an, Katalunian, Ribes de Freserren, hasiak ziren halako txapelketak antolatzen, eta handik ekarri zuten oñatiarrek eredu.

Orduko egunkariak dakartenez, 5.000-6.000 ikusle inguru izan ei ziren lehenengo urtean eta 10.000-12.000 inguru bigarren. "400 auto eta 600 motor eta autobus" (sic) kontatu ei ziren bigarren urte hartan. Egunkarietako lehenengo orrialdeetan etortzen zen Oñatiko txapelketaren berri. Beste gauza asko bezala, hori ere aldatu da ordutik hona.

KATALUNIAK EKARRI ZIREN TXAPELKETAK ETA HERRIALDE KATALANEKIKO LOTURA HANDIA DA EGUN ERE

Kataluniatik ekarri ziren txapelketak eta herrialde katalanekiko lotura handia da gaur egun ere. Hango 8-10 bat lehiaketatara joaten dira gure txakurrak. Emaizta onak lortzen dituzte bertan, eta oso

estimatuak dira. Katalanak ere etortzen dira Oñatira, baina handik ez dute bertako arrazako txakurrik, Gos d'Aturarik, ekartzen.


Orain dela urte mordoxxa bat, arraza jakin batzuk hedatzen hasi ziren eta horrek tokian tokiko arrazak atzentzea ekarri zuen. Katalunian, Galizian... bertako ardi-txakur arrazak ez dira praktikan ardi-lanetarako erabiltzen. Eta badute horren penarik.

Gurean oraindik baditugu ardiatarako sena duten bertako txakurrak, mendeetan gure artzainen lagun eta lankide onenak izan direnak, eta gaur ere hala izaten jarraitzen dutenak, baina ez daude arriskutik salbu. Eta gure ondare bat dira.

Aurten ez da ez txapelketarik ez erakustaldirik izango, baina merezi du gure txakurrez eta gure artzainez gogoratzea. Zain ditzagun gure txakurrak eta bultza dezagun artzaintza: eros ditzagun gure artzainen produktuak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

A relaxing glass of ardo gorria

BLANCA URGELL

[HTTPS://LABUR.EUS/DAJNU](https://labur.eus/dajnu)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ardoa edatekotan, eskuarki beltza edaten dut, baina ez diot muzin egiten ez zuriari, ez gorriari ere aukera datorrenean.

Hiru ardo kolore bereizten ditugu guk, baina ez Neolitotik.

Aspaldi ikasi nuen *Ardo gorri nafarra, ardorik hoberena* kantatzean ez dugula "gure" ardo gorria goraitpatzen.

Adibidez, Añibarrok XIX. mendearen hasieran oraindik *ardo gorria* jaso zuen hiztegiak *vino tinto* sarreran. *Arno xuria*

eta *arno gorria* baino ez zituen bereizi Martin Landerretxe sarasketarrak Azkueren hiztegiari egin zizkion oharretan. [...]

Beraz, euskarazko wikipediak ardo gorria ardo beltz mota bat dela, kolorez argiagoa, badio ere, historiak dio alderantziz dela: ardo beltza ardo gorriaren mota berezi bat da, ilunagoa. [...]

Nola erran Iparraldeko hiztegiak ere argi uzten du *rosé* adierazteko "ardo gorria" lagunartean ez dutela erabiltzen, Hegoaldeari jarraikiz "erabilera tekniko eta zainduetan bereziki" bakarrik baizik.

Munduan barrena ere ardo beltzari "gorria" deitzen zaio,

ingelesezko *red wine* ezagunagotik hasita. Irlanderaz ere *fion dearg* deritza, aitzin-zeltazko **dergos* 'red, crimson' formatik (*Wictionary*). Munduaren beste bazter batera joanda, japonieraz ere *akawain no gurasu* eskatu behar genuke, *aka* 'gorria' eta *wain* 'ardoa' hitzetatik. [...]

Hala bada, datorkigun ikasturte -inprobisatu? ezin aspertuzko? - honen izenean zuekin topa egiteko kopa bat ardo gorri eskatuko dut, *relaxing-relaxing* topera, eta zuek nahi duzuen zerbiztatu: iluna ala argia.

Post gehiago 12. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.**Zuzendari komertziala**

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Ilgone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publikitate

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIKITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen
aldizkari honetako orrialdeetan
kolaboratzaileek adierazitako
iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arebaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaio Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Kontrolako kultura aldatzea zail egiten da lan munduan"

ANDER SANSINENEA LKS NEXT-EKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Telelana arautuko duen lege bat egiteko lanean dihardu Espainiako Gobernuak. LKS Next Pertsonen Aholkularitza Enpresako zuzendari Ander Sansineneak urteak daroatza telelanean. Goiena telebistan elkarriketatu du Txomin Madinak.

Legearen zirriborroari buruzko hainbat puntu badakizkigu: borondatezkoa izan behar dela; telelana kontsideratzeko jardunaren %30, behintzat, etxetik egin behar dela; telelana nola kontrolatu...

Logikoak diren gauzak jasotzen ditu, eta beste herrialde batzuetan aurretik arautu direnak. Ez dut ulertzen zergatik eztabaidatzen den horrenbeste lan jardun osoaren ze zati edo ze batezbesteko hartu behar den kontuan telelana kontsideratzeko. Antzinako kontrolako kultura hori haustea zail egiten da. **Kontrolaren kontua, esaterako, nola ikusten duzu?**



Ander Sansinenea, eguztanean, Goiena telebistan, Arrasaten. ENEKO AZKARATE LASPIUR

Kontrola egin behar da kudeaketa sistemak aldatzen. Ez prozesua kontrolatzen, baizik eta helburuak eta emaitzak kontrolatzen. Prozesuak aurrera nola atera norberaren kontua da.

Telelana... betilana ere entzun dugu hilabete hauetan. Nola saihestu daiteke hori?
Behar den baldintzetan egiten. Zoritxarrez, pandemiak harrapatu gintuen inolako prestaketa barik. Eta halako

egoera batean, telelana luzatu egiten da. Hezkuntza ekonomia bezain garrantzitsua da, eta orain, eskolak ere irekitzen direnean, egoera normaldu egingo da.

Etxetik egin beharreko lanorduen gainean eztabaidatzea ez zaizu logikoa iruditzen?

Telelanaren onurak bi aldeetarako dira, ez bakarrarendako. Ikerketek erakusten dute enpresei aurrezte handia dakarkiela eta langilearen gogobetetze eta produktibitate maila ere handitu egiten direla. Antzua iruditzen zait horrelako eztabaidatan aritzea.

Beharrezkoa ikusten duzu horrelako lege bat?

Bai. Espainian ez dago halako ezer araturik. Ez dago marko gutxieneko bat. Enpresek eta langileek jakin behar dute zein den joko eremua.

Erakunde publikoetako langileak lege honetatik kanpo geratuko ei dira. Zergatik?

Izan daiteke, kulturalki, burokrasia handia daukalako administrazio publikoak. Eusko Jaurlaritzak 2012an jarri zuen abian proiektu pilotua eta balorazio positiboa egin zuten bi aldeek. Baina ez da ausardiarik izan aurrera egiteko. Administrazio publikoa kontserbadorea da, beldurtia.

Langile baten kasuan, zein da onura?

Gipuzkoan, esate baterako, batez beste, egunean ordubete edo ordu eta erdi ematen ditu langile batek batetik bestera lanean. Hori desagertu egiten da. Kontziliaziorako aukerak handitu egiten dira. Produktibitatea handitu egiten da. Gogobetetze maila handitu, estres maila gutxitu, betiere, ez badaude umeak etxean atzera eta aurrera. Ez da ordaindu behar bidesaririk, gasolaririk, auto konponketarik...

Zenbateraino da garrantzitsua zibersegurtasuna?

Segurtasun perimetrala babestu egin behar da. Behar dugu ziur egon gure sistemetara kanpotik sartzen diren ordenagailuak gureak direla, pasahitzak egokiak direla, konexioak VPN bidez egiten direla... Bermatzeko gure datuak ez direla geratuko ezezagunen eskuetan.

Langileen %25ek etxetik lan egiteko aukera izango lukete. Zein sektore edo jardueran izan daitezke horretarako aproposenak?

Industrian, bulegoetako langileek etxetik egoteko aukera dute. Zerbitzuetan, kasu batzuetan ez dago zertan egon modu presentzian.

ITURRI ONETIK

Gonzalez Bastida jaio zela 100 urte

Irailaren 26an beteko dira 100 urte Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandako zuzendari izandakoa jaio zela. Mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi aurreikusita zituen Bergarako Musika Bandak. Esaterako, hil honen 26an, kalejira bat herrian barrena toki esanguratsuetan geldialdiak eginez eta, era berean, Barrenkaleko jaiotza-lekuan plaka oroigarria jartzea. Pandemiagatik bertan behera geratu dira, baina beste ekimen batzuk egitea aztertzen ari dira. 2013ko azaroaren 1ean hil zen musikaria.

ALBISTE IZAN ZEN



2010-09-06

MUren ingeniari Goi Eskola berria inauguratu zuten

Goi Eskola Politeknikoko zentro berria inauguratu zuen Patxi Lopez lehendakariak Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Isabel Zelaa Hezkuntza sailburua, Ino Galparsoro Arrasateko alkatea eta Josu Urrutia MUko errektorea ere izan ziren, besteak beste. Zentro berria hezkuntza "berrikuntza sortzeko" eta "Euskadiren etorkizuna ezartzeko formula" dela azpimarratu zuen lehendakariak.

HAU BE BADOGU!

Ikasturte berria, gai jorratuena

Sare sozialetan, ikasturte berriaren inguruko kezkek izan dira nagusi azken astean:

@selaurua: "Hasi da ikasturtea. Eta indarra beharko dugu bai!"

@ElisaMan: "Ikasturtea abian da, betiko ilusioarekin baina kezka handiagoarekin ere bai. Denon artean aterako dugu aurrera, seguru! Animo!"

@ivanasel: "Animo irakasle guztiei! Aurten, oporrak bukatu zaizkizueni musukoa eta Covid planak gehituko zaizkie. Bokazioz, sormenez eta ilusioz ikasturtea aurrera aterako dugu!"

GUTUNAK

Esker onez**IÑAKI AZKARATE**

BERGARA

Borondatez emandakoak eskerra behar duenez, bihoaz lerro hauek Bergarako Udalarentzat eta konfinamenduaren luze zabalean laguntza sarean aritu diren boluntario guztientzat. Egoeraren zaila apur bat samurragoa izan da erosketekin lagundu gaituzuelako. Biba zuek!

Pentsiodunak plazara!**ITZIAR USANDIZAGA**

BERGARA

Badira hilabete batzuk jubilatuoak eta pentsiodunok gure aldarria kalera ateratzen hasi ginenetik. Hala nola pentsio publiko duinak, gutxienezko pentsioa 1.080 euro, gizarte segurantz

propioa, osasuna ziurtatzeko neurriak hartzea...

Hau gutxi ez, eta COVID-19ak sortutako izurriteak gure kolektiboak dituen beharrak areagotu egin ditu; maskarak osasun txartelean sartzearen beharra, esaterako. Horregatik, bizi dugun egoera hau ezin da aitzakia izan gure elkarretaratzeak ez egiteko.

Horrenbestez, oporren etena igarota, astelehenetako elkarretaratzeak irailaren 7tik aurrera berriz berrabiaraziko ditugu, eguerdiko hamabietan, herriko plazan.

Elkarretaratze hauek osasun bermeekin egiteko segurtasun neurriak hartu ditugu. Horregatik, maskarak erabiliko ditugu eta distantzia neurriak zainduko ditugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

HANDIK ETA HEMENDIK

Norbere lekua**ONINTZA ENBEITA**

HTTPS://LABUR.EUS/ABINV

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Aurtengo udan ere gertatu egin da: gorputz normatiboek iraultzarako deia egin digute.

Begira, orbain bat daukat tripan, eta, hamar urteren ostean, hondartzarako bikini janztea erabaki dut.

Lunar bat daukat hemen, titi baten alboan, baina aurten *topless* egingo dut.

Ez dago emakume itsusirik, erakuts ditzagun gure gorputzak.

Ikusten ditut argazkiak, entzuten ditut ahotsak, eta haserre handi bat koropilatzen zait urdailean.

Gogoia ematen dit megafonia bat hartu, triziklo batean eseri eta munduari bueltaka hasteko: utz nazazue bakean!

Bai, badakit inoiz ez garela heteropatriarkatuak eskatzen duen bezain argalak, politik, beltzaranak edo otzanak izango.

Badakit guztiok egiten gaituztela edertasun eredu meneko, baina, benetan, ez dakizue jendearen aurrean biluzteko benetako beldurra zer den.

Ez dakizue zer den hogeita hamar dendatara sartu, eta zure neurriko bainujantzirik ez aurkitzea.

Ez dakizue zer den hondartzara joate hutsagatik jendeak konplexurik ez duzula esatea –izan beharko bazenitu bezala–.

Ez dakizue zer den zure lagun normatiboan ondoan etzan eta, desberdina zarelako, jendeak begiratu egiten zaituela sentitzea.

Ez, nik ez diot inori bere bizipenik ukatuko, baina borroka bakoitzean norbere lekua zein den jakitea gauza ederra da.

Hurkoaren defentsa**JAUME GELABERT**

HTTPS://LABUR.EUS/VP77H

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ikasturtea hasi da.

Ikasleek ohiko ratioetan beteko dituzte ikastetxeak heldu den astean, eta irakasle asko ari dira dagoeneko Nafarroako eskoletan, baina ez guziak: Gimeno kontseilariak duela aste pare bat iragarri zigun 666 irakaslez sendotuko zuela hezkuntza sistema publikoa –orain badakigu itunpekoa ere multzo berean sartzen dela–.

Egia da kontratazioen erdia egiteko dagoela, baina Gimeno hitzeko gizona dela jakinda –ahantz dezagun behingoz martxoko goiz hartako "klaseak ez dira etengo!" adierazpen finkoa, arratsaldean "denok etxera!" premiazko agindu bilakatu zena–, helburua beteko du, eta, kontseilariak berak ohiko estilo atseginean esan zuen bezala, kontratazio kopurua iragarritakoa baino txikiagoa izanen delako zurrumurrua "interpretazio makur eta okerrekoa" dela erakutsiko digu.

Dudarik ez.

Tira, badaezpadako duda txiki bat.

Seguru asko, karguan hasi zenetik buruan ez dudana erabaki egokiren bat hartua izanen du kontseilariak; baina, oro har, zalantzaragarria izan da orain arte Gimenoaren gestioa Hezkuntza Departamentuan.

Hainbestearino kritikatu da, non Txibite presidentek bere konfiantzako gizona defenditu behar izan duen: "Hezkuntza kontseilariari erasotzen dionak Gobernuari ere egiten dio eraso", argudiatu du.

Ondorioztatzen ahal da kritika erasotzat hartzen dela politikan, erasoak erantzuna eskatzen duela –dei nazazue konspiranoia, baina mehatxu inplizitu bat ikusten dut Txibiteren hitzen atzean– eta gobernukideak kritikaezinak direla; gobernuek kontseilari guziren erabakiak, edozein dela ere, bere egiten dituztela eman digu aditzera presidentek.

Bidaide guziren defentsa bera eginen ote dute gobernuburuek?


Lepoa jarriko nuke presidentek une oro gogoan izaten dutela politikagintzan gaurko laguna bihar ezagun bihurtu daitekeela, eta etzi aurkari, baita etsai sutsu ere.

Ankerra da politika mundua, Nafarroan zein Nafarroatik kanpo.

Post gehiago 10. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



16. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*


**Eskerrik asko
parte hartzeagatik!**

Bidali zure argazkiak irailaren 21era arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.

Orain arte jasotako argazki guztiak ikusi hemen: Goiena.eus/bereziak/16-udako-argazkien-lehiaketa



TXIMISTARRI | Argazkia: Maika Gallastegi Meabe



IPARRALDEKO KOLOREAK | Argazkia: Maitane Mate




BERNIAKO MENDILERROA (ALACANT) | Argazkia: Nekane Gabilondo




HONDARRIBIKO PORTUA | Argazkia: Eider Iria Vitoria




BESARKADA (ERRIOXA) | Argazkia: Ainhoa Calleja Andonegi



NIREKIN MUNDUAREN AMAIERARA | Argazkia: Jesus Mari Matilla



BAIETZ SARTU! | Argazkia: Ricardo Santa Cristina



UDALATX GAILURREAN | Argazkia: Aitor Agirrezabal



CALPEKO IFACH TONTORRETIK | Argazkia: Sergio Romero



RIOLOBOS (CACERES) | Argazkia: Igor Bereziartua

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante · Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARA
EREIN DA JAN

Beste urrats bat Zalduspe guneko domino efektuan

Udalak Transportes Aranburu eraisteko lanak esleitu ditu, eta eremu hori urbanizatzeko hirugarren urratsa izango da, Pazi-Olaren eta elektrizitate dorreen ostean. Bertako erabiltzaileei ordezko leku bat bilatu ahala botako dituzte falta diren eraikinak, 2024rako

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalak beste pauso bat emango du Zalduspe gunea urbanizatzeko bidean, Transportes Aranbururen eraikina eraisteko lanak esleitu berri ditu eta. Aurrez, Pazi-Ola gal-daragintzaren eraikin zati bat bota zuten, eta, ostean, goi ten-sioko elektrizitate dorreak lurperatu. Lanek 142.000 euroko kostua izango dute eta Nafarroa-ko enpresa batek egingo ditu.

Zalduspen, oraindik bota ez diren eraikinetan, hainbat erabiltzaile daude: besteak beste, Telefonicak hainbat makina ditu ospitale ondoko eraikinean, zutik dagoen Pazi-Olaren egoitza ohian autoen gordailua dute udaltzainek, errepidearen beste aldean dagoen eraikinean tailugileak eta SUDC daude, eta Arrasate Kristaldegia eraikin zaharrean, aldiz, Margo Taldekoak. Argatek lantegia –lehenago Asmobi– izango da eremu horretan mantenduko den eraikin bakarra.

Domino efektua

Behin horiei ordezko egoitza bat emanda, 2024. urterako aurreikusten dute Zalduspe erabat urbanizatuta egotea. Baina hori lortu bitartean, urratsez urrats joango dira eraikinak husten eta eraisten, domino efektu moduko bat sortuz, mugimendu batek hurrengo mugimendua ahalbidetuko baitu.

Horren harira, adibidez, Kultura eraikina amaitzea funtsezkoa izango da. Bertan ostatu hartuko duten eragileetako asko Zalduspe eremuan daude une honetan, eta egoitza berrira lekualdatzen direnean asko bizkortuko dira Zalduspe eremuko eraisketak. Adibidez, Margo Taldekoak mugitzen direnean, Arrasate Kristaldegia eraikin ohia hutsik geratuko da. Gauza bera gertatuko SUDC-ek eta tailugileek duten eraiki-



Oinezko bat laster eraitsiko den Transportes Aranburu eraikinari begira. XABI GOROSTIDI

BEHIN ERAISKETA GUZTIAK EGINDA, 17.000 METRO KOADROKO ERAIKIN BAT EGINGO DUTE

LANAK AMAITZEAN, 2024AN, ATSEDE-GUNEA, BIRIBILGUNEA, ETA BIDEGORRIA EGONGO DIRA BERTAN

narekin, eta baita udaltzainen egoitza alboan dagoen Ereindajanen egoitza ohiarekin ere. Une honetan, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeak dauden lokal horretan, eta, behin hutsik geratuta, udaltzainen auto gordailua bertara eramango dute. Gordailua Zalduspeko eraikin baten dago orain, eta hura ere hutsik geratuko litza-teke, eraisteko prest.

17.000 metro koadroko eraikina Eremu industrial horretan parke teknologiko izaerako 17.000

metro karratuko eraikin bat ezarriko dute. "Asmoa da jar-duera garbiak ezartzea eraikin berrian horretan. Medikuntzarekin edo laborategiekin lotutako jarduerak ezartzea da nahi duguna", azaldu du Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotzi Ibon Arrupek.

Eraikin berriaren %35 SPRI erakundearen jabetzakoa izango da, Udalak eta SPRIk Apendizen Eraikinarekin egindako permuta akordioan jaso bezala. Eraisketen eta eremua guztiz urbanizatzearen kostua Udalak hartuko du bere gain eta, guztira, 4,5 milioi eurokoa izango da.

Aparkaleku gehiago

Udalak onartutako plan bereziaren arabera, aparkaleku kopuruak gora egingo du inguru horretan.

Gaur egun, 120 inguru dira, eta lurra ez dago ondo egonkorta; 2024an, aldiz, 167 izatera pasako dira, era honetara banatuta: Nafarroa hiribidean, 47 linean; Zalduspe kalean, 37 baterian; pareko enpresetarako joateko bidexkan, 8; eta Zalduspe eta Zerrajera kaleen artean, 75 baterian eta linean.



Araba etorbidea 13 izeneko eraikina, Uribesalgo lantegi alboan. X.G.

Egoitza berria bi eragilerentzat

Transportes Aranburu eraisteko esleipenarekin batera, Araba etorbidea 13 izeneko eraikina birgaitzeko lanak esleitu ditu Udalak. Eraikina Uribesalgo lantegiaren alboan dago eta Udala da horren %50en jabe. Birgaitze lanek 99.000 euroko kostua izango dute, eta bertan kokatuko dituzte tailugileen elkartea eta Dorletako Ama Txirindulari Elkartea. Udal Gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2021a hasi orduko erabilgarri egongo da eraikina, eta txirindulari elkar-tekoak bertara lekualdatzean hasiko dituzte Transportes Aranburu botatzeko lanak.

"Ez dakigu noiz lekualdatuko garen. Bulego bat, ariketa-gune txiki bat eta bi auto gordetzeko lekua izango ditugu bertan", azaldu dute txirindularitza elkartetik. Tailugileek diote "gustura" daudela egungo lokalean, eta ez dutela presarik berrira aldatzeko.



Plan bereziak itxura hori aurreikusten du 2024rako. ARRASATEKO UDALA

Zaldusperen itxura 2024an

Irudiko planoak jasotzen du nolakoa izango den Zalduspe, behin urbanizazio lanak amaituta.

Lehenik eta behin, bidegorri sarea bertatik pasako da –irudian ere gorri agertzen da–. Gaur egun Zerrajera kalean amaitzen den zatia zuzenean joango da Fagor Arrasate parean jarriko duten biribilgune berriraino. Bertatik errepidearen beste aldera pasako da, eta handik egingo du bidea Musakola auzoraino heldu ahal izateko.

Beste berrikuntzetako bat gris kolorez agertzen den atsedengunea izango da. Oltam lantegi zaharra dagoen tokian joango da, behin hura eraitsi ostean. Belardia, zuhaitzak eta bankuak edukiko ditu, besteak beste.

Azkenik, aurrez aipatutako 17.000 metro koadroko eraikin berri bat eraikiko dute bertan. Parke teknologiko izaera izango du eta Argatek eta ospitale artean dagoen laukizuzen formako eremuan kokatuko dute.

La Merced, herriko ikastetxeen zerbitzura

Udal Gobernuak eta eraikinaren jabe diren mojek akordioa lortu dute, eraikina herriko ikastetxeen zerbitzura egon dadin. Bestalde, herriko ikastetxe guztiek landu dituzte ikasturte berria ahalik eta seguruen hasi ahal izateko neurriak eta protokoloak



La Merced ikastetxea zenaren egoitza. GOIENA

Xabi Gorostidi ARRASATE

Eudelek lankidetzara eskaera egin zien udalei haurren eta nerabeen eskolatzeko presentziala bermatuko duten udal-espazio publikoak identifikatzeko. Horren harira, mojen atea jo zuen Udalak, eta baieztokorekin erantzun diote.

"Arrasateko Udalak egoera zertu, eta Hermanas Mercedarias de la Caridad mojekin jarri zen harremanetan, La Merced ikastetxea kokatu zen eraikina, hala behar balitz, erabiltzeko baime-na eskatzeko. Udalaren ustez, eraikin hori da eskola-beharrei egokien moldatzen dena. Mojek baieztokoa erantzun diote Udalaren eskaerari, eta, hortaz, Arrasateko hezkuntza komunitateak eskola-ikasturtea normaltasun berrian garatu ahal izateko La Merced eraikina izango du eskura, beharrezkoa izango balitz erabili ahal izateko", azaldu dute Udal iturriek ohar bidez.

Era berean, erakutsitako pres-tutasungatik "eskerrak" eman dizkiete mojei, eta eskolaratzea segurtasunez egiteko Jaur-larizaren eta Osakidetzaren aholkuak betetzeko deia ere zabaldu dute.

Arrasate Herri Eskola

Eskola publikoaren hiru egoitzek –Erguin, Bedoñabe eta Musako-

la- irailaren 8an ekingo diote ikasturte berriari, eta egoitza bakoitzaren baldintzetara moldatu dituzte protokoloak.

Bedoñaben eta Musakolan ordu tegi ezberdinak jarri dituzte ikastetxera sartzeko, adinen arabera. Erguinen, adibidez, patioan antolatuko dituzte bizikidetzaren taldeak, eraikinera sartu aurretik. Jangelan monitore gehiago edukiko dituzte, eta bi txanda ezarri dituzte, ahalik eta jende gutxien pilatzeko.

Arizmendiren zortzi egoitzak

Zentro guztietan ez dute ikasturtea egun berean hasiko: hilaren 7an, Gaztelupeko DBHko 1. eta 2. mailakoek; hilaren 8an, Olarten, Umezaintzan, Santa Teresan, Arimazubín, Gazteluondon eta Zaldibarko Oinarriko Lanbide Heziketan; hilaren 14an, Gaztelupeko DBHko 3. eta 4. mailakoek eta batxilergokoek; eta hilaren 14an eta 15an, Ferixalekuko Lanbide Heziketakoek –14an 2. mailakoak eta 15ean 1. mailakoak–.

Neurriak hartu dituzte ikasturte hasierarako. Adibidez, ikasleekin saioak gehienez bi ordu eta erdikoak izango dira jarraian, eta ostean aire libreria irtengo dira ordu laurden, eta ikasgela aireztatu egingo dute.

OHARRAK

Prezio erakargarriak eta kale ikuskizunak

Ibai-arteren Merkemerkauek ez du kalerik egingo irailean. Gaur eta bihar, 30 komertzioaren mauek erosteko aukera izango da, eta ez da kale ikuskizun musikaturik faltako.

Erguingo jaiak ez egitea erabaki dute

COVID-19ak baldintzatuta hartu du erabakia jai batzordeak.

Pentsiodunen elkarretaratzeak bueltan datoz

Astehenean egingo dute eten osteko lehena: 12:00etan, Plazan.

Euskaraldiko izen emateak, irailaren 27ra arte

Kultur taldeei eta tabernei izena emateko dei egin diete.

Merkakua 2020

Txarrak uxatzen eta bertakoa indartzen!

Irailak 4 eta 5

Larunbata
FOTÉ-FARÉ 13:00-14:30
 Mugimenduan dagoen ikuskizuna, kolore eta musika desfilea, non Afrikako eritmo eta dantza indartsuak, latindar kadentzia limurtzaileak, ekialdeko soinuak eta egungo beat doinuak (drum & bass) biltzen diren.

TRIBUK 18:30-20:00
 Publikoarekin elkarreragiten duen, jantzi eta makillaje desberdinekin atondutako perkusio taldea.

www.ibaiarte.eus

ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ibai-arte

Euskadi, nazionala, bien común
 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
 DEPARTAMENTO DE CULTURA GOBIERNO DE NAVARRA

Pedro Biteriren ekarpena zizelkatzen duen ikurra

50 urte bete dira Pedro Biteriren omenezko eskultura Alfonso X Jakintsua plazara lekualdatu zutela. Lehiaketa bat egin zuten diseinua aukeratzeko, eta herritarren artean diru bilketa bat ere egin behar izan zuten Arrasateko ongilea omentzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jakina da Pedro Biterik Arrasateko herriari egindako ekarpena zabala eta probetxuzkoa izan zela. Honela laburbildu dute Arrasate Zientzia Elkartekoek (AZE): "Bere luzetasunari esker, Esteban Garibai historialariaren etxea berreraiki zen; Arrasatek lorategi publiko bat izan zuen, musikarako bere kioskoarekin; burdinazko eta kristalezko hornikuntzen plaza bat; eta eskola batzuk, non, lehen aldiz, haurrak haurrentzako propio pentsatutako eraikin batean hezi ziren, jolasleku, frontoi eta pixatokiekin; baita bertan lan egingo zuten irakasleen lana ordaintzeko dotazioa ere. Gogoratu behar da Marrazketa Eskola bat ere sartu zela eraikinean, ondo hornitua, hiriko lehen eskola profesionala izan zena". "Ez zuten herentzia nori pasa, eta herriari dohaintzan eman ezan Ogasunak kenduko zion guztia; beraz, ondo egin zuen", dio elkarteko kide Ana Isabel Ugaldek.

Finantzaketa eta diseinua

Herriko seme kuttun izendatu, eta bere izena jarri zioten eskolak eta belardiak hartu zituen kaleari. Horrez gain, haren omenezko estatua jartzeko komisioa sortu zen Arrasaten, alkatea buru.



Esker Ona izeneko monumentua, Alfonso X Jakintsua plazan. XABI GOROSTIDI

Gipuzkoan bederatzi ikastetxe sortu arren, haren omenezko monumentua jartzeko orduan Gipuzkoako Aldundiak ez zuen dirurik jarri. Udalak eta herritarrek jarritako diru ekarpenekin finantzatu zuten. Hasieran, diseinua Isidoro Uribealgo aretxabaletarrak egin behar zuen, baina Manuel Martinez Ubagok ere proposamen bat aurkeztu zuen. Uribealgotik zirriborroa eta maketa aurkeztu zituen, baina ez zuen aurrera egin, besteak beste garestiegia zelako. Egoera ikusita, lehiaketa publikoa deitu

zuten, eta Gasteizko katedralean lanean zebilen hirukote bat izan zen irabazle: Juan Pique, Emilio Molina eta Jose Riu, hain zuzen.

Estatuaren sinbologia

Mutil eta neska gazte bana daude bertan, liburu batekin ikasten. Euren ondoan gizonezko langile bat dago, ikasketek lana eta aurrerapena dakartela irudikatuz, eta horrek eskerrak ematen dizkio Biteriren busto errealistari. Keinu horrek lotura du monumentuari jarri zioten izenarekin: *Esker ona*.



Djamila Zereiby, forma hartzen ari den lokala seinatzen. XABI GOROSTIDI

IMME elkartek 'take away' gozotegia irekiko du Biterin

Arabiar jatorriko askotariko gozokiak salduko dituzte, eta euskal jatorrikoak; irail amaieran ireki nahi dute

X.G. ARRASATE

Emakume musulmanak integraztea helburu duen IMME elkartek beste urrats bat egin du, eta laster errealitate bihurtuko dute aspalditik amesten duten egitasmoa: arabiar eta euskal gozokiak batzen dituen *Zrepost* izeneko gozotegia.

"Kultur aniztasuna bultzatzea eta geure kultura bertakoei hurbiltzea izan dira gure helburuak elkarrekin sortu genuenetik, eta proiektu honek bete-betean betetzen ditu helburu horiek", dio Djamila Zereiby, elkarteko kide eta bultzatzaileak.

Gozotegia Biteri kaleko lokal txiki batean kokatuko da, *Tiburron* kioskoaren alboan. "Lokal txikia da, baina probetxua aterako diogu". Gozokiez gain, eramateko kafeak eta infusioak, *smoothie*-ak, zuku naturalak eta alkoholik gabeko edariak salduko dituzte; baita Arrasaterekin lotutako oroigarriak ere.

Hurrengo urratsa, buruan

Hasieran, Basauriko El Palestino gozotegitik ekarriko dituzte gozokiak. "Ondo funtzionatuz gero, Garagartzako Txirritan guk ekoiztu nahiko genuke".



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Kuriosoa

Nola liteke hil ostean lurperatutako untxi bat bere jabearen ondora itzultzea egun batzuen ostean? Baten batek esan lezake jabea hil eta alboan lurperatu dutela, izan liteke. Besteren bati otuko litzaioke norbaitek berpiztu duela eta bere kabuz itzuli dela, zergatik ez. Baina beti egongo da norbait azalpenik katramilatsuena hobetsiko duena. Hau izan liteke: bizilagunak txakur bat zuen, eta gaez paseatzera ateratzean hau lurra altxatzen hasi zen jolasean, untxiarekin topo egin zuen arte. Orduan, jabearengana itzuli zen animalia hila ahoan zuela; honek, hau ikusita, txakurrak hil zuela uste eta ondo garbitu ostean, gaez isilpeka jabearen etxean utzi zuen bere aberearen uesteko erailketa ezkatatzeko.

Eta honelako esplikazioak gailentzen ari dira gizartean pandemia garaioan. Bada txip baten, Bezosen, masoi ezkutuen eta abarren teoriak hobesten dituenik ororen ginetik. Gure herrietan ere badugu halako jendea, eta horma margoketez betetzen ari dira gure inguruak, baina badirudi pintaketa hauek ez dutela elkarbitza kolokan jartzen, kuriosoa.

Duela 50 urte aldatu zuten lekuz

1911n jarri zuten ikurra, Biteri etorbideko eskola parean. Han egon zen 1970era arte, BBVA dorreko lanegatik kendu zuten arte. Urtebetez egon zen udal biltegi batean, eta ostean jarri zuten egun dagoen plazan. AZE aspalditik ari da eskatzen ikurra Biteri etorbidean jartzea –Aldedi parean–. Udala prest zegoen, baina bertako bizilagun batzuek ez dute estatua kentzerik nahi.



Monumentua 1911. urtean jarri zuten kokalekuan, Biterin. INDALECIO OJANGUREN

Urrea Ruiz de Azuak eta Dapenak; zilarra Axpek

Atletismoan, Euskadiko Txapelketa absolutuak emaitza onak utzi ditu herriko pertika-jauzilarientzat. Eta asteburu honetan klubaren arteko Espainiako Kopa jokatu dute, Madrilén; hilaren 13an, aldiz, txapelketa indibidualen ariko dira, toki berean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Emakumezkoen pertika-jauzian Malen Ruiz de Azuak irabazi zuen, 4,25 metro eginda, eta Maialen Axpe sailkatu zen bigarren, 4,00 metroko markarekin.

Ezjakintasun handiarekin joan zela aitortu du Ruiz de Azuak. "Abuztu hasieran, saio batean, 4,20 metrokoa saltoa egin nuen, baina azken txapelketa otsailean jokatu nuen eta beldur puntu bat ere baneukan, ea nola sentituko ote nintzen. Izan ere, abuztuaren atseden apur bat hartu dut. Hori kontuan hartuta, gustura geratu naiz egindakoarekin", nabarmendu du.

Axpek, bestalde, onartu du lesioaren ostean asko kostatzen ari zitzaiola sentsazio onak berreskuratzea, eta hori lortu zuela Donostian. "Egia da marka eskasa dela, baina ondo sentitu nintzen, oro har. Gero, ordea, istripu txiki bat izan nuen. Salto batean, pertikak ihes egin zidan eta hankan eman. Ondorioz, burua txapelketatik joan zitzaidan eta ezin izan nuen guztiz disfrutatu. Belauna handitu egin zitzaidan; azkenean, sustoa besterik ez zen izan", azaldu du.

Gizonezkoetan, Istar Dapenarentzat izan zen urrezko domina, 5,00 metro gaindituta. "Marka kaxkarrarekin bada ere,

irabaztea lortu nuen. Abuztu osoan gaueko erreleboan aritu nintzen lanean, eta hori asko nabaritu nuen txapelketan".

Bi asteburu inportante aurretik

Asteburu honetan, klubaren arteko Espainiako Kopan ariko dira, Madrilén, eta hilaren 13an, aldiz, Espainiako Txapelketa absolutua jokatu dute, leku berean.


Txapelketa indibidualari eman diote lehentasuna, baina onartu dute taldekako kopa ere oso inportantea izango dela. "Asteburu hau ondo etorriko zaigu pista ezagutzeko eta gainontzeko atletekin sentsazioak partekatzeko", dio Ruiz de Azuak. Axpek gaineratu du ahalik eta maila hoberenean iristen saiatuko dela. "Guztiok daukagun onena ematen badugu, txapelketa politagoa izango da". Dapenak, azkenik, txapeldun izateko aukerekin ikusten du bere burua. "Bi onenak nire marka antzerakoak egiten ari dira".

Uribarren eta Carrascal ere bai

Iñigo Uribarrenek 4x100 metroko errelebo proban hartuko du parte asteburu honetan, eta salto hirukoitzean datorren astean. Eneko Carrascal, berriz, salto hirukoitzean lehiatuko da, kopan zein txapelketa indibidualen.

tu eta instalazioa garbitu eta desinfektatzeko maiztasuna areagotu, besteak beste. Gainera, erabiltzaileen noranzkoak markatuko dituzte, eta material higienikoa eskainiko diete erabiltzaileei.

Halaber, Arrasateko kirol instalazioak itxita egon ziren epeari proportzionala den diru itzulketak egingo diete urteko abonua duten erabiltzaileei –martxoko ikastaro eta hileko abonuen itzulketak ekainaren hasieran egin zituzten–.



Malen Ruiz de Azua, Istar Dapena eta Maialen Axpe. GOIENA

Lenovo
\$145-15AST
ordenagailu
erabargarria

~~469€~~
399€

39,42 cm
18,4"

AMD
A9

39,90€/hilean
10 hilabetean*

EROSKI club

Zure erosketak doan*
finantza ditzakezu

0%
UTB

3 hilabete
90€-tik aurrera

6 hilabete
140€-tik aurrera

10 hilabete
199€-tik aurrera

EROSKI
ARRASATE

*2020ko irailaren 23ra arte Eroski Club ordaintze-terfektorekin esleaituta finantzaketa. Santander Consumer Finance SAIk onartu behar du. Bezeroentzako interesik gabe. Eroski Club laguntza biltzailearen laguntza zuzena da. 2 distrikaldea biltzailearen delakoa, zor den zerbateko osoa eta finantzaketa zerbateko berdintzea.

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

Astelehenean zabalduko dute Uarkapeko gimnasioa

Ohiko ordutegian egongo da irekita Uarkapeko gimnasioa hilaren 7tik aurrera. Hau da, asteleheneetik egubakoitzera 06:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 21:00etara eta asteburuetan 08:30etik 13:30era.

Bestalde, ezohiko egoera dela eta, hainbat neurri hartu dituzte: espazioen hainbat egokitzapen egin dituzte, edukierak murriz-



Aran Saiz musikari oñatiarrak hirugarren kontzertua eskainiko du disko berria argitaratu zuenetik. IÑIGO ROLLO

Sei estilo propio, plaza bakarra

Iritsi da, hamabigarrenez, Kulturate Akustikoak musika zikloa; gaur, egubakoitza, abiatuko da, eta sei kontzertu izango dira orotara, guztiak ere Kulturateko areto nagusian, 20:00etan, eta doan –gehienez 86 pertsona sartu ahal izango dira–

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak antolatuta, talde hasiberrien eta eskarmentu handikoen musikaz gozatzeko aukera egongo da Kulturaten gaur hasi eta irailaren 13ra bitartean.

Pop, rock eta bestelako doinu akustiko lasaiak izango dira entzungai, bi asteburutan banatuta. Hala, 2020an sortu berri den De la Sierra taldeak emango dio hasiera zikloari gaur, egubakoitza. Bihar, zapatua, Pauline en la Playa bikotearen txanda izango da eta lehen asteburuko eskaintza Aran Saiz Triok itxiko du –sarreran bertan kontrolatuko dute edukiera–.

Hain zuzen ere, Aran Saiz oñatiarra izango da hamabigarren ziklo honetako debagoiendar bakarra, Iosu Izagirre baxujolearen eta Hasier Oleaga baxujolearen laguntzarekin.

2019ko ekainean argitaratu zuen taldeak lehenengo lana: *Bidean*. Hasiera hartan, Joseba Loinaz zen baxu-jolea, eta harekin grabatu zuten diskoa. Hala ere, iaz uztailean Oñatin emandako lehen kontzertuaren ostean, Iosu Izagirrek ordezkatu zuen. Geroztik, kontzertu bakarra eman dute, Gasteizen. Horrenbestez, taldearen hirugarren emanaldi izango da domekakoa. Oñatiarra gogotsu eta pozik azaldu da Kulturate Akustikoak zikloan jotzeko aukera edukitzeagatik. "Apustu inportantea egiten ari dira, eta garai hauetan,

**DE LA SIERRA TALDEA
IZANGO DA LEHENA,
GAUR, ETA BIHAR
PAULINE EN LA
PLAYA JOKO DU**

are gehiago. Izan ere, lehen zegoena baino atzerago geratzen ari da kultura, eta guretako oso garrantzitsuak dira halako ekimenak. Formatua ere oso egokia da taldearendako, leku itxian eta modu akustikoan. Ezin hobea da hori guretzat. Teklatuarekin, kontrabaxuarekin eta bateriarekin joango gara, eta hiruren arteko uztartzea oso ondo nabarrituko da", dio.

Abesti melodikoak, freskoak

Saizek azaldu duenez, ordubete pasatxo iraungo du emanaldiak. "*Bidean* diskoko zortzi abestiak joko ditugu. Elkarren artean oso desberdinak dira, melodia erakargarriekin; erritmoarekin ere asko jolasten dugu, eta abesti guztiek, gainera, inprobisazioarako tarte bat daukate, freskotasuna irabazteko. Beraz, diskoan agertzen diren abestiak

izango dira, baina inprobisazioa gehituta. Horiez gain, taldearen abesti berri bat eta bi bertsiore ere joko ditugu: *banakoa* eta Mikel Laboaren *Ihesa zilegi baltz*", nabarmendu du.

Oso abesti errazak dira entzuteko, oso melodikoak, oñatiarraren esanetan. "Jendeak gustura entzuten ditu. Gainera, musikak asko irabazten du zuzenekoetan, freskotasun hori nabaritu egiten da. Hori dela eta, hasieratik izan dut feedback ona entzuleekin", aitortu du.

Goi mailako musikariak alboan

Ikasketa prozesu batean dagoela sentitzen du Saizek, eta "oso pozik" dago "goi mailako" bi musikarirekin lan egiteko aukera izaten ari delako. "Luxua da niretzako Iosu Izagirre eta Hasier Oleaga alboan izatea. Musikari trebeak izateaz gain, esperientzia handia daukate. Egia da nik ere badaukadala ibilbidea atzetik, baina musikaren beste arlo batzuetan, musika klasikoan edota abesbatzekin, esaterako. Hori dela eta, asko ikasten ari naiz haiekin".

Azken hori erabili du amugisa musikazaleak animatzeko. "Domeka arratsalde baterako plan egokia iruditzen zait. Esan dudan moduan, oso musikari onak ditut alboan eta hiruren arteko komunikazioa ere erabatekoa da. Gure artean musika bizirik dagoela sentitzen dugu eta hori transmititzen saiatzen gara. Zuzeneko musikak beti irabazten du", azpimarratu du.

Aurrera begira, gainera, lanean jarraitzeko asmoa daukate. "Kantuberriak sortzen segituko dugu eta, egoerak ahalbidetzen badu, kontzertuak eskaintzen ere bai".

Datorren asteburuan, beste hiru

Esan moduan, hiru emanaldi geratuko dira datorren astebururako. Irailaren 11n, Donibane Lohizuneko Tristtan Mourguyk gidatzen duen Murgi hirukotea etorriko da Arrasatera. Irailaren 12an, berriz, Amann & The Wayward Sons. Zikloa ixteko, azkenik, Bilboko Maren musikari gazteak eskainiko du kontzertua.

**ARAN SAIZ IZANGO DA
DEBAGOIENDAR
BAKARRA, ETA
DOMEKAN ESKAINIKO
DU KONTZERTUA**

Asteburuan hiru talde ariko dira



Hiru taldekideak. D.L.S.

De la Sierra

Miguel Angel Varela, Nikki Garcia eta Luis Rod dira taldea osatzen duten hiru musikariak. Talde berria da, 2020ko urtarrilean sortutakoa. Folk amerikarra egiten dute, country eta blues doinuekin nahastuta.



Mar eta Alicia Alvarez. P.P.

Pauline en la Playa

Undershakers taldeko kide izan ziren bi ahizpa asturiarrek 1999an sorturiko taldea da, jada zazpi disko kaleratu dituena –azkena iaz, *El salto* izenekoa–. Halaber, pop estiloan erreferente dira Espainian.



Saiz, Loinaz eta Oleaga. I.R.

Aran Saiz Trio

Arantzazu Saizek, Hasier Oleaga eta Iosu Izagirrek osaturiko taldeak iaz uztailean kaleratu zuen *Bidean* diskoa, lehena. Pieza klasikoak, funk eta pop erritmoak jorratzen dituzte, jazz kutsuarekin eta inprobisazioarekin.

Musikak girotuko ditu iraileko barikuak

Azken urteetan bezala, musika lasaiaz goatzeko aukera egongo da parkean, 'Udaramaio' ekimenaren barruan. 19:30ean izango dira kontzertuak, edukiera mugatua izango da eta ezarritako segurtasun neurriak errespetatu beharko dira

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Flamenkoa gustuko dutenek hitzordu berezia izango dute gaur. Askoa Etxebarrieta *La Pulga* flamenko dantzari gasteiztarrek *La Pulga eta lagunak* ikuskizuna eskainiko du parkean, *Udaramaio* ekimenaren barruan. "Flamenko tradizionala eskainiko dugu", azaldu du *La Pulga*-k, eta gaineratu du hiruko formatuan arituko direla: gitarrista, abeslaria eta dantzaria.

"Aramaioarrak animatu nahi ditut ikuskizunera, disfrutatuko dute eta. Euskal Herrian gero eta flamenko eskaintza handiago dago, eta, nahiz eta ohituta ez egon musika estilo honetara, dantzatu dudana ia toki guztietan ikusleak aurreratu egiten dira eta hunkitu egiten dira egiten dugunarekin", dio Etxebarrietak. Izan ere, dantzariaren esanetan, flamenkoa emozioa eta pasioa dira, bihotzetara iristen den artea.

Etxekoek ere, tokia

Kultur eskaintza honen barruan toki berezia izango dute etxeko musikariek. Batetik, Trikikalejira trikiti eskolakoek emanaldia eskainiko dute. Irailaren 11n izango da hori, 19:30ean.

Bestetik, Idoia Asurmendi musikariaren txanda izango da



Idoia Asurmendi, taldearekin, Donostiako Jazzaldian. JAZZALDIA

FLAMENKOAZ GOZATZEKO AUKERA EGONGO DA GAUR 'LA PULGA' DANTZARIAREKIN

irailaren 18an. Folk eta pop doinuak eskainiko ditu aramaioarrak. Uda honetan hasi duen proiektuari bultzada ederra eman dio Kutxa Kultur bekak; horri esker, plaza askotan izan da aramaioarra abuztuan zehar. Ema-

naldi sorta amaitzeko aukera paregabea izango da Asurmendirendako etxean bertan jotzea.

Emanaldi sorta amaitzeko, bossa nova doinuak entzuteko aukera egongo da irailaren 25ean, Geraldine hirukotearekin.

Edukiera mugatua izango da

Osasun egoerak baldintzatutako emanaldi sorta izango da. Edukiera mugatua izango da eta ezarritako segurtasun neurriak errespetatu beharko dira. Eguraldi txarra bada, kultura etxean izango dira emanaldiak.

2021eko egutegia osatzeko argazkiak aukeratu nahi dituzte

Lanak aurkeztu behar dira urriaren 15erako, Gorbeialdeko Kuadrillako bulegoan, Mungian

A.E. ARAMAIO

Orain Gorbeialdea, inoiz baino gehiago izenarekin aurkeztu dute Gorbeialdeko XVIII. argazki lehiaketa.

Lehiaketaren gaia librea izango da, baina argazkiek kuadrilla osatzen duten udalerrietan hartutakoak izan beharko dute: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia. Lehiaketan edonork parte har dezake, eta lehiakide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Lanak aurkezteko modua

Aukeratutako argazkiak erabiliko dira 2021eko egutegia osatzeko; hori horrela, argazkien formatuak horizontala izan beharko du. Argazki originalak koloretan izan beharko du. JPG formatuan aurkeztu beharko dira, eta benetako tamainan

gutxienez 300 puntu hazbeteko bereizmena izan beharko dute. Argazkiei azaleko ukituak eman ahal izango zaie, baina ezingo da gehitu edo ezabatu jatorrizko konposizioa aldatuko duen osagaririk. Argazkiak pertsonaren baten lehenengo planoak baldin badira, bertan agertzen den pertsonaren baimena aurkeztu beharko da lanarekin batera.

Lehiaketako sariak

Sariak izango dira Gorbeialdeko Kuadrillako edozein saltoki edo establezimendutan gastatzeko txartelak. Sarituko da lehiaketaren argazki irabazlea –150 euroko txartela– eta bi argazki udalerririk bakoitzeko –lehen saria 100 euroko txartela eta bigarrena 75 eurokoa–.

Lanak Mungian aurkeztu beharko dira, urriaren 15erako.

Eskolaratze neurriak "gehiegizkoak" direla uste dutenek, martxa

Eusko Jaurlaritzak "umeak eskolaratzeko hartutako neurriak gehiegizkoak" direla uste duen herritar talde batek antolatuta, bizikleta eta oinezkoen martxa egingo dute domekan Aramaion. "Osasuna bermatu behar dela denok daukagu oso argi; baina, osasun fisikoaz gain, osasun mentala eta emozionala ere zaindu behar dira, eta uste dugu

horiek ez direla kontuen hartu", dio herritar talde horrek ohar bidez. Modu horretan, neurriak hartzeko orduan osasun mentala eta emozionala ere kontuan izatea eskatuko dute domekako martxan.

Martxa kiroldegi aurrealdean hasiko da, 13:00etan. Antolatzaileek nork bere leloa eramateko mezua zabaldu dute.

Ekintza honen helburua "beste iritzi bat" badela erakustea izango dela nabarmendu nahi izan dute.

Jazzaldian izan da Asurmendi

Idoia Asurmendi musikari aramaioarrarendako uda oparoa izan da aurtengoa. Uztailaren 26an, Donostiako Jazzaldian jo zuen: "Jazzaldia bertan behera geratuko zela esan zuten, baina, azkenean, aprobetxatu zuten bertako artistekin aurrera egiteko". Iaz lortutako Kutxa Kultur bekari esker, aurtengo udan martxan jarri duen proiektuak bultzada handia izan

duela dio musikariak: "Uda lasaia izan behar zena kontzertuz betetako uda izatera pasa da". 16 bat kontzertu eskaini ditu abuztuan zehar, "inoiz baino gehiago", eta irailean beste lau izango ditu: irailaren 5ean, Txillida Lekun; irailaren 6an, Azkoitiko Matadeixen; irailaren 17an, Donostiako Tabakaleran; eta irailaren 18an, Aramaion.

Bere lehenengo diskoa izango dena grabatzen dabil Asurmendi –datarik ez dakien arren, urte amaierarako gertu izatea espero du–. Proiektua gorpuztu ahal izateko sortu du taldea Asurmendik. Oriol Flores –bateria–, Andoni Garcia –gitarra– eta Joanes Ederra –baxua– dira taldekideak. "Oso gustura" aritu da kontzertuak eskaintzen, eta jendearengana iristea izan dela politena nabarmendu du aramaioarrak.

Ikasturte berria hasteko prest daude San Martin eskolan

Egoerak eskatzen duen segurtasuna bermatuz, astehenean zabalduko ditu ateak San Martin eskolak, 09:00etan. Aste honetan batzartu dira eskolako arduradunak gurasoekin kontingentzia plana azaltzeko. Eskolaz kanpoko jarduerak, aldiz, guraso elkartearen ardura dira; horien bideragarritasuna aztertzen dabilta.

Astehenean ohiko ordutegia izango du udal liburutegiak

Oporraldiaren ondoren, aste honetan bertan zabaldu dute udal liburutegia. Gaur, oraindik, goizeko ordutegia izango duen arren, irailaren 7tik aurrera, astehena, arratsalde zabalduko dute: 17:00etik 19:30era. COVID-19a dela-eta uda aurretik ezarri ziren segurtasun arauak indarrean daude oraindik. Mas-kara jantzi behar da, derrigor.



Belar Meta dendako Idoia Elexpuru, Ixadebalde azokarako arropa gertatzen. MIRARI ALTUBE

Ixadebaldek ez du hutsik egingo, eta berrituta dator

Merkealdien azoka egingo dute Aretxarte elkarteko hainbat merkatarik gaur eta bihar, zapatua; mojen komentuan elkartu beharrean azken urteetan egindako legez, oraingoan, norbere dendaren aurrealdera aterako dute jeneroa, merkatuta

Mirari Altube ARETXABALETA

Pandemiaren eraginpean egingo den lehenengo merkealdien azoka izango da aste bukaeran izango den Ixadebalde. Baina herriko merkatariek ez dute hutsik egin gura izan, eta, moldatuta bada ere, beherapenik onenak eskainiko dizkiete, beste behin, herritarrei.

Azken urteetan mojen komentua izan badute ere kokaleku, oraingoan, norbere denda eta horren aurrealdea erabiliko dituzte jeneroa erakusteko. Horri esker, azoka egun gehiagotara luzatu duenik ere badago: "Bi egunetako jende pilaketak ekidin gura ditugu", adierazi du Belar Meta dendako Idoia Elexpuru.

Denda barrura jende gehiago sartzeak ardura ere badakar merkatarientzako: "Zentzuz jakatu behar da, ez dago besterik. Jende asko dagoela ikusiz gero, kanpoan itxaron beharko dute. Horrez gain, orain arte egiten gabiltzanarekin jarraitu behar dugu: maskara jantzita ekarri eta dendan sartzerakoan eskuak

garbitu gelarekin", dio Titareko Saioa Tejeiok.


Kalitatea, prezio merkean

Aurtengo formatuarekin, inora mugitu beharrik ez dutenez, merkatarik gehiagok parte hartuko dutelakoan daude Aretxarteko kideak; Amaia ume-dendak, esaterako, merkealdien azokarekin bat egitea erabaki du. Eta guztiek eskainiko dute "kalitatezko jeneroa, prezio ezin hobeeekin"; bereziki, udaberriko eta udako arropa eta beste urte batzuetako materiala: barruko

arropak, pijamak, ume-arropak, zakutxoak, mantak, era askotako oinetakoak... 5 eurotan hasi eta 35 euro arteko jeneroa izango dute hainbat dendatan, baita erdia baino gehiago merkatutako arropa ere.


Hori horrela, eskaintza aprobetxatzeko dei egin diete herritarrei: "Etorri, ikusi, ukitu eta gero norberak erabaki dezala erosi edo ez", eta Elexpuru gaineratu du: "Bakoitzak bere herriko komertzioaren alde egin dezala eskatuko nuke; apurtxo bat, behintzat".

Ixadebalde ezberdina aurtengoa...



SAIOA TEJEIRO
TITARE

"Azoka ezberdina izango da, baina beherapen gehiago izango ditugu; hortaz, herritarrak gerturatzen animatzen ditut. Nik jenero gehiena denda barruan izango dut, baina kanpora ere zerbait ateratzeko asmoa daukat; eskaintza bereziekin mahaixto bat ere jarriko dut".



AMAIA ELORTZA
AMAIA UME-DENDA

"Mojen komentuan egiterik ez dago aurtengoa, eta dendan bertan izango denez aukera ona dela uste dut berriro parte hartzeko, hainbat urtean ez bainaiz egon. Arropekin saldoak jarriko ditut eta zakutxoak eta mantak ere egongo dira. Herritarrek aprobetxatzen dituzte maukak eta merezi izaten du".

Bandak eta gazteen ekitaldiak bakarrik izan dira 'ez-jaietan'

Andramaixei keinu txikia besterik ez zien egin Udalak eta herriko sortzaileek kultura ekimenak eskatu zituzten

M.A. ARETXABALETA

Herri askotako jaiak jarri ditu hankaz gora COVID-19ak, baita Andramaixak ere. Hala, Udalak erabaki zuen keinu txiki bat bakarrik egitea jaiak, eta Milagroko banda gonbidatu zuen abuztuaren 15erako. Meza nagusiaren ostean, herritarrak plazara gerturatu ziren haien doinuak entzuteko. Unai Elkoro alkateak oparria eman zion bandako bateria-jotzaileari, esker gisa.

Herriko txistulariek, berriz, kalejira egin zuten, ez-jaiak girtotze aldera.

Herriko sortzaileen eskaera

Atxabaltako Gazte Mugimenduak ere aisialdi-ekitaldiak bertan behera uztea erabaki zuen, baina *Kalean gara, kalea gara* leloarekin hainbat agerraldi egin zituen; besteak beste, manifestazioa jai herrikoien alde, mural margotzea eta *Sortzaileak kalean gara* ekitaldia.

Herriko sortzaileak, hain zuzen ere, kezkatuta agertu ziren bizi duten egoerarekin, eta hori adierazteko elkarretaratzea egin zuten: "Egiten dugun lana ez dela kontuan hartzen uste dugu eta



Milagroko bandaren emanaldia eta atzean sortzaileek elkarretaratzea. ANDONI GOITI

herriari eman diezaioketuna ez dute ikusten. Beste kultura eredu bat posible dela diogu eta gu gertu gaude horretarako", zioen Xabi Zuazabeitia musikariak.

Alkatearen esanetan, "jende pilaketak saihestu" eta "festara-

ko deia ekidin" gura izan zen ekintzak ez antolatuta. Ildo horretatik, pozik agertu zen kasu positiboen fokurik ez delako izan jaiak ondoren: "Garrantzitsua hori zen eta uste dut lortu dugula, nahiz eta kasu batzuk agertu".

Uztailerako ateratako bonuak oraindik badituzte Arkupen

Herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuei bultzada emateko asmoarekin bonuen kampania jarri zuen abian Udalak maiatzean, eta irailean ere badituzte bonuak salgai Arkupen. Uztailerako sortakoak dira eta herritarrek berriro eskuratu ahal izango dituzte. 50 euroko taloitegiak ia 300 dira eskuragai daudenak (5 euroko hamar bonu 40 euroren truke), eta 16 urtetik beherakoei bideratutako 5 euroko taloitegiak 200 inguru (50 zentimoko hamar txartel 4 euro ordainduta).

Bonu horiek eskuratzeko Arkupetik pasatu behar da, goizez (09:00-13:00) zein arratsaldez (17:00-20:00).

Moldaketa askorekin ikasturteari ekiteko gertu

Pausoka haur eskolan dagoeneko egokitzapen fasea egiten dihardute eta Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunean eta Kurtzebarri eskolan zein BHIIn astelehenean hasiko dituzte eskolak; etxerako lanak eginda, "gogotsu" daude ikasleak hartzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko ikastetxeak ikasturteari ekiteko gertu daude. Berritasunetako bat da COVID gela; sintomak dituzten ikasleak barkatzeko izango da gurasoak etorri bitartean.

Udala, berriz, haiekin harremanetan jarri da, lokal beharrik izanez gero laguntzeko. "Behar dutena eskatzeko esan diet, lehentasuna hezkuntzak izango duelako beste edozeinen gainetik", adierazi du Unai Elkoro alkateak. Kurtzebarri BHIko irakasleek, esaterako, Arkupeko gela bat erabiliko dute formakuntza saioetarako.



Ikasgela bat ikasleak hartzeko gertu. IMANOL BELOKI

Pausoka haur eskolan, hasita

Martitzenean hasi zuten ikasturtea Pausoka haur eskolan. Bizikidetzatza talde txikiak osatu dituzte: "Bakoitzak bere gela izango du eta espazioak ere dituzte konpartituko gainerakoekin; jatorduak ere han egingo dituzte", adierazi du Olaia Urzelai arduradunak. Tenperatura etxetik hartuta joango dira umeak eta sartzera garbitasuna zaindu beharko dute gurasoek.

Egokitzapen fasean daude orain eta gurasoei sartzan uzten diete gela handi batera, umeekin egon daitezten. Behin hori bukatuta, gelako atean utzi beharko dituzte. "Umeekin tratua berbera izango da, besoetan hartuko ditugu lehengo moduan. Gurasoekin ere gertuko hartu-eman izatera ohituta gaude eta horretarako beste bide batzuk topatuko ditugu", dio Urzelaiak.

Basabeazpin, adinka banatuta

Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunean zaintza zerbitzua hasita dago eta ikasturtea astelehenean hasiko dute. Hainbat aldaketa egingo dituzte funtzionamenduari dagokionez; besteak beste, sarrera-irteerarako ordu ezberdinak eta bereizitako espazioak. "Gune zabalak ditugu-

LOKAL BEHARRA IZANEZ GERO ESKATZEKO ESAN DIE UDALAK IKASTETXEEI

nez, aireztatzeko samurragoa da", dio Iñaki Gonzalez irakasleak. Espazio horiek aprobetxatuko dituzte adinka banatutako talde egonkorak sortzeko: "Taldea txikietan lan egitera ohituta gaude eta kanpoko espazioak ere aprobetxatuko ditugu". Guraso batzordearekin elkarlan estuan jarduteko asmoa dute.

Kurtzebarri, moldaketa asko

Kurtzebarri eskolan ere astelehenean sartuko dira ikasleak: 6 urtetik gorakoek maskara jantzita izan beharko dute une oro eta 4 eta 5 urtekoei gomendatu diete pasabideetan erabiltzeko. Ikasgeletan kokatutako elkarbitzita talde egonkorretan funtzionatuko dute. Jolas-orduak moldatu egin dituzte eta beste eremu batzuk ere erabiliko dituzte; plaza, esaterako. Garbitasuna indartuko dute, bereziki, komu-

netan eta erabilera askoko guneetan. "Umeak hutsune emozional zein akademikoekin etorriko dira, eta hortik abiatuta hasiko gara lanean", adierazi du Mikel Uribarren zuzendariak.

Kurtzebarri BHIIn ere astelehenean ekingo diote ikasturteari DBHko lehen ziklokoek, eta 15ean bigarrenekoek. Moldatu egin dute funtzionamendua patioan ez elkartzeko LHkoekin eta sarrera-irteerak txanda ezberdinetan egingo dituzte; tenperatura hartuko diete, gainera, ikasle guztiei. Eraikin guztian, gela barruan zein kanpoan, distantziak mantentzeko argibideak dituzte zehaztuta. "Eskolaz kanpoko jarduerarik ez dugu jaso urteko planean, ikas bidaia ere bertan behera geratu zen", dio Juan Carlos Pascual Pascu zuzendariak. DBHkoekin zein LHkoekin kiroldagiko jarduerak egingo dituzte.

Lanbide Eskola, irailaren 14tik

Aretxabaleta Lanbide Eskolan irailaren 14an hasiko dituzte eskolak goi mailako zikloetako ikasleek, eta erdi mailakoek, 21ean. Horiek ere talde espezifiko, independente eta egonkorak osatuta egingo dute lan.



Mariatxen Urkia eskolak ematen pandemia aurretik. MIRARI ALTUBE

Musika eskola astelehenean hasiko da ikasleekin lanean

Maskarak jantzita, talde txikiagoekin eta garbitasuna zainduta abiaraziko dute ikasturtea Leizarran

M.A. ARETXABALETA

Aurrez aurreko eskoletara itzuliko dira Leizarra musika eskolan ere, horretarako beharrezko den protokoloa zehaztuta. Geletara ikasleek bakarrik igo beharko dute -5 eta 6 urtekoak laguntzaile bakarrarekin- eta igogailurik ez erabiltzeko eskatu dute -beharrezkoa bada, banaka erabili behar da-. Maskarekin egon beharko dute eta eskuak garbitu beharko dituzte.

Moldaketa batzuk ere egin behar izan ditu eskolak. Izan ere, gelaren tamainaren arabera 10 edo 12 ikasle elkartuko

dira, ez gehiago. "Abesbatzako taldean 21 ikasle inguru daude, hortaz, bi talde osatzea erabaki dugu", dio Mariatxen Urkia zuzendariak. Ikasleen arteko kontaktua ekiditen saiatuko dira, baina badakite dantza eskoletan eta tailerretan zaila izango dela hori: "Tailerren kasuan, ume bakoitzak bere material-kaxa izango du. Eta garbitasuna asko zainduko dugu". Instrumentuen kasuan eskola batetik bestera arteko tartetan garbitasun lanak egingo dituzte, horregatik 5 minutuko tartekak hartuko ditu irakasleak horretarako.

Udala hezkuntza komunitatearen alboan egotea gura du EH Bilduk

Hiru planteamendu aurkeztu dituzte garbitasun premia berriei, baliabide ekonomiko bereziei eta lokalei begira

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta EH Bildu jakitun da hezkuntza komunitatea "sekulako esfortzua" egiten dabilena ikasturteari begira, eta "guztien inplikazioa" beharko dute la uste du. Izan ere, adierazi du Hezkuntza Sailaren lana ez dela "nahikoa" egoerari erantzuteko.

Udalak hezkuntza komunitatearen alboan egon behar duela uste du EH Bilduk, "bere esku dituen baliabideak eskainiz". Ildo horretatik, hiru planteamendu egin dizkiotela alkateari azaldu dute prentsa-ohar bidez.

Batetik, garbitasun premia berriak betetzea proposatu diote: "Guk bultzatutako kontratazio berriekin goizetan zehar garbitasun berezi eta iraunkorra egitea da helburua". Bestetik, eskatu dute baliabide ekonomiko bereziak eskaintzea behar berrietarako. Hala, eskola guztien beharren zerrenda bat egitea proposatu dute, hitzarmenak handitzeko edo berriak egiteko. Eta hirugarrenik, aipatu dute Udalaren lokalak hezkuntza komunitatearen esku uztea; Udalak dagoeneko egin du hori.



Aretxabaleta Ibarra kiroldegiko igerilekuan erabiltzaile bat igeriketan. ARETXABALETAKO IBARRA KIROLDEGIA

Kirol jarduerak, irailaren 14tik aurrera martxan

Ibarra kiroldegiak iraileko ordutegi berriarekin hasi du ikasturtea, eta, horrekin batera, kirol jardueretan izena emateko aukera ere zabalik da. Saioak irailaren 14an hasiko dira eta ikastaroren batean izena eman nahi duenak aukera izango du horretarako

Imanol Beloki ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiak irailera orduetegi berria diseinatu du, eta, horrekin batera, kirol jardueren eskaintza ere martxan jarriko da irailaren 14tik aurrera. Gainera, kirol jardueraren bat hasi aurretik probatu nahi duenak aukera izango du horretarako, irailaren 14tik 17ra bitartean, aurrez hitzordua hartuta.

Neurriak hartuta

Segurtasun neurri guztiak hartuta eta protokoloa ezarrita, Ibarra kiroldegiko instalazioetara maskarekin joatea derrigorrezkoa izango da, eta baita erabiltzaileen arteko segurtasun distantziak mantentzea. Aldagelak erabilgarri egongo diren arren, Osasun Sailak ezarritako edukiera mugak bete eta bertan ilara luzeak ez izateko, gimnasia zein jardueretara doazenez etxetik aldatuta joan eta etxean dutxatzeko gomendioa egin dute.

Iraileko ordutegia

Irailaren 14ra arte, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara bitartean egongo dira zabalik instalazioak. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta irailaren 6an eta 13an –domekak– eta irailaren 26a itxita egongo da. Irailaren 14tik aurrera, berriz, 07:00etatik 21:30etara bitartean egongo da zabalik kiroldegia astegunetan, eta irailaren 20an eta 27an –domekak–, berriz, 09:00etatik 14:00etara bitartean egongo da zabalik.

Eskaintza zabala

"Herritarrek kirola egitera animatu nahi ditugu. Hala, jardueraren batean izena eman aurre-



**IRAILAREN 14TIK
17RA BITARTEAN
IZANGO DIRA ATE
IREKIAK IBARRA
KIROLDEGIAN**

tik probatu nahi duenak aukera izango du horretarako", adierazi du Asier Mujikak, Kirol teknikariak. Honako hauek dira, bestalde, prestatu dituzten zenbait ikastaro: igeriketa, areto bizikleta, multifitnesa, sasoiaren egoteko gimnasia, GAP, yoga, KOI, gimnasia abdominal hipopresiboa, tonifikazioa, xunba, pilatesa, *core training*-a...

Jardueretako edukierak murriztu egin dituzte, eta, saio artean garbiketa eta desinfekzio neurriak betetzeko, saio batzuen iraupen denbora laburtu egin dute. Taldea osatzeko gutxieneko kopurua, berriz, zortzi pertsonakoa izango da aretoko jardueretan eta sei pertsonakoa uretakoetan.

Izen-ematea zabalik

Hala, kirol jardueretan izena emateko epea zabalik, nahi duenak info@ibarrakiroldegia.eus helbidera idatzi edo 943 03 98 42 telefono zenbakira deitu beharko du.



Garazi Estevez eta Xubane Garai. I.B. ETA OIHANA ELORTZA

Garai eta Estevez Mallorcan lehiatuko dira asteburuan

Xubane Garai eta Garazi Estevez txirrindulari aretxabaletarrak "gogoz" daude lasterketetarako

I.B. ARETXABALETA

Asteburu honetan, gaurtik domekara bitartean, Espainiako juniorreko eta masterreko erlojupekoak eta iraupen probak jokatu dira Mallorcan, Lluçmajor udalerrian. Eta, hain zuzen, Aretxabaleta ordezkaritza ere izango da; izan ere, Garazi Estevez eta Xubane Garai txirrindulariak hantxe daude, euskal selekzioarekin.

Gaur, erlojupekoa izango dute txirrindulari aretxabaletarrek, eta domekan izango dute, berriz, emakumezkoek lasterketa, 08:30ean hasita. Azken honetan, zirkuituari bi itzuli eta erdi emango dizkiete; guztira, 82 kilometro. Montuiritik hasi eta Lluçmajorreraino.

Mallorcan lehiatzeko gertu

Estevez eta Garai gogoz daude lasterketarako, eta helburua "disfrutatzea" izango dutela

adierazi dute. Hauxe adierazi du Garazi Estevezek: "Martitzenean etorri nintzen Mallorcan. Kronoko zirkuitua eta iraupeneko ikusten egon naiz, eta, bide batez, opor egun batzuek disfrutatzen. Lasterketei begira, urte zelebrea daramat aurtan. Izan ere, gerritik ez naiz ondo aritu, eta hobetzen hasi nintzen konfinamenduan sartu ginen. Orain, aldiz, tendentisarekin egon naiz bi belaunetan... Beraz, errealista izanda garaipena lortzeko ez dakit egongo naizen, baina ahalik eta lan onena egitea dut helburu".

Xubane Garai, berriz, pozik agertu da, eta "parte hartzeko gogoz" dagoela adierazi. "Udan entrenatzen aritu naiz, eta asteburu hau disfrutatzen noa. Etxekoak ere badatoz ikustera, eta, helburua lan txukuna egitea izanik, ea zortea dugun".

Aldez aurretik ordua hartu beharko da KZgunera joateko

Teknologia berrietan formakuntza ematera bideratzen den Aretxabaleta KZguneak atek ireki ditu berriro, abuztuan itxita egon ondoren, babes eta segurtasun neurriak mantenduz eta errespetatuz. Edozelan ere, adierazi dute bertara joan nahi duen herritarrek aldez aurretik txanda hartu beharko duela telefonoz. Horretarako, 943 02

36 14 telefono zenbakira deitu beharko da, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etarako ordutegian, astelehenetik egubakoitzera.

Aretxabaleta KZguneak zenbait zerbitzu eskaintzen dizkie herritarrei; esaterako: KZguneko zerbitzuaren informazio orokorra –IT Txartela, Lanbide, Alokabide...–; izapideak –BakQ, Metaposta...–; aurrez aurreko tutoretzak; nabigazioa –izapideak, kudeaketa ofizialak... Gehienez, 20 minutu.

Ikastetxeetara itzulera, protokoloa jarraituta

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasierarako ezarritako protokoloa eta neurriak betez emango diote hasiera Eskoriatzako ikastetxeek hasiera 2020-2021 ikasturteari. Hala ere, ezjakintasuna ere bada ikastetxeen bueltan

Imanol Beloki ESKORIATZA

COVID-19ak baldintzatuta, ezohiko moduan ekingo diote ikasturteari Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek eta irakasleek, Euskal Herriko gainontzeko ikastetxe guztietan moduan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte hasierarako ezarritako protokoloa eta neurriak betez, ikastetxeetara buelta zaila izango dute, eta *normalitate berria* deritzona ez dela hain normala argudiatu dute Eskoriatzako ikastetxeetako ordezkariak.

Ordutegian aldaketa batzuk

Luis Ezeiza Herri Eskolakoak irailaren 9an, eguaztenean, emango diote hasiera ikasturteari, eta ordurako prest dituzte gela guztietan hidrogela, alkohola eta pedal-tapadun zakarrontziak maskarak eta mukizapiak botatzeko. Ikasleen eskolarako sarrerak eta irteerak, berriz, mailakatu egin dira,



Gel hidroalkoholikoak ikasleen mahaietan, irakaslea atzean dagoela. IMANOL BELOKI

beste ikastetxe guztietan moduan, pilaketak saihesteko, eta ordutegiak hauek izango dira: HHko ikasleengan ez da aldaketarik ezarri. Hauek 09:00etan sartu eta 12:15ean irtengo dira eta arratsaldeetan 14:15ean sar-

tu eta 16:15ean irten. LHn, 1. mailatik 4. mailara arteko ikasleak 09:00etan sartuko dira ikasgeletara, eta 12:30ean irten; arratsaldean, aldiz –hemen izango dute ordutegian aldaketa–, 14:00etan sartu eta 16:00etan

irten. 5. eta 6. mailetakoez, berriz, goizetan izango dute aldaketa: 09:15ean sartuko dira, eta 12:45ean irten; arratsaldean, 14:15ean sartu eta 16:15ean irten.

Ikasgeletara buelta zainduz

Hala ere, eskolako lehenengo hiru egunetan ikasleak iazko geletan eta, ahal den neurrian, iazko irakaslearekin egongo direla adierazi du Maitane Gomez de Segura Luis Ezeizako irakasleak: "Martxoaren 13tik aurrerakoa gogoratzeko, gelari agurra egiteko, emozioen lan-ketarekin hasteko... Irailaren 14tik aurrera, berriz, 0 unitatea deritzoguna jarriko dugu martxan, eta bertan, talde kohe-sioari eta adimen emozionalari erreparatuko zaio: nola sentitzen diren, zeintzuk diren gertatzen ari denaren inguruko zalantzak, beldurrak...".

Sintomak izanez gero...

Ikastetxeetako sarreretan tenperatura hartuko zaie ikasle guztiei. Gaitzaren sintomak antzemanez gero –sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...–, isolamendu-gunera eramango dute. Ikaslea bada, eskola familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko. Eskolak Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio eta familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko. Irakaslea bada, isolamenduan

jarriko da –maskara jantzita– eta etxera joango da.

Ikasturtera begira, printzipioak Arizmendik ere dena prest du ikasturteari hasiera emateko, eta 2020-2021 ikasturtearen hasiera eta perspektibaren bueltan honako hau adierazi dute ordezkariak: "Pandemiak gure izaera ahula erraz agerian uzten du. Beraz, umiltasuna gure jarrera konstante izan behar da. Baina jokabidean ezin gintezke beldurti izan, zuhurrak baizik".

Ikasturtea enfokatzeko printzipioak eta jarraibide komunak ere ezarri gura izan dituzte Arizmendin, eta zuzendaritzatik honako hauek azpimarratu dituzte: apaltasuna eta irtenbidean lankidetzatza; Konfiantzaren Pedagogia egoera honetara ekartzea; aniztasunari neurri askotarikoak, doituak eta malguak; jarraibide komunak eta tokian tokikoak sistematizatzea; ikastola barruko kontratu soziala berrestea; jarraibide komunak Arizmendi osoan aplikatzea; eta jarraibide komunak tokian tokiko gunearen errealitateari egokitzea (Zehaztasun gehiago, *Goiena.eus*-en).

ZIURGABETASUNEZ BUELTATU ARREN, IKASTURTE BERRIARI EKITEKO GERTU DAUDE IKASTETXEAK

48 urte pasa dira urrezko axtrokiak topatu zituztenetik

Ontziak Madrilgo Museo Arkeologiko Nazionalan daude; erreplikak, berriz, Ibarraundi museoan

I.B. ESKORIATZA

1972ko abuztuaren 17an topatu zituen Teodoro Martinezek Eskoriatzako Bolibarko Eraña auzoan –Axtroki haitzean–. San Andres ermitatik gertu izandako lur-jausia konpontzeko lanetan agertu ziren bi piezak, bata bestearen barruan. Hainbat ikerketa egin ostean, Kristo aurreko VIII. eta VII. mendeen artean kokatzen dituzte historialariek.

Urrezko piezak topatu bezain pronto, Martinezek Bolibarko parrokoa zen Kruz Abarrategi-

ri eman zizkion, eta hurrengo egunean Donostiako San Telmo museora eraman zituzten. Han aztertu ostean, eta zuten balioa ikusita, Madrilgo Museo Arkeologiko Nazionalera eraman zituzten. Eskoriatzan, berriz, Ibarraundi museoan, bi erreplika daude, eta bisita gidatuetan ikus daitezke.

Beste hainbat ikerlariek Axtrokin aurkitutako urrezko ontziak aztertu dituzten arren, Jose Migel Barandiaranek 1972an egindakoak indarrean jarraitzen du. Bereziki azpimarratu zuen



Axtrokiko urrezko bi ontziak. MADRILGO MUSEO ARKEOLOGIKO NAZIONALA

bi axtrokiek duten erliebeen kalitatea. Ontzien dekorazio astrologikoak kosmologiarekin, eskatologiarekin eta funtzio sakratuekin lotzen ditu.

Horren harira, Martin Almagro arkeologo eta historialariak

Axtrokiko ontziak Brontze Aroan Europan zehar topatutako beste hainbat altxorrek alderatu ditu, eta parekotasun handiak topatu. Bereziki, Danimarkan eta Suedian aurkitutako altxorrek.

Adinekoen arreta eta zaintzaren gaineko ekitaldia izango da

Gipuzkoako Senideak elkarteko kideek, pentsiodunen elkartek, sindikatuak eta elkarte feministak antolatuta, irailaren 12an, mendekotasuna dutenen eta Gipuzkoako adinekoen arreta eta zaintzaren gaineko ekitaldia egingo dute Fernando Eskoriatza plazan.

11:00etan, prentsaurrekoa egingo dute, eta bertan, Udalera bidalitako idatzia irakurri eta honen aurrean jaso duten jarrerak aipatuko dute. Gero, egoitzetako langileek eta zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresetan ordezkatuta dagoen GFAk duten lan-gatazka konpontzeko eskaera egingo dute. Amaitzeko, 16:00etan, mahai-ingurua egingo da.



Manuel Muñoz kiroldegiko kirol aparailuetan, norberaren izerdia garbitzeko abisua paretan. IMANOL BELOKI

Kirol jarduera eskaintza, talde gehiago ezarrita

Kirol jardueren ikastaroak irailaren 15ean hasiko dira. Hala ere, aurretik, ate irekien jardunaldiak izango dira, eta bertan, herritarrek jarduerak probatzeko aukera izango dute, irailaren 10ean, 11n, eta 14an, aurrez izena emanda

Imanol Beloki ESKORIATZA

Oporraldiaren ostean, kirol ikastaroren bat egin nahi duenak aukera ederra izango du Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Izan ere, 2020/21 ikasturterako kirol-jardueretarako matrikulazio kanpaina martxan da abuztuaren 24tik. Hala, proposatutako jarduerak antolatzeke, instalazioak, edukiera eta ratioak birdiseinatu dituzte, segurtasun-distantziak eta parte-hartzaile guztien osasuna bermatzeko protokolo espezifikoekin. Hala, COVID-19aren kutsapena saihesteko prebentzio neurri guztiak hartuta, kirola modu seguruan egiteko asmoz.

Saioen iraupenen murrizketa

Edukiera mugen ondorioz, eta dagoen eskaerari erantzuteko, saio kopuruak bikoiztu egin dituzte eta murriztu egin da saioen iraupena. Lehen ordubeteko saioak zituzten erabiltzaileek hiru ordu laurdeneko saioak izango dituzte. Jardueren

prezioa, berriz, mantendu egingo dute, nahiz eta edukiera murrizteak gainkostua ekarriko dion kiroldegiari. Hala pilatesa, zikloa, zumba, erorketa prebentzioa, gimnasia harmonikoa, body tonua eta igeriketa izango dira aukeran. Egunak ordutegiak eta tarifak, aldiz, *Eskoriatza.eus* webgunean ikus daitezke.

Izen-ematea zabalik dago eta plazak bete arte egongo da horrela; betiere, izena emateko hurrenkera errespetatuz.

Ate irekien jardunaldiak

Ikastaro batean izena eman gura duenak eta horren aurretik probatu nahi duenak aukera izango du horretarako. Izan ere,

IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA ATE IREKIEK JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEKO

irailaren 10ean, pilates, ziklo eta zumba saioak izango dira. Hilaren 11n, berriz, zumba saioa, eta irailaren 14an, erorketa prebentzioa, zikloa, gimnasia harmonikoa, pilatesa eta body tonua. Hala, nahi duenak probatzeko aukera izango du, baina aurrez izena eman beharko da, Manuel Muñoz kiroldegitik pasata edo bertara deituta, 943 71 53 28 telefono zenbakira.

Igeriketa ikastaroa urrian

Ikastaro guztiak irailaren 15ean hasteko aurreikuspena izan arren, igerilekuko ikastaroak urrian hastea erabaki dute. Haurren igeriketa, helduena eta aquagyma. 3-4 urteko haurrentzat 30 minutuko saioak izango dira eta beste saio guztiek, aldiz, 45 minutuko klaseak izango dituzte.

Horrez gainera, udako ordutegia alde batera utzita, kanpoko igerilekua asteburuan itxiko dutela adierazi dute Manuel Muñoz kiroldegiko arduradunek.



Ibarraundi museoa bonuak saltzen. I.B.

Bonu berriak salgai, bonu gehiago erosteko aukerarekin

Eskoriatza Bizirik bonuen kanpainaren bigarren faseari ekingo diote, zenbait berrikuntzarekin

I.B. ESKORIATZA

Dagoeneko amaitu da Eskoriatza Bizirik bonuen lehenengo fasea; bonu berdeena, alegia. Bonu guztiak saldu ez diren arren, gehienak saldu dituzte. Dena den, oraindik zirkulazioan hainbat bonu gelditzen dira, eta, horregatik, horien irautze data urriaren 31ra arte luzatzea erabaki du Eskoriatzako Udalak.

Tabernetan eta osasun zentroetan baino gehiago, ile-apaindegietan eta estetika zentroetan izan dute arrakasta bonuek; eta, zer esanik ez, maskaren salmentan aritu den horretan.

Berrikuntzak bigarren fasean

Eskoriatzan erroldatuta dagoen adinez nagusi den edozeinek erosi ahal izango ditu bonuak. Ostalaritzako establezimendu, fisioterapia edo osteopatia zentro eta ile-apaindegi edo estetika zentroz gain, janari eta liburu dendetara ireki da bonuak trukatzeko aukera.

Bonuen itxurari dagokionez, oraingoan, kolore gorrikoak izango dira. Dena den, bonu berdeak erabiltzen jarraitu ahal izango da. Bonu gorri zein berdeen irautze data urriaren 31 izango da.

Maskarak jarri dituzte salgai EskoZapek eta kirol elkartekoek

Herriko bi elkartek maskarak atera dituzte, beraien leloak lau haizetara zabaltzeko asmoz

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek *Herri baten indarra* lelopean maskarak jarri dituzte salgai, zazpi eurotan. 200 atera dituzte, gutzira, eta Dorleta liburu-dendan eta Compostela tabernan daude salgai, momentuz. "Modelo bat atera dugu proba egiteko. Ea funtzionatzen duen... Saltzeko 200 musuko atera ditugun arren, kirol elkarteko kide bakoitzarentzat bana ere atera dugu", adierazi du Andoni Motok, Eskoriatza Kirol Elkarteko kideak.

EskoZap elkarteko kideek, bestalde, 100 musuko atera zituzten, *Beste mundu bat posible da* lelopean. Hauek, berriz, sei eurotan jarri zituzten salgai, eta dagoeneko denak saldu dituzten arren, beste hainbeste ekarriko dituztela adierazi du Iurre Romaretzabalak, EskoZap taldeko ordezkariak: "Jendeari gustatu zaizkio; bi modelo atera genituen, 100 gutzira, eta, denak saldu ostean, beste 100 ekartzea erabaki dugu. Hala, eskuratu nahi dituenak niri galdetu edo Naira tabernan galdetu dezake".

"Esperientzia handiagoa hartzeko aukera dut"

NEREA PAVO OSASUNA LACTURALE ORVINA ARETO FUTBOL TALDEKO ATEZAINA
Joan den urtean Bilbo CFS taldean egindako denboraldiaren ostean, eta taldea desagertuta, Nafarroako taldeak eskoriatzarraren aldeko apustua egin du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako harrobian hasitako Nerea Pavo areto futbol jokalaria Osasuna Lacturale Orvina taldean arituko da datorren denboraldian. Eskoriatzan senior mailara arte jokatzeko aritu zen gaztetatik; gero, bigarren mailako Ordizia taldean aritu zen; eta, ia denboraldia lehen mailako Bilbo CFS taldean aritu ostean, bigarren mailako talde nafarraren lehen fitxaketa izan da.

Osasuna taldeak fitxatu berri, proiektu berrirako gogoz egongo zara. Nola jaso zenuen albistea?

Konfinamenduan jaso nuen Osasuna Lacturale Orvina taldeko arduradunen deia. Proiektu berri bat martxan jarri nahi zutela eta helburu handi horietarako ni taldean egotea nahi zutela adierazi zidaten. Helburu hori bigarren mailatik lehenengo mailara pasatzea da, besteak beste. Nik, berriz, esperientzia handiagoa hartu gura dut, eta baita minutu gehiago jokatu ere; beraz, lekualdaketa eskatu dut unibertsitatean, taldearekin jokatzeko posible izateko. Orain arte, Bilbon aritu nahiz, Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzietako Lizentzia ikasketak (IVEF) egiten, eta Iruñera joateko eta bertatik ikasketak jarraitzeko



Nerea Pavo atezaina. OSASUNA LACTURALE

ez didate oztoporik jarri. Hori horrela, gogotsu nago ibilbide berriari ekiteko.

Orain arte aritu zaren Bilbo CFS areto futbol taldea desagertu egin da. Zer gertatu da?

Lehen mailako taldea izan arren, dirua izan da arazo nagusietako bat. Maila altuagoan egonda diru gehiago behar da, eta, horrekin batera, jokalariek askok talde utzi dute. Beste zenbait beste talde batzuen eskaera jaso eta taldetik joan dira. Osasuna Lacturale Orvina taldera, esaterako, bi jokalariek goaz aurreko

taldetik... Horrenbestez, jokalaririk barik, eta diru kontuak tarteko, taldea desagertu beharra izan da.

Denboraldi-aurrea prestatzen hasizazarete dagoeneko? Noiz hasiko duzue liga?

Abuztuaren 1ean hasi ginen prestaketa lanetan, entrenamendu individualak eginez. Korrika sarri atera naiz, eta etxean egiteko zenbait ariketa ere bidali dizkidan. Hasierako asmoa abuztuaren 15ean kantxan entrenatzen hastea zen, baina Nafarroako Gobernuak ezezkua eman zuen. Horren aurrean, martitzenean, esaterako, taldekideak batu ginen eta entrenamendua kalean egin genuen, musukok jarrita... baina, behintzat, taldean. Aurreikuspenen arabera, irailaren 15era arte ezin izango gara kantxan entrenatu; liga, berriz, urriaren erdialdera hasiko dugula uste dugu. Dena den, osatzen ari diren protokoloaren zain gaude, eta airean dago kontua.

Eskoriatzako taldea ere gertutik jarraitzen duzu. Etorkizunean bueltatu nahiko zenuke?

Bai, noski, duda barik. Oraindik urte asko geratzen zaizkit areto futboleko, baina nire ibilbidea etxeko taldean amaitzea gustatuko litzaidake.

Bide zatia konpontzen

Mazmela elizatean, Etxenausi baserrira joateko dagoen zementuzko bideko zati bat hondoratuta dago, eta martitzenean hasi ziren konponketa lanak egiten. Auzotarren eskaerari erantzunez, bide zatia kendu, eta hormigoia bota dute berriro. Lanak amaitu arren, hamar egunez ezin izango da bertatik pasa.



I.B.

LEINTZ GATZAGA 25

Andramaixak ez ospatzea erabaki du udalbatzak

Soilik meza egingo da irailaren 8an, Andramari egunean, Dorleta Santutegian, 12:00etan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Arduraz jokatzeko unea dela argudiatuz, joan den astean udalbatzako kideek egindako bileran Leintz Gatzagako Andramari jaiak ez egitea erabaki zuten. Hala ere, irailaren 8an egongo da meza, 12:00etan, Dorleta Santutegian, eta herritarrentzat soilik zuzenduta egongo den ekitaldi sinbolikoren bat egitea ere ez dute baztertzen, herrigunean.

Ekitaldi sinbolikoa, agian

"Andramari egunean egingo dugu, goizean, herrigunean, gatzagarrentzat ekitaldi sinbolikoren bat. Hala ere, zer egin aztertzen ari gara, baina Andramari eguna dela adierazteko soilik izango da; ezer berezirik egin gabe. Ez genuke nahi, gainera, beste herrietako jendea gerturatzerik; beraz, hala ospa-



Meza, Dorleta Santutegian. GOIENA

tu beharko ditugu aurten. Urteetan etorri izan diren Otxandioko lagunak ez dira etorriko jaietara, eta sumatuko da hori herrian. Bola-jokoa ere ez da izango, kontzerturik ere ez...", adierazi du Garazi Orobengoak, Ogasun zinegotziak.

Bisitari kopuru handia izan da abuztuan Leintz Gatzagan

Gatz Museoan 372 bisitari izan dituzte abuztuan; ia izakozko datuekin alderatuz, gorakada nabarmena da

I.B. LEINTZ GATZAGA

Iaz baino mugimendu handiagoa sumatu dute Gatz Museoan langileek herrian. Ez soilik Gatz Museoan; herrigunean, Hiruerreketan eta Dorleta Santutegian mugimendu handia izan dela adierazi dute.

Iazko datuekin alderatuz, abuztuan Gatz Museoan izan duten bisitari kopuruak gora egin duela nabarmen adierazi du Libe Ramila bertako langileak: "Gipuzkoar asko izan ditugu, eta baita debagoiendar asko ere. Barne turismoak indar handia izan du, gainera, eta hori pozteko albistea da. Iaz, 162 bisitari izan genituen abuztuan eta aurten, berriz, 372 izan ditugu".

Azken dekretuaren arabera, bisitarien kopurua murriztu egin beharko dute; hori horrela, bederatzi pertsonako bisitak egin beharko dituzte Gatz Mu-

sean. Hala, gaur-gaurkoz, hiru bisita ari dira egiten eguneko, asteburuetan, baina, aurrera begira, talde gehiago jartzea dela beraien asmoa adierazi du Ramilak. Gogorarazi gura izan du bisita egiteko erreserba egitea ezinbestekoa izango dela.

Gaztainuzketan iritzi ona

Gaztainuzketa mendi-etxeetan, bestalde, zapore gazi-gozoa izan dute abuztuan. Dena den, Kepa Atutxa bertako jabeak adierazi duenez, izan diren bisitariak oso pozik egon dira: "Salbuespen gabe, bisitari guztiek iritzi oso ona eman digute egonaldiari dagokionez, baina gehiago espero genituen. Zazpi etxola ditugu funtzionamenduan, eta ari gara berrikuntzak ezartzen. Zuhaitzen gainean beste hainbat egiteko genuen proiektua, aldiz, gelditu dago une honetan".

Eskolara itzulera: kezka hartutako hainbat neurri

Eskolarako inoizko itzulerarik berezienean, herriko ikastetxeek gertu dituzte pandemiari aurre egiten saiatzeko protokoloak, zalantza askorekin eta kezka handiarekin bada ere; guztietan txandaka egingo dituzte sarrerak eta irteerak, ikasle pilaketak ekiditeko asmoz

Jokin Bereziartua BERGARA

Zalantza askorekin eta kezka handiarekin bada ere, gertu daude Bergarako ikastetxeak ezohiko ikasturte berriari ekiteko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (DBH 1 eta DBH 2) irailaren 7an hasiko da, eta DBH-3ko, DBH-4ko eta batxilergoko ikasleek irailaren 15ean ekingo diote.

San Martin Agirre eta Ipintza

San Martin eskolaren bi eraikinak nahikoa izango dira HHko eta LHko ikasleak hartzeko. Sarrera egiteko, patioan elkartuko dira, ilaretan, gelaka antolatuta. Orduan hartuko zaie tenperatura umei, eta eskuak garbitu egin beharko dituzte; ostean, irakaslearen laguntzarekin sartuko dira eskolara. Jolastordua bi txandatan antolatu dute, eta, positiboren bat agertuz gero, Eusko Jaurlaritzaren protokoloa jarraituko dute (Ikus 6. orria).



Bergarako ikastetxe bateko ikasgela bat, ikasle barik. GOIENA

Jangelarekin eta garraioarekin nola jokatu zehazten dabilta.

Ipintzako ikasle guztiak -DBH-koak eta batxilergokoak- ordu-tegi jarraitua izango dute; hau da, maila guztietan goizez bakarrik joango dira eskolara. Sar-

tzeko eta irteteko mailaka antolatu dituzte ibilbide ezberdinak eta arduradun bat egongo da sarreran, ikasle guztiak gelarekin eskuak garbitzen dituztela kontrolatzeko. Ikasleek eta irakasleek tenperatura etxetik hartuta joan

beharko dute eskolara. Materiala ikasle bakoitzak berea eraman beharko du, eta bere leihatilan gorde. Autobus zerbitzuan, baina, ez dago aldaketarik; Ipintzako arduradunen arabera, ez dago baliabiderik autobus gehiago kontratatzeko, eta, autobusak beteta joango badira ere, ikasle bakoitzak eserleku bera erabili beharko du beti. Jangelak nola funtzionatuko duen San Martin Agirrerekin batera zehaztuko dute, baina aurreikusten dute urrira bitartean, behintzat, jangelaz-zerbitzurik ez dela egongo.

Aranzadi Ikastola

Aranzadik ere gertu dauka ezohiko ikasturte honetarako plangintza. Sarrerak eta irteerak leku ezberdinetatik egingo dituzte, eta txandaka; bost minutuko tartekak izango dira taldeen artean. Arduradunek gurasoei zehaztuko diete zein ordutan eta nondik sartu beharko duen ume bakoitzak; ikasleek tenperatura etxetik hartuta joan beharko dute. Patioan ere sarrerak eta irteerak txandaka egingo dira eta gela bakoitzak gune jakin bat izango du patioarako. Ikasleek ez dute materiala elkarbanatuko, nork berea eraman beharko du; eta, partekatu beharko balitz, materiala umez aldatzerakoan garbitu egin beharko da. Jangelaz-zerbitzua ere txandaka eta gelaka egingo dute. Autobus zerbitzua, berriz, Mariaren Lagundiarekin partekatzen dute,

eta, erabat zehaztu gabe egon arren, asmoa da autobusa partekatzen segitzea eta umeek eserleku bera erabiltzea beti; autobus barruan umeek ezingo dute maskara ezertarako kendu.

Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundiak sei sarrera posible dituzte, guztiak erabiliko dituzte, eta talde bakoitzak sarrera jakin bat izango du txandaka. Ikasleei tenperatura hartzeko zalantza dituzte, baina, hasiera batean, eskatuko zaie etxean bertan hartzeko. Patioarako sarrerak eta irteerak txandaka eta ate ezberdinetatik egingo dituzte eta gela bakoitzak gune bat izango du; gune horiek txandakatzen joango dira. Jolastorduan zaintza bikoiztu egingo dute. Komun guztiak misto bihurtuko dituzte eta talde bakoitzak komun bakar bat erabili beharko du. Materiala bizikidetzat talde bereko ikasleentzako bakarrik partekatuko da. Jangela ere txandaka eta bizikidetzat taldeetan banatuta irekiko dute eta osteko zaintza zerbitzua indartu egingo dute. Garraioa Aranzadi Ikastolarekin partekatzen jarraitzea da asmoa.

AUTOBUSA BEHAR DUTENEK LEKU BEREAN ESERI BEHAR DUTE, ETA MASKARA EZINGO DUTE ERANTZI

Udako datuekin "pozik", ezohiko ikasturte berrirako gertu daude

Irailaren 6ra arte eman daiteke izena; umeen igeriketa kendu egin dute, "mugimendu handia" egon ohi delako

J.B. BERGARA

Agorrosingo 2020-2021 ikasturterako kirol jardueretarako izen-ematea zabalik dago irailaren 6ra arte, eta jardueraren baten zozketa egingo beharko balitz irailaren 10ean egingo da. Jarduerekin irailaren 17an hasiko dira, eta, eskaintza larregi aldatu ez bada ere, badira aldaketak esanguratsu batzuk.

Umeen igeriketa eta crossfit-a ez dira eskainiko, baina bi aukera berri daude: askotariko jarduerak kalean eta entrenamendu gidatuak. Umeen igeri-

keta saioak suspenditu egin dira, "mugimendu handia" egon ohi delako: "Eskolara itzulera nola doan ikusi eta egoerak nola eboluzionatzen duen jakin arte, erabaki dugu itxoitea", dio kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek. Izena emateko edota protokoloen berri jasotzeko: 943 77 70 95 edo agorrosin@bergara.eus. Azken eguna da irailaren 6a.

Sarrera kopurua, erdira jaitsita

Ezohiko uda izanik, ezohiko datuak utzi ditu Agorrosinek erabiltzaileei dagokienez: ekaineko



Agorrosingo kanpoko igerilekua, uztaileko egun batean. GOIENA

azken astean 2.075 sarrera kontabilizatu ziren; uztailean, 11.856; eta abuztuan, 21.735. Guztira, 35.666 sarrera dira abuztua bukatu bitartean; iaz, 75.000 sarrera izan ziren ekainaren 14tik irailaren 13ra. Arantzabalek

balorazio ona egin du: "Egoera ikusita, pozik gaude udak orain arte eman duenarekin. %60ko edukierarekin ibili garela aintzat hartuta, iazko antzeko proportzioetan ibili gara. Erabiltzaileek ondo bete dituzte neurriak".

OHARRAK

Elkarretaratzea

Pentsiodunak irailaren 7an itzuliko dira asteleheneroko protestekin. San Martin plazan elkartuko dira, 12:00etan.

Musika Eskola

Zabalik dago ikasturte berrirako matrikulazioa. Bi modu daude izena emateko: 943 76 57 80 telefono zenbakira deituta edo idadzkaritza@bme.e.telefonica.net helbidera idatzita. Irailaren 25era arte dago zabalik epea.

Postal lehiaketa

Jardunek urtero antolatzen duen udako euskarazko postal lehiaketan parte hartzeko azken eguna irailaren 16a da.

Jairik ez, baina kulturaz gozatzeko aukerak bai

San Martin jaietako helduen danborrada modu berezian egiteko lanean ari zen Udal Gobernuak, baina COVID-19aren bilakaeraren ondorioz ezarritako araudi berriak ez du baimentzen; batez ere, kultura arloko ekitaldi "apal" batzuk antolatu dira, nobedadeekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Sanmartinik ere ez, COVID-19aren bilakaerak ez du orain arte ezagutu ditugun jaiak ospatzea ahalbidetzen. Pentekosteetatik hasita festez gozatzeko aukerarik izan ez dela jakinda, Udala hasita zegoen bereziki helduen danborradara begira lanean. Egokituta izanda ere, bergararentzat danborrada hori ekitaldi oso berezia delako. "Alarma egoera gainditu genuenean ikusten genuen bazegoela bidea San Martin jaiak ospatzeko, baina egoeraren bilakaera zein izan den ikusita ekitaldiak alboratzen joan ginen; uztaile hasieran, bazirudien danborrada



Kristina Markina eta Maider Osa, martitzeneko agerraldian. JOKIN BEREZIARTUA

mugatu bat egin ahalko zela. Baina egun egoera zein den ikusita argi dago ezingo dugula jai egitaraurik proposatu", dio Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Markina: "Kultura segurua da"

Jai egitaraurik gabe ere ekitaldi "apal" batzuk antolatzea erabaki dute, bereziki kultura arlokoak: "Herri osoak eta bereziki kultura sortzaileek eta eragileek merezi dute kulturaren alde egingo duen Udala, eta ez diogu, modu apal batean bada ere, kultura eskaintzeari utziko. Uztailean eta abuztuan hainbat ekintza izan dira eta herritarrek oso ondo erantzun dute. Argi ikusi dugu segurtasun neurriak betetzen badira kulturak ez duela kutsatzen, segurua dela".

Danborradak, norberaren etxetik

Danborrada izan ohi da San Martin jaietako plater nagusia. Hala ere, egun indarrean dagoen araudiak ez du baimentzen, besteak beste, desfile gisako ikuskizun ibiltariak edo jendeak bide publikoan lagundutakoak, eta, horregatik, Udalak proposatu du makilak hartu eta he-

rritarrek balkoi edo leihoetatik San Martin martxa jotzeko; Udalak bere Youtubeko kanaletik jarriko du ikus-entzunezko bat *San Martin* eta *Pertxa* martxekin: irailaren 15ean 22:30ean eta irailaren 16an 17:00etan.

Ekintzak, egoerarekin bateragarri

Honako ekitaldi hauek antolatu ditu Udalak: irailaren 10ean, *Erroa eta geroa* dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia, Seminarioan (19:00); irailaren 11n, Soraluze txapelketako finala udal pilotalekuan (19:30), eta bikote nagusiendako dantza solte txapelketaren 35. edizioa seminarioko karpan (19:30); irailaren 12an, bertako ekoizleen barazki, fruta eta gazta azoka Fraisko zurin (09:30); irailaren 13an, margoa eta musika uztartzen dituen *Baldin bada* antzez-lana San Martin plazan (13:00); irailaren 15ean, Emakumeen Bergara Hiria txapelketa udal pilotalekuan (18:30), eta helduen danborrada balkoietatik (22:30); irailaren 16an, umeen danborrada balkoietatik (17:00); eta irailaren 20an bandaren kontzertua Boluko frontoian (12:30).

ariznoa elkarte

2020-2021 KURTZO HASIERA

Lehiaketa kategoriak (5. mailatik gorakoak):

irailaren 7an, 18:00etan, Bergarako pilotalekuan.

Aurre-benjaminak 1 (2015ean jaiotakoak):

irailaren 17an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Aurre-benjaminak 2 (1. eta 2. mailetakoak):

irailaren 17an, 18:15ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Benjaminak (3 eta 4. mailetakoak):

irailaren 17an, 19:00etan, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Antzuolako taldea:

irailaren 23an, 14:30ean, Antzuolako pilotalekuan.

ariznoa elkarte



COVID-19A DELA ETA, AURREIKUSPEN HONEK ALDAKETAK JASAN DITZAKE

ERITZKETA



ariznoa
elkartea
bergara

www.ariznoaelkartea.com

AURKEZPEN BILERA

IRAILAREN 4AN ANTZUOLAN: OLARANEN
- Antzuolako taldea 18:00etan.

ANIMATU ZAITEZ GU EZAGUTZERA!

Harremanetarako: ariznoa_ge@hotmail.com

"Ikasle guztiek enpresekin aukerak izatea nahi dugu"

JOXU ARANA MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA ZENTROKO ZUZENDARIA
Ezohiko ikasturtearen atarian zuzendari kargua hartu berri du Joxu Aranak. Ikasturte berrirako hartutako neurriak eta eskolaren etorkizuneko erronkak azaldu ditu

Jone Olabarria BERGARA

Josune Irazabalen ostean iritsi da Joxu Aranaren txanda Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroko zuzendari. Aurretik irakasle aritu den arren, erronka berria izango du aurtengoa; are gehiago, egoeraren berezitasunagatik. Eskolaren beraren erronkez galdetuta, enpresen eta erakundeen arteko elkarlaren garrantzia azpimarratu du, baita praktikek Lanbide Heziketaren arloan duten pisua. Hain zuzen, aurten ere ikasle guztiek praktikak egiteko aukera izatea ezinbesteko bezala definitu du.

Erronka berri honen aurretik, izan duzu esperientzia Lanbide Heziketan. Nolako izan da zure ibilbidea?

30 urte dira Miguel Altuna ikastetxean irakasle lanetan hasi nintzela. Enpresa munduan eta hainbat ikastetxetan lan egin ondoren, 2004an behin betiko lanpostua lortuta bueltatu nintzen Miguel Altunara, eta orduetik hemen nago. 2008an, Josean Etxeberrriaren eskutik inguruko enpresekin harremanak zaintzen eta ikasleak enpresa hauetara gerturatzeko hasi nintzen. 2013tik aurrera zuzendaritza taldeko partaidea izan naiz.

Nola iritsi zara postu berri honetara? Zer espero duzu?

Josune Irazabalen gidaritzapean egin dugun lanak oso egoera onean utzi du eskola, ikastetxe berrian oso gustura gaude, ikasle kopuru altua dugu, erronka kolaboratiboetan oinarritutako metodologia guztiz finkatuta dugu eta inguruko enpresekin eta maila internazionalen ere hainbat proiektutan lan egitera ohitu gara. Asmoa lerro horretan lanean jarraitzea da, orain arte ondo egindakoak indartzen, ahalik eta ikasle eta enpresa gehien erakartzen, digitalizazioak emango dituen aukerak lantzen eta transmititzen. Enpresen eskutik bide berriak zeharkatu



Arana, ikasturte berrirako prestaketa lanetan eskolan bertan, eguaztenean. J.O.

"ENPRESEN ESKUTIK BIDE BERRIAK ZEHARKATU ETA ERAKUNDEEKIN ZUBIAK ERAIKI NAHI DITUGU"

eta erakunde ezberdinekin zubiak eraiki nahi ditugu.

Orain arte bizi gabeko egoera bati aurre egin beharko diozue. Zein da ezohiko ikasturterako erronka?

Irailaren 7an hasi behar zuen kurtsua atzeratzeak eta itzulera modu mailakatuan egiteak asko lagunduko digu. Zorionez, ikastetxe berria izateak sarrera-irteera kopuruan, gelak duten espazioan, komun kopuruan, pasilloen zabaleran, eta abarrean aukerak ematen dizkigu segurtasun distantziak mantentzeko. Egunerokotasunari begira, maskara erabiltzea eta gel hidroalkoholikoa behin eta berriz erabiltzea nahitaezkoa izango da. Komunitateko eta ikasgeletako garbitasuna maizago egingo da. Sei sarrera-irteera desberdin ditugu eta ikasgeletara joateko talde bakoitzak bere ibilbidea izango du. Sarrera, irteera eta

atsedenaldia mailakatua izango dira eta talde desberdinak ez dira elkartuko. Tailerretan ere segurtasun distantzia mantendu da eta erreminta guztiak behin erabili eta gero desinfektatu dira.

Lanbide Heziketaren arlo garrantzitsu bat praktikak dira. Zer garrantzi ematen diezue orain, eta nola egingo dira aurten?

Hain zuzen ere, Lanbide heziketako berezitasun nagusia ikasketak praktikak dira, eta bai ikastetxean baita enpresetan ere lantzen diren gaitasunak oso garrantzitsuak dira guretzat. Gure aldetik, orain arte bezala aritzeko asmoa dugu, ikasleak enpresetan kokatzen, bai lan prestakuntzak –praktikak– betetzeko, bai dual sisteman kontratuean aritzeko, baita lan-poltsa zerbitzuaren bitartez enpresetan lan kontratuak lortzeko. Badakigu pandemiaren bilakaerak markatuko dituela etorkizun hurbilean enpresekin kolaboratzeko izango ditugun aukerak; hala ere, ikasle guztiek enpresetan esperientzia jaso eta bertan lanean geratzeko aukera izatea nahi dugu eta helburu hori lortzeko lanean jarraituko dugu.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Burdin zatiak kendu dituztelako eskertuta



Tavex ondoko bidegorrian, sasiak kendu ostean burdin zati batzuk geratu ziren agerian, eta herritar batek zati horiek kentzeko eskatu zion Udalari. Eskatutakoa bete izana eskertu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



JOKIN BEREZIARTUA

Amillagako lanak, "martxa onean"

Apirilaren 27an hasi zituzten obrak Amillaga kalean; betiere, irrisgarritasuna bermatzeko eta zati horretako hiri-altzariak berritzeko. Udalaren arabera, obrak "martxa onean" doaz eta azarorako dena bukatuta izatea espero dute. Besteak beste, espaloiak zabaltzen ari dira, LED farolak jartzen eta autobus geltokia lekuz aldatzen.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

I21
KALITATEA

Enpresa legezkoak 1100/025

Bizi duten "ametsari" lotuta jarraitu nahi dute

Brigade Locok irail bukaeran kaleratuko du 'Amets bati lotuta' izenburu duen diskoa, pandemiaren eraginez oraindik lotzeke duten egun eta leku batean. "Indartsuagoa eta osoagoa" da bigarren lana eta hamaika abesti ditu; tartean, Neallta Folaren bertsio bat

Jokin Bereziartua BERGARA

Amets bati lotuta izenburu duen diskoa irail bukaeran kaleratuko du Brigade Locok. Apirilean kaleratu behar zuten eta lotuta zizuten diskoa aurkezteko emanaldi batzuk; tartean, Pentekosten hasieran herri osoaren aurrean San Martin plazan eman behar zuten kontzertu berezia.

Baina COVID-19ak hankaz gora jarri zien plana. "Otsailetik garajea ditugu diskoak eta binioloak, diru kopuru garrantzitsu bat aurreratuta. Gainera, ez dakigu pandemiak eragindako egoera honek zenbat iraungo duen, eta horregatik erabaki dugu orain kaleratzea", dio taldeko baxu-jole Oier Aperribaik.



Manex Egaña, Oier Aperribaik, Alex Arteaga, Mikel Soto eta Lander Aznal. BRIGADE LOCO

"Esentzia" mantentzen du lanak

Ekintzek dute hitza arrakastatsuen ostean, bigarren disko honetan entzuleak "Brigade Locoren esentzia" aurkituko duela diote: "Disko osotuagoa eta indartsuagoa dela uste dugu. Musika aldetik lehen diskoa baino landuagoa da; gertukoek entzun dute eta esan digute Brigade Locoren kutsu nabarmena duela". Abestiak landuagoak izanda ere, ikusteke dago lehen diskoak eragindako arrakastaren olatuak bere horretan jarraituko duen. *Brigadetarrak* baikor dira: "Oraindik ere jendeak ikusmina badauka; ikusi besterik ez dago *Arbasoak* kantua izan duen oihartzuna eta harre-rolakoa izan den [disko berriko aurrerapen abestiak ia 17.000 bisita izan ditu bost egunean]", zehaztu du Aperribaik.

Askok entzun da *Arbasoak* abestia, eta, diotenez, jaso dituzten kritika gehienak oso onak izan dira. Hori bai, taldeko batera-jole Manex Egañak nahiago luke konparazioetan ez erori: "Lehen diskoa lehena izan zen eta ez da horrelakorik errepikatuko. Bigarrena zaleen gustukoa izango dela bai uste dugula".

"OSO GUSTURA" DAUDE DISKOAREKIN; IRUÑEAN GRABATU ETA BARTZELONAN MASTERIZATU DUTE

Hamaika abesti, bertsio batekin

Hamaika abestik osatzen dute diskoa, eta tartean badago bertsio berezi bat, Aretxabaletako Neallta Fola taldearen *Itxaropen arnasa* abestia. Zergatik talde aretxabaletarraren bertsio bat? "Taldea erreferente bat izan da guretzat, duela hamarkada bateko mugimenduaren barruan zegoen talde gustukoetako bat", dio Aperribaik. Eta taldeko abeslari Lander Aznalek honako hau gaineratu nahi izan du: "Ez zuten oihartzun handirik izan eta uste dugu musika berezia eta ezberdina egiten zutela; keinu bat egin nahi izan diegu, omenaldi txiki bat".

Abestien hitzetan gai politikoak eta sozialak dira nagusi. Euskal Herriaren alde borroka egin zuten arbasoei idatzitakoa; Irlandako preso politikoen gose grebari egindakoa; suizidioa

tabutzat bizi duen gizartearen gainekoa...

Zuzeneko batekin aurkeztu nahi

Konfinamendua bukatu eta gutxira, ekainaren 6an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan *streaming*-etik zuzenean eman zuten kontzertua "espero baino hobeto" joan zen: "Beldur puntua bage-nuen, erabat berria zelako guretako; ez genuen publikoaren berotasunik igarri bertatik bertara, baina gustura geratu ginen. Zain gaude benetako zuzeneko bat emateko".

Bigarren disko hau ere Iruñeko Sound of Sirens estudioan grabatu dute, Julen Urzaizen eskutik. Oraingo hau, baina, Bartzelonako Ultramarinos Costa Brava estudioetan nahastu eta masterizatu dute, eta "oso gustura" geratu dira emaitzarekin. Irail bukaeran aurkeztuko dute diskoa, baina oraindik lotzeke dute noiz eta nola: "Zerbait berezia egin nahi dugu, ez dugu diskoa beste barik atera nahi. Lotzeaz bat sare sozialen bidez iragarriko dugu". Hamar eurotan jarriko dute salgai diskoa, Euskal Herri osoko hainbat taberna eta dendetan; Internetez ere erosi ahalko da.



Eneko Arrona eta Iosu Elorza, Agorrosinen, martitzen arratsaldean. BKE

Eneko Arrona zumaiarrak Manu Diaz ordezkatu du BKEn

Gipuzkoako futbola "oso ondo" ezagutzen du Arronak; azken bost urteetako lana eskertu dio BKEk Manu Diaz

J.B. BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak nobedade esanguratsu batekin ekingo dio 2020-2021 denboraldiari. Izan ere, Eneko Arrona zumaiarra izango da kirol zuzendari berria, azken bost urteetan kargu horretan aritu den Manu Diaz ordezkata. "Futboleko esperientzia handiko mutila da Eneko Arrona, Zumaiako, Usurbil, Añorga eta Elgoibar taldeetan aritu da eta azken bi denboraldietan Antiguoko taldeko Ohorezko Ligako gazte mailako taldea zuzentzen aritu da. Gipuzkoako futbola eta taldeak ondo ezagutzen ditu eta entrenamenduen metodologian aditua da", adierazi du BKEko zuzendaritza taldeak.

Manu Diazek egindako lana eskertu du BKEk: "Elkarrekin hasi genuen proiektuan ipinitako ilusio eta inplikazioa ezinbestekoak izan dira klubean arlo

guztietan izandako aldaketak gauzatzeko, Gipuzkoako talde garrantzitsuen artean kokatuz. Ilusio, indar eta gogo berekin jarraituko dugu lanean eta zortetik onena opa dizugu esku artean duzun proiektu berrirako". Hain zuzen ere, Diaz Gipuzkoako Futbol Federazioarako hauteskondeetara hautagaitza berri bat aurkezteko ari da lanean.

Entrenamenduak, atek itxita

Gizonezkoen lehen taldeak abuztuaren 31n ekin zion lanari, osasun protokoloak betez. Euskal Ligako eta Ohorezko Mailako gainontzeko taldeak irailaren 7an hasiko dira eta beste talde guztiak hurrengo asteetan zehar itzuliko dira entrenamenduetara. Infantil, alebin eta futbol eskolako taldeek ezin dute hasi eta oraindik ez da itzulera datarik zehaztu. Entrenamendu saio guztiak atek itxita egingo dira.

Euskal presoen aldeko elkarretaratzea gaur San Martin plazan

Izan Bidea ekimenaren barruan, abuztuko etenaldiaren osteko lehen elkarretaratzea egingo dute gaur, irailak 4, San Martin plazan (19:30). Pandemiari aurre egiteko neurri guztiak hartuko dituzte. Horrekin batera, urriaren 3rako mendi tontorretarako martxak antolatzen ari dira; asmoa da Bergarako kasuan zortzi tontor egitea.

'Bertsolaria bere bakardadea' saioa, Ane Zuazubiskarrekin

Kopla Barik bertso eskolak antolatuta, Ane Zuazubiskar bertsolari arrasatearrak saio berezia eskainiko du bihar, irailak 5; kartzela zaharrean izango da, 19:00etan. Antolatzaileek *Bertsolari bere bakardadean* jarri diote izenburu saioari eta Ibon Leibar *Txinbo* arituko da gai jartzaile lanetan. Edukiera mugatua izango da.

"Arau ekologikoak bete eta jarraitzen ditugu"

TOMAS LARRAÑAGA LAPATZA BASERRIKO EKOIZLEA

Nekazaritza ekologikoaren irizpideen arabera landatu eta lantzen dituzte ortuko produktuak Lapatza baserrian, eta etxean lortutakoa azoka eta kontsumo taldean saldu

Jone Olabarria ANTZUOLA

Hogeita hamar produktu ezberdin inguru dituzte landatuta Antzuolako Lapatza baserrian. Nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua eginda, ingurugiroa errespetatuta lan egiten dute bertan. Une honetan uzta jaso eta negura begira landatzen dabilta; betiere, bertako haziak erabilia. Aurtengo denboraldi ezohikoa azaldu eta uztaren berri eman du bertako Tomas Larrañagak.

Nolako ari da izaten aurtengo uda denboraldia? Zer moduzko uzta duzue, oraingoz?

Bero dezente egiten ari da aurtentzen, eta, ondorioz, lan asko dugu ureztatzen. Orain, udako produktuak bete-betean ditugu eta tomatea, kalabazinak, lekak, babak... jasotzen gabiltza buru-belarri.

Urteik urtera igartzen duzue ezberdintasunik produktuen kalitatean?

Aurten, esaterako, tomate onak daude, baina ez beste urte batzuetan bezain bestekoak. Uda berri fresko eta umela egin zuen, eta, kanpoan tomate askorik ez genuen arren, berotegietan tomatea mantendu egin da azken hilabete honetara arte; bero larregi egin eta batzuk erre edota egosi egin dira.

Ekologikoan egiten duzue lan, baina, zehazki, zer arau jarraitzen dituzue nekazaritza mota horretan?

Arau ekologikoak bete eta jarraitzen ditugu, kontrolak eta analisiak ere izaten ditugu hori horrela egiten dugula egiaztauzeko, eta nekazaritza ekologikoak bere baitan hartzen dituen teknikak bakarrik erabiltzen ditugu. Aurten, adibide bat jarzearren, har urte handia da eta hauen kontrako borroka biologikoan *bacillus thuringiensis* hondoa erabiltzen gabiltza, harrei soilik kalte egiten baitie, ez da toxikoa bestela.

Zein protokolo daude onartuta nekazaritza ekologikoan?



Tomas Larrañaga, Antzuolako Lapatza baserrian, joan den astelehenean. A.A.

"AURTENGOA HAR URTEA IZAN DA, EZ BAITU BERORIK EGIN; HORTAZ, TXIMELETA ASKO DAGO ORTUAN"

Landare bakoitzari zer bota eta zer ez idatzita eta jasota dago eta guk bertan kontsultatzen dugu nola landu behar dugun produktu hori, zalantza izanda. Guk ere ortuko koaderno bat dugu eta bertan apuntatzen dugu zer landatzen dugun, noiz landatzen dugun, nondik lortu den hazi, zer tratamendu egin zaien, erabilitako hazi eta landare motak,... burokrazia gero eta zorrotzagoa dago hemen ere.

Zuen eguneroko lanean igarri duzue klima aldaketaren ondoriorik?

Bai, zalantza gabe. Aurten, bereziki igarri dugu iaz ez zela negurik egon, esaterako. Arazo dezente ditugu harrekin horregatik ere. Tximeletak daude bai leketan, bai porruetan, bai tomateetan... Bakoitzak bere tximeleta mota espezifikoa du; gainera, helduak dira, eta tximeleta horiek ere harrak jartzen

dituzte. Aurten hainbeste har egotearen arrazoiak, hain zuzen ere, berorik egin ez izana izan da. Gero eta bero handiagoa egiten du eta globalizazioak berak ere munduko tximeleta ezberdinak ekarri dizkigu, eta gurean ditugu Hego Amerikatik etorritakoak, adibidez.

COVID-19ak eraginda, nola moldatu behar izan duzue zuen salmentan?

Herri askotan salmenta puntuak egokitu behar izan ditugu; Antzuolan, Bergaran eta Arrasaten, esaterako, neurri bereziak jarri dizkigute, edukiera mugatu dute asteroko azokek, distantzia mantendu behar da eta guk geuk ere babes neurriak hartu ditugu. Azokez gain ere, guk badugu kontsumo taldea, eta horrekin lanean jarraitzen dugu.

Asteroko azokez gain, garrantzitsuak izan ohi dira ekoizleentzat jaietan egin ohi direnak; aurten, baina, bertan behera geratu dira asko.

Azken urteetan ez gara askotan joan halako azoka berezietara, baina lehen beti joaten ginen. Aurten, esaterako, San Martin jaietako azokan izango gara orain irailean, nahiz eta oso neurri zorrotzak bete beharko ditugun.



Antzuolako Herri Eskolaren eraikinaren aurrealdea, eguaztenean. M.O.

Eskolara buelta: txandaka eta bizikidetzat taldeetan banatuta

Txandaka egingo dituzte sarrera eta irteerak, baita jangelako otordua ere. Jolastordua kalean egingo dute

Jone Olabarria ANTZUOLA

Bi txandatan sartuko dira eskolara Antzuolako Herri Eskolako haurrak astelehenean aurrera. Eskolako eraikinean egiten dabilta lanen ondorioz, ezinezkoa da sarrera eta irteera bi leku ezberdinetatik egitea, eta, hortaz, orduetegiak finkatu dituzte.

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik aurrera, 08:45ean sartu eta 12:15ean irtengo dira ikasleak, eta 14:15etik 16:15era joango dira arratsaldeetan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleek ohiko ordutegia mantenduko dute, 09:00etatik 12:30era eta 14:30etik 16:30era.

Jolastordua, herriko kaleetan

Atsedendian herriko kaleak erabiliko dituzte haurrek eta irakasleek ikasturte honetan. Haur Hezkuntzako haurrak eta irakasleak eguraldiaren arabere

ra irtengo dira kalera, eta eurria bada jolastokian geratuko dira. Kasu horietan, gela bakoitzak osatuko duen bizikidetzat taldeetan bananduko dira, jolastokiko gune ezberdinetan. Lehen Hezkuntzaren kasuan, berriz, eurria eginda ere kalera irtengo dira atsedendian.

Jangela ere, txandatan

Irteerarako eta sarrerarako finkatutako txanden arabera bazkalduko dute haurrek, eta, ohiko jangelaz gain, beste gune bat ere prestatzen ari dira.

Jaurlaritzaren protokoloa

Ikasleen artean positiboren bat atzematen bada, Eusko Jaurlaritzak ezarritako protokoloa jarraituko dutela zehaztu dute eskolatik; hain zuzen ere, ikasle hori *gela segurua* izenekoan bakartuta eta osasun zerbitzuarri jakinarazita.

Material bilketa abiatu du Bubisherrek, Saharara bidaltzeko

Bubisher elkartetik 300 maleta prestatu gura dituzte, oro har, neguko arropa lehenetsiz: txamarrak, jertseak, zapatilak... Horrez gain, COVID-19aren aurkako materiala ere jaso gura dute: gelak, eskularruak, paracetamol eta askotariko maskarak. Materiala emateko harremanetan jartzea eskatu dute, 602 14 88 19 telefonora deituta.

'Agur, Etxebeste!' ikusteko aukera gaur, eskolako patioan

Uztailean eta abuztuan zehar antolatutako kultur ekintza ezberdinen zikloari amaiera emateko, aire libreko azken bi zinema emanaldiak egingo dituzte. Gaur arratsaldean, 21:45ean, *Agur, Etxebeste!* filma ikusteko aukera egongo da. Sarrerak 3 eurotan eskura daitezke www.labur.eus/SarrerakAntzuola webgunean edota udaletxean.

Eskola presentzialei eustea da apustua

127 ikaslerekin ekingo diote ikasturte berriari Elgetako Herri Eskolan, astelehenean. Antolaketa lan handia eskatu du protokoloek jasotako neurriak ezartzeak. "Denon artean egingo diogu aurre ikasturte honi", adierazi dute zuzendaritzatik

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Gurasoendako ezohiko bi informazio bilera egin ditu eskolak; izan ere, eguneroko funtzionamenduan aldaketa handiak ekarriko ditu 2020-2021 ikasturteak. Garbiketa eta distantzia neurri bereziak, bizikidetzat talde egonkorretan funtzionatzea, eskola barruko zirkulazio neurriak, sarrera-irteera mailakatuak, jolastorduen berrantolaketa... "Eskola presentzialekin hasiko dugu ikasturtea, eta horiei eustea da apustua. Ezinbestekoa izango da denon inplikazioa. Familia guztien beharra dugu", azpimarratu du Libe Inurrigarro zuzendariak. Kutsatze arriskua gutxitzeko, hezkuntza komunitate osoak oso adi egon beharko du COVID-19arekin lotutako edozein sintomaren aurrean. "Denon ardura da", esan dute zuzendaritzatik. Ikastetxeak ohiko ordutegia izango du, eta jangela zerbitzua ere bai. Ikasle nagusiak -LH 3-4-5-6- hamar minutu lehenago sartu eta irtingo dira eskolatik, egunero. Espazio faltarik ez dagoela adierazi dute ikastetxetik. Horren harira, Eudelek erabilgarri duden espazio publikoen zerrenda

udalei bidaltzeko egindako eskaerarekin lotuta, Iraitz Lazkano alkateak adierazi du harremanetan daudela eskola eta Udala, eta eskolak baduela zerrenda hori. "Ez dakit bidaliko dugun. Ez diogu zentzurik ikusten Eudelera Elgetako espazio publiko erabilgarrien zerrenda bidaltzeari Eudeletik gero eskolara bidaltzeko, gu eskolarekin harremanetan gaude eta. Garbi dago, gainera, eskolan ez dagoela espazio faltarik. Arazoa personal falta da".

Guraso elkartearen eskaintza
Maala guraso elkarteari dagokionez, bertan behera utzi ditu, oraingoz, goizeko zaintza zerbitzua zein ingelesa eta robotika ikastaroak. "Eskolako instalazioak erabiltzen dira, eta desinfektatu egin beharko lirarteke. Zaintza gelaren kasuan, ez dago garbiketa lan horiek egiteko

POSITIBORIK BALEGO, ERREFERENTZIAZKO OSASUN ZENTROAK ERABAKIKO LUKE ZEIN NEURRI HARTU

denborarik. Bestetik, talde egonkorra hautsi egiten dira jardura horietan guztietan", azaldu dute. Abenduan aztertuko dute egoera berriz.

Haur eskola, zabalik

Lau neska-mutikorekin ekin diote ikasturte berriari haur eskolan. Bi hezitzaile daude, eta gaur hasi dira haurrak egokitzapenarekin. Zerbitzu horretan ere hainbat dira protokoloak ezartzen dituen segurtasun eta higiene neurriak.


Besteak beste, sarrera guztietan tenperatura hartuko zaie bai haurrei, bai haiekin datozen helduei, familiekin astean bitan sinatu beharko dute ondo eta sintomarik gabe doazela egiaztatzen duen idatzia, hezitzaileak FFP2 maskarekin egongo dira haur eskolan, haurrei banaka emango zaie bazkaria eta umeek zein helduek bi orduan behin garbitu beharko dituzte eskuak. Horiek, beste askoren artean.

Positiborik antzemanen gero nola jokatu behar duten galde-tuta, hezitzaileek adierazi dute ez dutela oraingoz horren inguruko informaziorik jaso. "Sukarra duen umeren bat detektatu gero, besteengandik banandu behar dugu. Hezitzaile bat egongo da berarekin, familia bila etorri bitartean. Hori da, oraingoz, azaldu digutena".

Hezkuntza eta kirol zerbitzuak

Ludoteka, gazteleku eta kirol zerbitzu eskaintzekin zer gertatuko den galdetuta, alkateak azaldu du badihardutela gaia lantzen. "Hezkuntzarekin lotutako zerbitzuei dagokionez, asmoa da eskolak jarraituko duen protokoloa kontuan hartzea, batera joateko. Protokoloak aztertu eta idatzi behar ditugu egoerara egokituak izan daitezzen. Guztiz ezohiko ikasturte hasiera izango da honako hau".

GOGOAN



Uztailaren 31n trukaturako irudiak, Jone Besaidetik gora eta Joseba Aubisquen. J.M.

Joseba Muxika Sarasketa

JONE MUXIKA SARASKETA

ARREBA BIKIA

Eskerrik asko bizitza honetan erakutsi diguzun guztiagatik. Bi jaiotze ginen, batera. Bakoitza bere ezaugarriekin, etxeko oreka mantentzeko. Batak ez duena besteak zuen barru barrutik biok bat izan arren.

Txikitari nik ekin nion oinez lehenik, eta zuk segituan. Aulkitik aulkira ibiltzen ginen lehen pausoak ematen. Gero, bizitzan, zu gure bastoi gidari izan zara. Beti gorantz eta aurrera, oztopo guztiak gaindituz. Orain ikasi beharko dugu berriz oinez egiten. Jaiotza berri bat, zu gabe.

Familia eder bat sortu duzu Amaia Agirrerekin batera. Iker eta Izaro, bi ume zoragarri. Zure zatitxo dira guretzat, eta ni beraiantzat zure zatitxo. Eskerrik asko beti bidea egiten lagundu izanagatik. Bizitzan hain zaila den bide hori erabakitzen.

Orain, zoritxarrez, beste bide bat hartu duzu. Bat-batean, bateron batek interruptora jo du, eta zuk nahi barik atea zabaldu. Orain gutxi biok egon ginen amarekin batera berari ate hori

pasatzen laguntzen. Zeinek esan! Zergatik?

Ama hil berritan zuk esandako hitzak ez zaizkit ahaztuko: "Aurrera egin behar da, eta jendearekin egon. Baina joan beti zer edo zer aportatzeko, ez joan zurearekin bakarrik". Horrela-koa zinen. Denendako eta danerako. Ez zenuen mugarik.

Ikusi ez arren beti gurekin egongo zara eguneroko gauzetan guk ate hori pasa arte. Ezin sinistu baina gauza txikitari topatuko zaitugu zure indar eta kemen hori faltan izango dugulako.

Nor bere aldetik, baina uztailaren 31n ere bizikletan izan ginen biok. Gailur desberdinetan baina paraje ederrak konpartitu genituen. Topatuko zaitut hor goietan, gailur guztietan. Kuku bat egingo dizut. Egon adi, Joseba.

Aita Jose Mari eta biok zure bihotzean gaude amarekin batera. Laster arte. Segi izaten argia amarekin batera, eta bidali argi hori guri.

Joseba eta amatxo maittiak, betira arte.

Baserritarren azokarako izen ematea, zabalik

Uztailean iragarri zuen Udalak eta irailaren 19rako ipini zuten. Azoka egiteko asmoa badaukagu", berretsi du Iraitz Lazkano alkateak. "Protokoloak jarriko ditugu, postuetan baldintza batzuk bete beharko dira, eta zirkuituekin-edo antolatu beharko dugu azoka, dena ahalik eta txukunen joateko eta distantziak eta beste errespetatzeko". Azo-

katik kanpoko ekintzekin zer egin aztertzen dihardutela onartu du. "Mendi lasterketa egitea nekeza ikusten dut. Azoka osteko baserritarren bazkaria ere ezingo da egin. Saiatu behar dugu jende pilaketak saihesten".

Azokan mahaia ipintzeko izen-emateari dagokionez, interesatuek hilaren 17rako jakinarazi behar dute udaletxean. Behar den mahai kopurua jakiteko eta mahai horien kokapena erabakiko duen zozketa egiteko garrantzitsua da.



Eskolako sarrera, desinfekzio produktuekin eta segurtasun norabideekin prest. L.Z.L.

Ikasturtea presentziala izango den nahiarekin

Jende pilaketak saihesteko eta espazio gehiago izateko, ikastetxe inguruetan dauden aparkalekuak kendu egingo dituzte astelehenetik aurrera eta herriko hainbat espazio publiko erabilgarri egongo dira jolastordurako edo eskolak emateko

Oihana Elortza OÑATI

Aurreko ikasturtean hasi ziren datorrena prestatzen Oñatiko hiru ikastetxeetan. Momentuko protokolora eta agindu eta gomendioetara egokitu dituzte lehengo lanketak, eta datorren astetik aurrera ikasleak hartzeko prest dute dena. Presentzialak izango dira eskolak ikasturte hasieran, eta ikasturte osoan horrela izatea da hiru ikastetxeen nahia. Horretarako prest daude eta horrek izango du lehentasuna, baina eskolak etxetik telematikoki jarraitu beharra tokatu daitekeela ahaztu barik.

Aparkalekuak oinezkoendako

DBHra artekoak 21ean hasiko dira goiz eta arratsalde eskolan, eta, hain zuzen ere, sartu-irteneko ordutegia malguagoa izango da aurreko ikastetxeetan. Ordu laurden lehenago sartzen eta ateratzen hasiz eta bost minutuko tartekak gordeta txandaka egingez, esaterako.

Izan ere, jende pilaketa da, ikastetxeetan ere, saihestu gura den puntuetako bat. Eta, horri lotuta, Udalarekin batera, ikastetxe kanpoaldeko aparkalekuak kendu egingo dituzte datorren astelehenetik aurrera. "Ikastetxe bakoitzaren ondoan dauden

aparkalekuak kendu edo errepedeko erre bat oinezko bihurtuko da irailaren 7tik 25era, mugikortasun ekintzen barruan. Modu horretara, sartu-irtenetan sortzen diren jende pilaketak ekidin gura dira. Toki horiek oinezkoendako izango dira 24 orduz epe horretan. Epea pasatutakoan bilera bat eta balantze bat egingo dugu guztion artean, horrela jarraitu edo zerbait aldatu behar edo ahal den ikusteko eta erabakitzeko", dio Alaitz Kortabarriak, Hezkuntza zinegotziak.

Kaleko espazioetan eskolak

Horrez gain, kaleko hainbat espazio ikasgela bihurtzeko azterketa ere egin dute Udalak eta hiru ikastetxeek. Kortabarriak baieztatu duenez, ikastetxe bakoitzak bere inguruan dauden kanpoko espazio zabalak erabili ahal izango ditu jolastordurako edo edozein eskola emateko; betiere, beste gela batekoekin elkartu barik. Gune horiek identifikatuta dituzte, eta beharra dutenean erabiliko dira.

Bestalde, ume bakoitzak bere materiala –margoak, errotula-



Ume bat eskolako motxila prestatzen. O.E.

Gaztelekua eta Larraña

Eudelek udalei eskatu die bidaltzeko erabilgarri dauden espazio publikoen zerrenda. Udalak gaztelekua apuntatu du zerrenda horretan, espazio gehiagoren beharra herriko zein ikastetxe eduki dezakeen aztertuz eta eurekin berba eginaz. Gaztelekua hezkuntzarako erabiltzea tokatuz gero, baina, ohiko zerbitzua ahalik eta gutxien

eteteke moduan erabiliko litzakete. Baina udal eraikinak ez ezik, beste erakunde batzuetakoak direnak ere sartu ditu zerrenda horretan, Larraña eta Artxiboa, esaterako, hango gela batzuk ere erabiltzeko moduan egon daitezkeen edo ez aztertu dezan Hezkuntza Sailak. Espazio berrien gaia joan den ikasturtean hasi ziren lantzen Udala eta herriko ikastetxeak.

Horrez gain, Udalak mugikortasun aktiboa bultzatuko du eta DBH mailako eraikinen ondoan bizikletendako aparkaleku estaliak egingo ditu; prozedura martxan dago dagoeneko. Bestalde, eskolak etxetik online jarraitu beharra tokatuz gero, Udalak berriz banatuko ditu SIM txartelak Izarkom kooperatibaren laguntzarekin, herriko ikasle guztiek eskolak telematikoki jarraitu ahal dezaten.

doreak, orriak... eramateko gomendioa egingo dute ikastetxeek, eta gela gehienetan, adinaren arabera, banaka eseriko dira. Eraikin barruan dituzten espazioen erabilera ezberdina da batean edo bestean; liburutegiaren kasuan, esaterako, erabilgarri egongo da toki batzuetan, baina gela bakoitzeko liburutegia material gehiagorekin hornitu dute beste batzuetan eta liburutegia ez dute erabiliko. Jangeletan ere moldaketak egin dituzte denetan, espazioari edo

ordutegiari begiratuta. Garraioa, aldiz, berdina izango da; han ere maskara eraman beharko dute ikasleek. Eskolaz kanpoko ekintzarik ez da egongo ikastetxeetan. Ikasle gazteenei lotuta dagoen Eskola Kirola zerbitzua ez da egongo aurrean; ez dute, behintzat, ohiko moduan eskainiko.

Gela barruan ikasleen artean kasu positibo bat atzemanaz gero nola jokatu ere jasota dute ikastetxeek euren kontingentzia planetan.




ULMA C y E, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko prentziak neurriak hartuz, 40. artikuluan ezarritzen duenaren arabera, ULMA C y E, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko uztailaren 28ko bilan, erabaki du Ohiko Batzar Nagusia deitzea eta hile telematikoki egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 16a
Ordua: 11:30an lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena
Tokia: Bideokonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTIAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.2 2019ko ekitaldiko urteko kontu bostatutak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.3 2019ko ekitaldiko informazio ez-finantzario bateratua epea aztertu eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
 - 7.1 2019ko ekitaldiko emaitzak banatzea
 - 7.2 Herondatetako Erreserba Fondotik banatzea
8. POGU III-KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
9. POGU III-KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.BI ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetarik eginikako erabilera buruzko deskargua
 - 12.2 2020an IPDK-ko zerebatuek aplikatutako proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jardueraren sozialaren ikuspegi azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. ZANTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEEN AGINTALDIAREN LUZAPENA BERRESTEA
16. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
17. AHALMENAK ESQUORDETZEA
18. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzidei jazarritako rala Kooperatibaren egoera eta interesen erabilerari buruzko deskargua, informazio ez-finantzarioaren egoera berria, erabaki aplikatutako proposamena eta besteak beste buruzko informazioa egindako proiektuak, Batzar Nagusiaren deialdiaren egunak, erabakiak, erabakiak, bazkide guztien jantziaren zerebatuen zerebatuen eta interesen buruzko informazioa, estatutua eta POGU III. proposatutako aldatutako testu osoa eta aldatutako berriak jantziaren buruzko informazioa, eta besteak beste dagoeneko edo bultzatuko diren deialdiak. Batzidei, batzidei jantziaren zerebatuen zerebatuen zerebatuen buruzko informazioa bat egiteko deialdi berriak ematen dira, eta batzidei aldatutako, estatutua eta berriak jantziaren zerebatuen zerebatuen deialdi berriak ematen dira Ohiko Batzar Nagusiari begira.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko irailaren 16

Ikuskizunak asteburueta pasatzea aztertuko dute

Datorren martitzenean, irailak 8, da hurrengo bilera irekia herriko jai nagusietan zer egin zehazteko. Normalean egun gutxitan pilatzen diren ekintzak edo ikuskizunak urriko asteburueta zehar egitea izango da Udalaren proposamenetako bat

Oihana Elortza OÑATI

Jende-pilaketak saihestea ezinezkoa dela argudiatuta, Udalak sanmigeletako hainbat jarduera eta ekitaldi bertan behera uzteko erabakia hartuta du hainbat eragileekin batera. Aurten ez dira Herri Eguna, Erroaia Bixamona, haur zein helduen danborradak, kalejirak eta sokamuturrak egingo. Zer egingo den zehazteko hurrengo bilera martitzenerako deitu dute; herriko eragileekin eta norbana-koekin egin gura duten bilera irekia izango da, 18:00etan, zinema aretoan.



Txantxiaren jaitsiera. GOIENA

Taldean zerrenda osatu

Eta bilera horretan hasiko dira Oñatin antolatu ahal diren ikuskizunen zerrenda egiten. Izan ere, kultura ekitaldiak antolatzeko gogoia badu Udalak, eta herriko eragileekin batera adostu gura du nola, zer eta noiz egin hori. "Irailaren 28tik Erroaia Bixamona eguna bitartean

pilatzen dira ekitaldiak, normalean, baina iraileko asteburueta ere egoten dira gauzak. Aurten jairik ez dago, baina proposamen bat izan daiteke urriko asteburueta ere gauzak antolatzea. Kultura agenda eskaintzea izan-

go da gure lana eta guztien artean erabaki dezakegu zein antzerki edo musika talde ekarri edo bestelako zein ekintza egin, berme guztiarekin eta beharrezko diren segurtasun-neurri guztiak hartuta", dio Kultura zinegotziak.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

'0 km'-ko oporraldia

Zorioneko birusak makina bat aldaketa ekarri digu: maskararekin ibili beharra, harreman sozialak murriztea, komertzioetan sartzeko txanda gordetzea, tabernetan jarrita kontsumitu beharra... Aldaketa eta moldaketa horien artean oporrak iritsi zitzaizkigun, eta orain horien balantzea egiteko ordua. Duela urte batzuk, beno, iaz, urrutirago joan gabe, esan izan balidate oporrak herrian pasako nituela, ez nuen sinetsiko. Aurten hain modan dagoen 0 km kontzeptua oporrei lotu diegu. Bai, egia da, hurbileko eremu hori urte osoan dugu eskura, baina aurten horrela tokatu da.

Eta guk bezala, beste askok ere aukera bera egin dutelakoan nago, hori baieztatu ahal izan baitugu egin ditugun ibilaldietan. Galdetu bestela arazotarrei. Harritzekoa zenbat jende ibili den inguru horretan; askotan, bertakoenganako errespetu handiegirik gabe, gainera.

Egia esan, egindako aukera horren damurik ez dut, bertan ere inora joan gabe opor ederrak pasa ditugu, eta atsedean hartzeko aukera aparta izan da.

Magia, musika eta monologia Atzeko kalean zapatuan

Atzeko kaleko jai batzordeak antolatuta, kultura ekitaldiak egongo dira zapatuan Kalegoien jarri duten oholtzan. Potx magoa izango da gora igotzen lehena, 17:00etan; 18:15ean, Oñatiko dultzainero taldeak joko du; 19:15ean, Nahia Herraizen eta Julen Muruaren kontzertua egongo da; eta 20:30ean, Antton Telleriaren monologia.

Auzoko jaiak ezin antolatu dituztelako pena dute batzordekoek, baina osasuna lehenetsita eta "kulturak eta osasunak bat egin" dezaketela sinetsita antolatu dute egitaraua. Ez da txosnarik egongo eta ezingo da edaririk sartu. Sarrerak Txokola-teixan hartu beharko dira.

Uda aurretik ere egin dituzte jaien inguruko bilerak Udaleko eta talde eragileetako ordezkariak, eta jaietan egingarri diren hainbat jarduera identifikatu dituzte. Orain, horri guztiari forma eman eta proposamen berriak aztertu eta zerrenda osatzen hasiko dira. Jai nagusien harira, dena den, aurten jaietako egitarauaren liburuxkarik egongo ez dela aitortu du Udalak, eta antolatzen diren ekitaldiak beste euskarri batzuen bidez emango dituztela jakinarazi.

Esk-ltu-ra

Bestalde, azken hiru hilabeteetarako antolatu diren ekitaldiek osatu duten Esk-ltu-ra programaren balorazio baikorra egin du Kultura zinegotziak. "Ikusi da artistek bazutela euren lana erakusteko gogoia, lanerako beharra; asko eskertu dute ekitaldiak antolatu izana. Bestalde, herri-tarrek ere ondo erantzun dute. Hor ere ikusi da gustura ondo hartu dutela kultura ekitaldiak antolatzea. Oso gustura gaude emaitzarekin, bai".

ULMA

BATZAR NAGUSIA AGASILEA GENERAL 20

ULMA Forja, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inguruko ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritzen direnaren arabera, ULMA Forja, S Coop-eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko uztailaren 27ko bilera, erabaki da Oñati Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 14a

Ordua: 8:30ean lehenengo deialdian eta 9:00etan bigarrenean

Tokia: Bidekonferentzia sistema bidez

GAI ZERREDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTIA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko ekitaldioko banakako urteko kontuak aztertzea, eta onartzea, hala badagokio
 - 4.2 2019ko ekitaldioko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta onartzea, hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
 - 7.1 2019ko ekitaldioko emaitzak banatzea
 - 7.2 Borondateko Erreserba Fondoko banatzea
8. POGU III KO III. IDAZPURUAREN 2.3.1, 2.3.2.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISOROKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
9. POGU III KO II. IDAZPURUAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURUAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIE
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.BI ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIE, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI EUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetatik egindako erabileriari buruzko deialdiana
 - 12.2 2020an IPDK-ko zenbaterako aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jardueren sozialaren aldean azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
15. ZABINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
16. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
17. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
18. AHALMENAK ESKUORDETZEA
19. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Batzaren proposamena zuzen kooperatibaren egitasun erabakia dela eta, ez duela erabakirik, erabakirik aplikatzeko proposamena eta kontuan hartu behar diren beste erabakirik. Batzar Nagusiaren deialdian erabakirik ez dagoen erabakirik, batzaren bidez erabakirik ez dagoen erabakirik, erabakirik aplikatzeko proposamena eta kontuan hartu behar diren beste erabakirik. Batzaren bidez erabakirik ez dagoen erabakirik, erabakirik aplikatzeko proposamena eta kontuan hartu behar diren beste erabakirik. Batzaren bidez erabakirik ez dagoen erabakirik, erabakirik aplikatzeko proposamena eta kontuan hartu behar diren beste erabakirik.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko abuztuaren 31a



Danel Casais, Aimar Erostarbe eta Unai Cueva, eguazten arratsaldean Oñatin. O.E.

Euskadirekin arituko dira asteburuan Mallorcan

Espainiako txapelketak jokatu dira han gaurtik domekara bitartean, eta Aloña Mendiko hiru txirrindularik gazte mailakoan hartuko dute parte, Euskadiko selekzioarekin. Gaur dute erlojupekoa eta domekan 135 kilometroko lasterketa

Oihana Elortza OÑATI

Hamar txirrindularik hartuko dute parte Euskadiko taldean asteburuan Mallorcan jokatu den Espainiako gazte mailako txapelketan, eta horietatik hiru dira oñatiarrak: Aimar Erostarbe, Unai Cueva eta Danel Casais.

Zirkuituari lau bira

Asteburuaz eta aukeraz disfrutatzen joan dira hirurak, eta lasterketan ahalik eta ondoen aritzera. Eguaztenean bidali zituzten bizikletak eta eguen arratsaldean joan ziren eurak, gainerako taldekideekin batera, hegazkinez, Bilbotik Mallorcara.

Domekan dute lasterketa: 135 kilometroko lasterketa, lau bira 33 kilometroko pasatxoko zirkuituari. "Astia izango dugu ibilbidea ezagutzeko, probatzeko eta entrenatzeko. Domekan 11:00etan hasiko da lasterketa. Eguraldi iragarpena begiratu dugu eta badirudi ona egingo duela, 25 gradutik gora. Tenperatura ona da hori. Ea ondo

aritzen garen", adierazi du Danel Casais Mallorcara joan bezperan, asteburu lagunak egiteko ere aprobetxatuko dutela gaineratuz.

Abuztuan Villatuertako (Nafarroa) lasterketa irabazi zuen Casais; tropeletik ihes egin eta 35 kilometro bakarrik egin da sartu ten helmugan. "Pozik garaipenarekin, bai".

Unai Cueva eta Aimar Erostarbe ere abuztuan irabazitako esperientziarekin abiatu dira. Gipuzkoako txapelketan izan ziren biak Euskadirekin. "Zapatuan ikusiko dugu zirkuitua, bihurtune txarrak, aldapak eta antzerakoak ezagutzeko. Eta domekan, lasterketa. Asteburu berezia izango da", dio Cuevak.

ABUZTUKO LASTERKETETAN ONDO ARITU DIRA ULMA TALDEKO HIRU TXIRRINDULARIAK

Erostarbek Europako txapelketan ere hartu du parte udan honetan. "Errori egin nintzen eta ez nuen lasterketa amaitu, baina esperientzia hor dago, bai. Horrelakoak beti dira onak, jende ezberdina duzu alboan, taldekideak beste batzuk dira, baina elkarrekin aritzen gara, eta ona da hori".

Aimar Erostarbek domekako lasterketan ez ezik gaur, egubakoitza, arratsaldean izango den erlojupekoan ere parte hartuko du Euskadiko maillotarekin.

Gogoz joan dira

Konfinamenduaren ostean atzeratu egin dira lasterketa asko, eta, bitartean, etxe inguruan ibili dira entrenatzen bertako txirrindulariak. Gogoz hartu dituzte antolatutako lasterketak eta maila ona erakutsi dute parte hartu dutenetan; hala, ilusio eta gogo horrekin abiatu dira Mallorcara ere. Domeka gauean iritsiko dira denak Bilboko aireportura.

Fitness ikastaroak ezagutzeko aukera dago datorren astean

Fitness ikastaroen eskaintza ezagutzeko eta probatzeko aukera egongo da datorren astean Zubikoa kiroldegian eta Urgainen. Izan ere, ikastaroetako batzuk Urgainen izango dira ikasturte berrian.

Fitbike, pilates, body tonu, body balance, zumba eta gimnasia egokitua dira, besteak beste, eskainiko diren ikastaroetako

batzuk; gehienak, gainera, maila ezberdinetan.

Datorren astean da ate irekien jardunaldia –egunean salbu, jaieguna da eta–. Izena online eman daiteke, udal webgunean, edo kiroldegian dituzten inprimakiak beteta. Hain zuzen, irailaren 14an hasiko da ikasturtea eta bakoitzak bere esterilla, toalla bat eta hidratatzeko ontzi bat eramatea gomendatzen du Udaleko Kirol Sailak. Urgainen ez dago aldagaririk eta dutxa zerbitzurik.

ULMA Packaging, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela-eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege dekretuak, COVID-19aren inguruko ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriak buruzkoak, 40. artikuluan ezarritako deneraren arabera, ULMA Packaging, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko irailaren 17ko bilan, erabaki du Ohiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 15a

Ordua: 15:30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena

Tokia: Bidekoferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDIA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR IBONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ETA 2020KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
 - 4.1 2019ko ekitaldiako banakako urteko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2 2019ko ekitaldiako urteko kontu batezkoak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.3 2019ko ekitaldiako informazio ez-fianztario bateratzearen egoera aztertu eta, hala badagokio, onartzea
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA, 2019KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA
8. POGU III-KO III. IDAZPURIAREN 2.3.1, 2.3.2, 2.3.2.3, 2.3.4.2, 2.3.5.1 ETA 2.4.2.3 ATALAK, SUSTAPEN FUNTSA ETA DIBISIOKO HEDAPEN FUNTSARI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
9. POGU III-KO II. IDAZPURIAREN 1.3.2 ATALA ETA III. IDAZPURIAREN 2.3.5.2 ATALA "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA"-RI BURUZKOAK, ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
10. ESTATUTU SOZIALEN 17.BAT. A), 21.C), 22. HIRU ETA 35.III ARTIKULUAK ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, BAZKIDE KOLEKTIBO GUZTIEN ARTEAN EGUN DAUDEN OREKEI FUSTEKO
11. ESTATUTU SOZIALEN 34. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUAN SARTZEKO
12. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
 - 12.1 2019an IPDKetarik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 12.2 2020an IPDK ko zehazteko aplikatzeko proposamena
 - 12.3 ULMAren 2020ko jardueraren sozialaren ikidun azalpena
13. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
14. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDETZEA
17. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkide gogoratuta zirelako Kooperatibaren egoera, eta antzerkizko erabilerari buruzko informazio ez-fianztarioaren egoera berriak, erabakiak erabakitzeko proposamena eta kontuak kargu fiskalari buruzkoak gaurko bilan, Batzar Nagusiaren deialdiaren eguna, erabakiaren ahal izan diren baldintzak, bazkide guztiak jakinarazten zirelako Kooperatibaren egoera eta antzerkizko erabilerari buruzko informazioa eta POGU IIIa proposatutako aldatutako tratamenduak eta aldatutako beren justifikazio berriak, eta beste denak denak erabakitzeko erabakitzeko Batzar Nagusiaren, bazkideen jakinarazten zirelako Kooperatibaren Kontseilu Errektoreak konfiantza bat izan dela deialdi honen inguruko giza, sozial eta erabakitzeko erabakia, antzerkizko erabakia eta besteak beste erabakitzeko erabakia Ohiko Batzar Nagusiaren bidez.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko irailaren 2a

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Portutik ikusi beharko dute Kontxako Bandera

ARRAUNA Nerea Agirrezabalek eta Eider Altubek, taldekideekin batera, Donostiako portutik jarraitu beharko dute aurtengo Kontxako Bandera. Eguaztenean euren traineruek ez zuten sailkapen fase zorrotza gainditu; San Juanek eman zuen ezustea

Xabier Urzelai ARRASATE
Nerea Agirrezabal bergararra eta Eider Altube arrasatearra ez dira arraunera iritsi berriak. Altubek, esaterako, lautan hartu du esku Kontxako Bandera-ko sailkapen fasean, baina

oraindik ez dakite finalean egotea zer den. Eta aurtengo edizioa ere lurretik jarraitu beharko dute, eta ez itsasotik. Sailkatzea ez da erraza: traine-ru asko eta finalerako txartel gutxi.

Hala, datozen bi asteotan zortzi traineru izango dira Donostian zein baino zein gehiago, baina donostiarrek, etxeokoa direnez, postu finkoa dute. Beste lau txartel ia segurua zen Euskotren ligako traineruendako izango zela, eta halaxe gertatu da. Horrenbestez, bizpahiru txartel geratzen dira zortzi traineruen artean banatzeko, eta oraingoan, San Juanek eman du ezustea, seigarren denbora onena eginda. Hala, eguaztenean Orio izan zen onena (11.08.82), eta Tolosaldea (8.82 segundora), Arraun Lagunak (12.26ra), Zumaia (19.34ra), Hondarribia (19.70era), San Juan (24.70era) eta Hibaika (29.14ra) traineruek lortu zuten finalerako txartela. Nerea Agirrezabalen Ondarroa Cikautxo atarian geratu zen, sei segundogatik ez ziren sailkatu -zortzigarren-, eta horiek hartu zuten pena handiena, gertu egon ziren eta. Castron bandera irabaztetik zetozen, eta, nahiz eta dena ondo egin behar-



Ondarroa Cikautxo taldeko neskek, eguazteneko sailkapen fasean. YOUTUBE

'Garai berriak' ekarri gura ditu Manu Diazen plataformak

FUTBOLA Gipuzkoako Federazioaren zuzendaritzan erreleboa hartu gura du gaur aurkeztu duten taldeak

Xabier Urzelai ARRASATE
Gipuzkoako Futbol Federazioak aire berritua behar duela sinistuta aurkeztu dute gaur, egubakoitza, plataforma berria Donostiako Aquiriumean.

Garai berriak da plataforma berriaren leloa, eta azken urteotan Bergarako kirol zuzendari izan den Manu Diaz da talde barruan presidente izateko hautagaia. "Taldea polita osatu dugu, baina ez dago erabat itxita, orain momentuan hogeitabat lagun izango gara eta horrekin %80 inguru dugu osatuta;

gustura hartuko genuke jende berria, eta emakumezkoak babilira, hobeto", adierazi dio Manu Diazek GOIENARI.

Bergarakoaren esanetan, plataforma berriaren helburua da klubak eta jokalariek Federazioaren lehentasunen artean egotea: "Plataforma osatu dugu Gipuzkoako klub askotako ordezkariekin, Hirugarren Mailan dauden klub gehienetako ordezkariekin hasi eta baita Ohorezko Erregional Mailako ordezkariekin ere. Hala, egungo zuzendaritzako buruak, Juan Luis



Manu Diaz. GOIENA

Larreak, 32 urtez dihardu Gipuzkoako Futbol Federazioa zuzentzen, eta uste dugu denbora larregi dela. Imajinatu beste edozein erakundetako zuzendaritzan hiru hamarkadatan jende berbera egongo balitz zer esan-


Debagoieneko arraunlariak:



NEREA AGIRREZABAL
ONDARROA CIKAUTXO TALDEKOA

"Urte hasieran sinatuko nuen denboraldi hau"

"Ondarroako Arraun talde moduan egin dugun bigarren denboraldia izan da. Eta, Bizkaiko txapeldun izatearekin batera, aurreko astean Castroko Bandera irabaztea lortu genuen. Lorpen handiak dira horiek guretako, baina Kontxako Banderara begira hankak lurrean genituen guk. Donostiarrak sailkatuta zegoen, eta beste lau talde goragoko mailakoak dira. Tolosa ere bagenekien sailkatuko zela; horrenbestez, hainbat talde geunden postu gutxi batzuetarako".



EIDER ALTUBE
ISUNTZA ELECNOR TALDEKOA

"Esperantza gutxi geneukan sailkatzeko"

"Ligan ez dugu gure onena eman, eta esperantza gutxi nuen Kontxara begira, nahiz eta ilusio handiarekin egon. Eta hori, normalean, Kontxako Banderan gure onena eman izan dugula. Bada, lan txukuna egin genuen estropadako hiru laurdenetan, baina patroia aldatu behar izan dugu, aurten gurekin ibili dena gazteegia delako Kontxan parte hartzeko, eta iaizko patroiak apenas egin ditu bi entrenamendu saio gurekin. Orain, atseden hartzeko ordua da, uda gorabeheratsua izan da eta".

ko zutela jakin, sailkatzeko aukerak zituzten. Eider Altuberen traineru lekeitiarrak, berriz, hankak lurrean zituen. Ligan ez dute denboraldi hasieran aurreikusitako maila eman eta azken

orduko aldaketek ez diete onik egin. Talde beteteranoa dute, eta datorren urtean gaztetasuna iritsiko da lehen trainerura. Kontxatik kanpo geratuta, atseden hartzeko ordua da orain.

go genukeen; bada, Federazioan berdin, erreleboa behar dute. Gipuzkoako Futbol Federazioak aire freskoa behar duela pentsatuta hausnarketa prozesua hasi genuen, eta taldea aurkeztea erabaki dugu".

Federazio irekia

Aurreratu moduan, futbol jokalarien eta klubuen interesak defendatuko duen Federazioaren aldeko apustua egitea da asmoa, eta "Federazio ireki" baten alde egin gura dute: "Berez, urriaren 31rako egon beharko litzateke eratuta hauteskundeak deituko dituen asanblada, baina, zergatia ez dakigun arren, prozesua oso atzeratuta dagoela uste dugu. Behin asanblada eratuta, hauteskundeak, berandu jota, azaroan edo abenduan egin beharko genituzke".

AUTOMOBILISMOA

Aramaioko ralliesprintak, aurrera

Hainbat hilabetez lasterketa barik egon eta gero, abuztuan itzuli zen motor hotsa Gipuzkoako errepedeetara, Euskadiko Mendiko Sariko lasterketa jokatuta zuten-eta Aian. Ikuskizun ederra izan zen, gainera, maila oso altuko auto eta pilotuak batu ziren bertan, lasterketa faltan asko animatu ziren-eta Aiako proban esku hartzera.

Horretarako, antolatzaileek neurri zorrotzak bete behar izan zituzten, eta Aramaioko ralliesprinteko antolatzaileak ere prest daude neurri horiek betetzeko. Irailaren 12an izango da Aramaioko hitzordua, eta urteko bigarren ralliesprint proba izango da.

Ibarrean ere Behobia gosez geratuko dira asko

ATLETISMOA Behobia-Donostia lasterketa antolatzen duen Fortuna Elkarteak astean eman du aditzera aurten ez dutela lasterketa egingo. Iaz Debagoieneko azkarrenak izan ziren Endika Donnayekin eta Saioa Arkonadarekin izan da GOIENA

T. Madina / X. Urzelai ARRASATE

Iaz, Debagoieneko 270 korrikalarik lortu zuten Behobia-Donostia lasterketako helmuga zeharkatzea, baina aurten ez dute halakorik egiterik izango. Fortuna elkarteak bertan behera utzi du lasterketa, baina aste barruko albisteak ez du inor ezustean harrapatu, bistan zegoen-eta COVID-19aren aurkako segurtasun neurriak errespetatzea zaila izango zela horrenbeste jende pilatzen den lasterketan. Lasterketa askotako antolatzaileek erabaki berbera hartu dute, eta, bereziki, Behobia-Donostiak jende asko batzen du, bai korrikalariak, baina baita ikusleak ere. Hala, GOIENA iazko debagoiendar azkarrenekin egon da. Donnayk 1.06ko denbora egin zuen eta Arkonadak 1.20an geratu zuen erlojua.

Eta orain, zer?

Aurtengo dortsala ordainduta zutenendako hiru aukera jarri ditu Fortunak: inskripzioa 2021eko edo 2022rako gordetzea; izen-ematearen dirua bueltan jasotzea; edo izen-ematearen kopuru osoa edo zati bat dohaintzan ematea Fortuna Elkarteari. Jakin, baina, aurrera jarraitzen duela azaroren 2tik 8ra egingo duten Behobia Birtuala.



Donnay arrasatearra —elastiko berdez—, iaz. GOIENA

Iazko ibarreko azkarrenen iritzia:



ENDIKA DONNAY
ARRASATE

"Ezinezkoa da egoten den publikoa kontrolatzea"

"Iralera arte itxaroren nenbilen aurtengo Behobia-Donostia lasterketan egon ala ez erabakitzeko, eta aurreikusten genuena gertatu da, bertan behera utzi dutela. Gainera, erabaki zuzena dela uste dut. Nahiz eta lasterkari kopurua erdira murriztuta ere, milaka lagunek hartuko zuketean esku proban, eta ez hori bakarrik, errepide bazterrean ere milaka eta milaka lagun batzen dira lasterkariak animatzeko. Eta ez dago antolatzaile hori kontrolpean mantentzeko gaitasuna duenik".



SAIOA ARKONADA
OÑATI

"Zail ikusten nuen neurriak errespetatzea"

"Aurreikustekoa zen lasterketa bertan behera utziko zutela, gainontzeko lasterketekin gertatu den moduan. Pena da, lasterketa bat gutxiago aurtengo denboraldirako, eta normaltasunera bueltatzea kostatu egingo den seinale. Uste dut ondo hartutako erabakia dela, ahalegin handia egiten gabilta denok segurtasun eta osasun neurriak errespetatzen, eta Behobia-Donostian batzen den jendetzarekin ez nuen bideragarri ikusten neurri horiek errespetatzea".

Bailarakoak ere kolokan

Debagoienean egitekoak ziren lasterketen etorkizuna argitzeke dago oraindik. Oñati-Arrasate probaren inguruko erabaki ofiziala datorren astean jakinaraziko du AEDk. Eta Antxintxikak ere egunotan emango du erabakitakoaren berri.

PILOTA Sei hilabete geroago jokatu dute Soralueko finala

Sei hilabete atzerapenez dator Bergarako pilota sailak antolatzen duen Soralue sariko lau eta erdiko txapelketako finala. Martxoaren 17an ziren finala jokatzekoak, baina koronabirusaren pandemia tarteko bertan behera utzi behar izan zuten hitzordu hori ere.

Hala, finalerdiak jokatu zituzten urte erdi pasa bada ere,

kanporaketa guztiak gainditu eta finaleraino sailkatzeko meritua izan zuten pilotarien lanak errespetua merezi duelako, eta jendea pilota gosez delako, irailaren 11n jokatu dute finala, 19:30ean hasita.

Hala, promesen kategorian, Jorge Fernandez errioxarrak eta Unai Alberdi azpeitiarrak neurtuko dituzte indarrak. Eta nagusien kategorian, Lemoako Aitor Etxebarria eta Uharteko Iker Espinal izango dira zein baino zein gehiago.

ULMA



ULMA Inversiones, S. Coop.

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID-19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko erabaki prebentibo neurriak hartuak, 40. artikuluan ezarritako enpresaren arabera, ULMA Inversiones, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2020ko uztailaren 9ko bilan, erabaki da Ohiiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

Eguna: 2020ko irailaren 18a

Ordua: 11:30ean lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena

Tokia: Bideokonferentzia sistema bidez

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2019KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2020KO GESTIO PLANA ETA AURREKONTUA BERRESTEA
3. BORONDATEZKO ERRESERBA FONDOAK BIRBANATZEA
4. 2019KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALERA EGINDAKO EKARPENAK ORDAINTZEKO PROPOSAMENA
7. 2019KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
8. ESTATUTU SOZIALETAKO 23. BAT ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK BATZAR NAGUSIAREN FUNZIONAMENDUAN SARTZEKO
9. ESTATUTU SOZIALETAKO 43. BI ARTIKULUA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO, ESTATUTUEN IDAZKETA ULMA TALDEAREN FCI-REN KONTABILITATE TRATAMENDURA ETA TRATAMENDU FISKALERA EGOKITZEKO
10. HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
11. BAZKIDE BAKOITZAREN GUTXIENEN EKARPEN EKONOMIKOA
12. MENPEKO FINANTZA EKARPENEN JAULKIPENA
13. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
14. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDETZEA
17. GALDE-ESKEAK

OHARRAK Batzaren proposamenduak erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago, erabakia erabakitzeko proposamendu eta kontuan hartu behar diren beste faktoreekin batera hartu behar da. Batzar Nagusian deialdiaren erantzun gisa erabakia hartu behar da. Batzari, batzari gertatzen diren aldatzeak erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago, erabakia erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago. Batzari, batzari gertatzen diren aldatzeak erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago, erabakia erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago. Batzari, batzari gertatzen diren aldatzeak erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago, erabakia erabakitzeko egotea erabakigarri deituta ez dago.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2020ko irailaren 4a



Ferrerías kalean manifestazioa irudikatu zuten asteleheneko grabaketan. XABI GOROSTIDI



Manu Gomez zuzendaria Arrasateko Erdiko kalean martitzenean grabatzen. IBAI ZABALA

Debagoieneko hainbat toki, zinemako plato bihurtuta

Manu Gomez arrasatearrak zuzendutako 'Érase una vez... Euskadi' filma ari dira astlehena ezkerreko Debagoienean grabatzen; 80ko hamarkadako "Euskal Herri zahar, borrokatzaile eta aztoratua" irudikatzen du eta 12 urteko lau gazte dira protagonista

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Hogeitertetik gorako eskarmen-tua du arrasatearrak zinematigintzan, eta "gogotsu" heldu dio erronka berriari: *Erase una vez... Euskadi* berak idatzi eta zuzenduko duen lehen film luzea grabatzen ari da jaioterrian. "Nire haurtzarora itzuliko naiz. Hazi nintzen kale horietara. Istorio honen helburua da 12 urteko

lau haurren ikuspegitik 80ko hamarkadako Euskadi hura aztertzea. Azterna handia utzi zidan garai hark", azaldu du Manu Gomezek.

1985eko udako oporraldian girotuta dago, baina ez du herri zehatz batean kokatu. "Orduko Gipuzkoako edozein herri izan daiteke, ez dago zehatz Arrasaten edo bailaran kokatuta. Punk

musika garrantzitsua da filmean, eta baita heroina eta kooperatibak ere. *Stand by me* (Rob Reiner 1986ko) eta *Érase una vez en América...* (Sergio Leone, 1984) filmen nolabaiteko antza du".

Film korala

Andaluziatik migratutako gurasoak dituzten Marcos, Jose Antonio, Paquito eta Toni dira



Oñatiko Orueta etxea. A.A.



Arrasateko horma atonduta. M.S.

protagonistak; Asier Floresek (*Dolor y Gloria*), Aitor Calderonek (*Que Dios nos perdona*), Miguel Riverak (*Dos amantes*) eta Hugo Garciak interpretatutakoak. "Ikasturtea bukatu eta heldu dira azkenean udako oporrak. Oporraldi gogoangarria izango dela uste dute, baina gero, ez da hala izango".

Lau mutiko horiez gainera, izen handiko aktoreak daude; besteak beste, Gomezzen lehen-gusua den Bergarako Yon Gonzalez, Josean Bengoetxea donostiarra, Luis Callejo, Marian

Alvarez, Ruth Diaz, Aron Piper, Pilar Gomez, Vicente Vergara, Vicente Romero, Maria Isasi, Maria Alfonsa Rosso, Rafa Martin, Eriz Alberdi eta Betiza Bismark. "Oso korala da, lau mutikoak eta horien gurasoak, anai-arrebak... ere badaude".

ARRASATEN ETA OÑATIN ARI DIRA MANU GOMEZEN 'ÉRASE UNA VEZ... EUSKADI' GRABATZEN

GOIENA
URTE
20 ALBISTE

API: AZPIEGITURA HANDIENAREN ARGI-ITZALAK

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA
GOIENA TELEBISTA
IRAILAREN 4AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Arrasaten abiatu zuten

Asko aldatu da Euskal Herriko herrien itxura. Horregatik, "herri askorekin bat" sortu dutela azaldu du Gomezek. Zazpi aste iraungo du grabaketak eta 100 lagun inguru arituko dira. Debagoienean, oraingoz, Arrasaten eta Oñatin ari dira; Sorraluzen eta Eibarren ere izan dira asteon.

Filmak ikusmin handia sortu du; horren erakusle da alde zaharreko Ferreriasen eta Erdiko kalean eta Nafarroa etorbidean, Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza inguruan, bildu den jendetza: horietako asko gustuko duten aktore izarra gertutik ikustera hurbildu dira; beste asko kamera aurrean agertzera ere animatu dira.

Garai batean Ferreriasen zegoen Jovi margo dendaren lokala King's ile-apaindegi bihurtu du Gomezen taldeak, hormetako paperak, aulkiak, ile-lehorgailuak eta garaiko afixak erabili. Eta Erdiko kalean dago filmeko Aitor etxetresnen denda, Modas Mercheren lokal ohian. "Uztail hasieran etorri ziren nire familiarena den lokala erabiltzeko baimena eskatzera. Hamar bat

egunerako beharko dutela esan ziguten, eta abuztu erdialdean eman genien giltza, dekoratuak atontzen hasteko. Ez nuen Manu ezagutzen aurrez, baina berak ni bai; gazteagoa zela jostailuren bat edo beste saldu nion, antza. Egunerokotasunetik ateratzeko politikak dira halako gertakariak. Ikaragarria da minutu batzuk grabatzeko atzean dagoen lana. Ondo ari dira portatzen", dio Zur Lur jostailu dendako Juan Manuel Apeke.

Oñatin, asteburuan

Aozaratza kaleko Orueta etxean ere grabatuko dute. Atzo, egue-na, hasi eta domeka bitartean izango dira beheko eta lehenengo solairuetan; hasiera batean, barruko irudiak bakarrik filmatuko dituzte. "Lokalizazio arduraduna laguntza eske etorri zen uztailaren bukaeran kultura

LAU HAUREN IKUSPEGITIK 80KO HAMARKADAKO EUSKADI AZTERTZEA DA FILMAREN ASMOA

etxera, 80ko hamarkadako itxura duen etxe baten bila ari zirelako. Herrian ibilalditxo batzuk egin genituen elkarrekin, eta ezagutzen nuen Orueta etxearen jabeekin harremanetan jarri nuen gero, eta euren artean adostu zuten baimena. Sare elektriko oso zaharkitua du, eta konpontzen laguntzen saiatu gara Udaletik", azaldu du Kultura zinegotzi Inaki Olalde.

Ultzezin kaleko hainbat apartakaleku zine-taldearentzat gorde dituzte; hori horrela, Kalegoieneko lur azpiko apartakaleku ireki eta libre utzi du Udalak, atzotik domekara bitartean.

La Canica Films-ek ekoiztuta

Zinegile gazteen aldeko apustua egiten duen La Canica Films-ek ekoizti du, Erase una vez mi cuadrilla AIEren laguntzarekin, eta EITBren eta RTVEren batesa du. Ibilbide handiko profesionalarekin osatu dute lantalde teknikoak; horien artean daude: Almodovarrekin lan egiten duen Antxon Gomez zuzendari artistikoa; Javier Salmones argazki zuzendaria; eta Josune Lasa jantzien arduraduna.

'Erlauntza' filma grabatu dute abuztuan

Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Getari Etxegarai, Naiara Arnedo, Itziar Atienza eta Leire Ruiz dira Tentazioak eta Achronicak ekoizti duten komedia garrantzaren protagonistak. Bergarako Mireia Gabilondok zuzendu du eta Aretxabaletako Kepa Errastik idatzitako izen bereko antzezlanean oinarrituta dago.

Uztailaren 15ean grabatzen hasi eta uztailaren 31n amaitu zuten Gamiz-Fikako landetxe batean (Bizkaia) egin duten errodajea. Fernando Bernues da ekoizlea, David Bernues eta Xabier Lozano dira argazki zuzendariak, Ana Turrillasek zuzendu du arte departamentua eta Fernando Velazquez ari da soinu banda osatzen.

"Komedia garrantza"

Landetxe batera doazen lagunak istorioa jasotzen du. "Betidanik lagunak diren sei emakume abiatuko dira bertara, horietako baten ezkongabeko agurra ospatzeko asmoz, baina urteak ez dira alferrik pasatzen, eta,



Mireia Gabilondo zuzendaria Aitziber Garmendiari aktorearekin. TENTAZIOA

euren artean lotura handia sentitzen badute ere, ez da ezer zena", diote ekoiztetetik.

Filmak adiskidetasunaren eta sortzen diren tirabiren inguruan dihardu. "Hasiera batean asteburu zoroa izango zena are gehiago erotuko da: trapu zikinak, inoiz esan ez ziren gauzak, aitorpenak, alkohola, droga eta erlauntz bat".

Filmaren bi bertsio

Euskarazko eta gaztelarazko bertsio bana grabatu dute. "Ez

da bikoizketa bat; modu batean esanda, bi film grabatu ditugu aldi berean; pasarte batean euskarazko bertsioa grabatu ondoren, gaztelaraz grabatzen genuen gero pasarte bera, eta hala egin dugu film osoa".

Muntaketa lanetan ari dira eta urrirako amaitzea espero dute. "Orain arteko sentsazioak onak dira, grabaketak ondo joan ziren, eta hala doaz hurrengo lanak ere. Zine aretoetako estreinaldirako data zehatzik ez dugu oraindik finkatuta".

Goiena Klubaren txokoa**Hauek dira uztaileko irabazleak!****KINDLE EBOOK**

Arantzazu Uribeberria Maiztegi (Aretxabaleta)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Cristina Bikuña Olalde (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Mertxe Cantero Perianes (Oñati)

Amaia Irizar Markuleta (Oñati)

Miren Lourdes Bengoa Azkoaga (Arrasate)

DUKIENA JATETXERAKO

BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Josu Zubizarreta Aranguren (Arrasate)

SANTA ANA JATETXERAKO

BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Begoña Ayastui Elorza (Arrasate)

TXOPEKUA JATETXERAKO

BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Ascensio Laskurain Zabaleta (Antzuola)

ERUAN JATETXERAKO

BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Jesus Mari Olabarria Eguren (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAK.** Aratz Auzoa. OÑATI, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzo deitu hiltzordua egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Saria jasotzeko***, zaitoz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman behar da. GOIENA Oñatiaren Lizenziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Asteleheneetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako otordua**LASA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduren atala eta hartu parte! Parte hartzea: Irailaren Bira arte



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatezuek

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantaila gozatzeko...

**ESKAITZA BEREZIA!!**

Irailetik abendura bazkideztza: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Egin tokiko komunikabideen alde

Egin Goiena Klubeko bazkide



Anima zaitetz, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- Deskontuak hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilia.
- Puntuak aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- Zozketak: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- Deskontuak Iraqarki sailkatuak atalean. Goiena aldizkarian.
- Deskontuak eskelak iartzean Goiena aldizkarian.

Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- **30 euro bakarrik** kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrean.
- **%30 merkatuko zaizu bazkidetza** kuota errenta aitortpena egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- **Maskara jasangarria** jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)



BAZKIDE EGITEKO:

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI
Baseria erosi. Baseri baten bila gabiltza Oñatin, erosteko asmotan. Telefonoa: 653 01 71 65

104. ERRENTAN HARTU
Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Etxebizitza behar dugu errentan, hiru logelakoa. Telefonoa: 638 85 43 36

Arrasate. Familia txikia gara, hiru kidekoa, eta etxebizitza behar dugu errentan, ahal bada erdigungean. 680 87 38 66

Bergara eta inguruak. Apartamentua errentan hartuko nuke. Telefonoa: 610 34 97 88

Bergara. Irogailua duen etxebizitza behar dugu errentan. Logela batekoa edo bikoa izan daiteke. Altzaririk gabe ere bai. 645 72 92 87

Debagoiena. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 634 69 29 62

Debagoiena. Familia bat hiru logelako etxebizitza bila. 697 27 65 67

Etxe bila Arrasaten. Ama eta bi haur Arrasaten bizitzeko etxebizitza bila gabiltza. 676 91 71 23

Oñati. Oñatiko mutil bat etxea errentan hartzeko prest. 679 62 69 64

105. ETXEA OSATU
Arrasate. Gela ematen da errentan, unibertsitatetik oso gertu. Harremanetarako: 629 80 47 82

2. GARAJEAK

Arrasate. Errentan hartzeko garaje bila gabiltza Ferialeku inguruan. Telefonoa: 606 66 80 21 edo 646 47 59 02

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Umea ikastolara eramatea. Pertsona bat behar da Arrasaten, goizetan umea ikastolara eramateko. Orduetgia: 7:30etik 9:00etara. Autoa beharrezkoa. Telefonoa: 616 68 33 00

402. ESKAERA

Arrasate eta inguruak. Arratsaldetan edo asteburuetan lan egingo nuke. Zaintzan, garbiketan zein tabernan. 647 51 48 07

Arrasate. Emakume arduratsua gertu orduka, egunka edo gauean zaitza lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta titulazioa daukat. 685 22 54 01

Arrasate. Etxeko langile moduan aritzeko gertu nago. Ikastaroak eta legezko agiriak daukat. 632 39 87 73

Arrasate. Orduka lan egingo nuke, egunean zehar zein gauean. Legezko agiriak eta etxez etxeko lanetarako ziurtagiriarekin. 632 39 87 73

Arrasate. Zaintza eta geriatria titulazioak eta legezko agiri guztiak dauzkan emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 633 12 85 30

Arrasaten haurrak zaindu. Haur Hezkuntzan graduatutako neska gazte eskalduna irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest. 646 25 60 30

Bergara eta inguruak. Pertsona nagusi eta umeen zaintzan edo lokal, bulego eta etxeen garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 610 34 97 88

Bergara. 23 urteko mutil eskalduna, pedagogian diplomatu eta umeak zaintzen esperientzia duena, irailetik martxora bitartean, goizez, umeak zaintzeko gertu. 689 24 85 89 (Jokin)

Bergara. Emakumea lan bila, astelehentik ostiralera. Helduak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. 671 54 59 72

Bergara. Etxeak garbitzen eta umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 661 06 06 63

Bergara. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 677 00 90 26

Debagoiena. 22 urteko neska naiz, Magisteritza-

ARETXABAETA

Sukaldaria edo laguntzailea behar da, goizez lan egiteko.

kurrikulumak02@gmail.com
 edo 675 70 82 36

ko titulazioarekin eta haurrak zaintzeko esperientziarekin. Pertsona serio eta erantzulea naiz, lan egiteko gogo handiarekin. 673 39 18 82

Debagoiena. Denetarik garbiketarako gertu nago: etxeak, bulegoak, tabernak eta abar. Telefonoa: 604 17 39 74

Debagoiena. Emakumea lan bila pertsona nagusiak, egunez edota gauez, zaintzeko. 647 31 48 17

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri eta baimen guztiak. Orduka edota asteburuetan. Autoa daukat. Telefonoa: 662 43 08 54

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 01 32 58

Debagoiena. Etxeko langile moduan lan egingo nuke. 642 10 87 45

Debagoiena. Garbiketan, gidari moduan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Autoa eta legezko agiriak daukat. 608 83 29 67 edo 693 66 08 03

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketarako egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Neska bat eta mutil bat pertsona nagusien zaintzan lan egiteko prest. Egunez eta gauez. 659 90 85 13

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketarako egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

tean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke zaintzan edota atariak garbitzen. Soziosanitario titulazioa daukat. 643 73 62 83

Debagoiena. Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke zaintzan edota atariak garbitzen. Soziosanitario titulazioa daukat. 643 73 62 36

Debagoiena. Orduka edota astea osoz lan egingo nuke etxeko langile moduan. 643 29 75 77

Debagoiena. Orduka zein egun osoz nagusiak zain-

tzeko gertu nago. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 600 02 74 13

Debagoiena. Soziosanitario ikasketak ditut eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Orduka, egun osoz, zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 631 93 23 22 telefonora.

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia handia. Deitu 13:00ak eta 19:00ak artean mesedez. 943 50 47 28

Debagoiena. Titulazioa eta legezko agiriak dauzkan neska egunean zehar nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako gertu. Asteburuetan eta orduka ere bai. 662 02 45 80

Debagoiena. Zaintzaile moduan lan egiteko gertu nago. Esperientzia eta legezko agiri guztiak. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 631 98 96 80

Umeak zaintzeko gertu. Magisteritza ikasten diharduen Arrasateko neska naiz eta umeak zaintzeko edota eskolako lanekin laguntzeko gertu nago. Ingeleseko Advance titulazioa daukat. Deitu 684 00 84 88 telefono zenbakira.

Zuen gaztetxoak zain-terik nahi?. Gaztetxoekin esperientzia handia duen 22 urteko neska bergararra naiz. Magisteritzako ikasketak burutu ditut eta lan egiteko gogoekin nago. Goizetan umeak zaintzeko, eskolatik etxera eramateko eta etxeko lanekin laguntzeko prest nago. Gaztelaraz zein euskaraz oso ondo moldatzen naiz. Telefonoa: 689 07 95 23

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurrak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari Arrasaten. Deitu 642 72 69 10 telefonora

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'AP-1: AZPIEGITURA HANDIENAREN ARGITZALAK'

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

PELLO LIZARRALDERI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 4	ZAPATUA, 5	DOMEKA, 6
09:00 Kantari Aretxabaleta 8	09:00 Kantari Arrasate 5	09:00 Txanbaniak
09:30 Kantari Arrasate 3	09:30 Kantari Arrasate 4	09:30 Kantari Arrasate 4
10:00 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari Arrasate 6	10:00 Kantari Arrasate 5
11:00 Eskulanak etxetik	10:30 Zirikatzen 6	10:30 Kantari Arrasate 6
